

Ordiziako Udala

Ordizian, **2019ko urriaren 10a** UDALBATZARRAK Ohiko bilkura egin du udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona hemen bertaratuak:

BERTARATUTAKOAK:

LEHENDAKARIA:

Adur Ezenarro Agirre jn.

BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:

Maitane Alvarez Garciandia	EH-BILDU
Jon ander Caballero Zubezu	EH-BILDU
Ainhoa Jimenez Gofi	EH-BILDU
Jesus M.Lariz Orbezabal	EH-BILDU
Itsaso Muñoz Rodriguez	EH-BILDU
Lander Mujika Onandia	EH-BILDU
Jose M. Santamaría Ezeiza	EAJ/PNV
Arantxa Arocena Gomez	EAJ/PNV
Joseba Aranburu Ganzarain	EAJ/PNV
Xabier Crespo Ibarrolaburu	EAJ/PNV
Arantxa Fernandez Alvaredo	EAJ/PNV
Eritz Perlines Torres	EAJ/PNV
Bittor Bolinaga Alzelai	EAJ/PNV
Miren A. Sukia Galparsoro	Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak
Juan I. Alonso Arratibel	Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak
Iñaki Dubreuil Churruca	(PSOE)PSE-EE(PSOE)

IZAN EZ DIREN ZINEGOTZIAK:

IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta andrea

KONTUHARTZAILEA:


Lioba Maiza Recondo, ezingo dela etorri abisatu du.

BESTE BERTARATZE ETA IRTEERAK

AZTERTUTAKO GAIK

EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIK:

1. 2019ko ekainaren 15eko osoko bilkurak egindako batzarraren akta onartzea.
2. 2019ko uztailaren 2ko osoko bilkurak egindako batzarraren akta onartzea.
3. Alkatezako dekretuen berri ematea.
4. Ordizia Orain/Elkarrekin-Podemos/Ezker Anitza-IU alderdiak aurkeztutako proposamen administratiboa "Auzotasunagiria ezartzeari buruzkoa".
5. Ordizia Orain/Elkarrekin-Podemos/Ezker Anitza-IU alderdiak aurkeztutako propoposamena ipuzkoako zaharren egoitzei buruzkoa. Foru aldundiari eskaerak.
6. Udalbatzarrari jakinaraztea erabateko dedikazioa izango duten 3 zinegotziren izendapenak eta karguhartzeak.
7. Informazio Batzordeak egiteko egunen aldaketak.
8. Udal energia plana onartzea.
9. Ordenantza Fiskalen hasierako onarpena.



Ordiziako Udala

10. 2019 aurrekontuaren kreditu gehigarriaren behin-behineko onarpena
11. 2018ko kontu orokorraren onarpena.
12. Majori Kiroldetako inbertsioa onartzea.
13. 2019rako Plantilla organikoaren aldaketa
14. 2019rako Lanpostu Zerrendaren aldaketa.
15. Ekintza humanitarioentzako Larrialdietarako laguntza.
16. Floreaga HIEn Babes Publikoko etxebizitzak sustatzeko hirigintza hitzarmena izenpetzea.
17. 2020rako auto-taxien tarifak onartzea

PRESAZKO IZAERAZ SARTUTAKO GAIAK:

- 1.- Taberna-jatetxeko sukaldearen hornidura eta ekipamendurako finantzaketa Majori Kiroldetia SMri.
- 2.- Ordizia Lantzen Sari ekarpena, maileguren kuotei aurre egiteko.
- 3.- Klima-larrialdiari buruz EAJ-PNVk egindako erakunde adierazpena.

GALDE-ERREGUETAN AZTERTUTAKO GAIAK:

- Osoko bilkurako aktak webgunean.
- Kontzentrazioarako deialdia.
- Osasun Zentroan burutu beharreko obrari buruzko informazio bilera.


GORABEHERAK

ORDUTEGIA:

HASIERA: 18:00etan

AMAIERA: 22:15ean





Ordiziako Udala

Lehendakariak ireki du bilkura, eta jakinarazi du osoko bilkura datatik kanpo deitu bada ere, ohiko bilkura dela.

Kontu-hartzailearen gaixotasunagatiko baja, ehuneko 30eko dedikazioa duen kontu-hartzaile berriarekin landutako ordenantza fiskalak onartzeko proposamena atzeratu duena, eta oporraldiaren ondoren udal berria antolatzeko modu berria martxan jartzea izan dira deialdian atzerapena eragin duten arrazoietakoz batzuk.

Jarraian, eguneko gai-zerrendako lehen puntua irakurri da.

1.- 2019ko ekainaren 15eko osoko bilkurak egindako batzarraren akta onartzea.

Proposamena

2019ko ekainaren 15eko osoko bilkurak egindako batzarraren akta onartzea.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Ez da izan.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira

Aldekoak: 17 (EH-BILDU 7, PNV/EAJ 7, Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak 2, PSOE-PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

2.- 2019ko uztailaren 23ko osoko bilkurak egindako batzarraren akta onartzea.

Proposamena

2019ko uztailaren 23ko osoko bilkurak egindako batzarraren akta onartzea.


Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Dubreuil jaunak esan du aktaren 16. orrialdean, gaztelaniazko bertsioan, bere esku-hartzea ez dela osorik jaso.

Aipatu du bere esku-hartzearen amaiera hauxe esan zuela: "abstenitu egingo da, antolakuntza alderdi bakoitzaren hauteskunde-programaren arabera diseinatu beharko litzatekeelako".

Eta alkate jaunaren erantzunean jaso denez, "astakeria iruditzen zaio alderdi jakin baten hauteskunde-programa udalaren antolaketa-ereduarekin nahastea", eta, egiaz, erabili zuen hitza ez zen *astakeria* izan, *aberrantea* baizik.



Ordiziako Udala

La Secretaria procede a la corrección del acta en los extremos señalados.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldekoak: 17 (EH-BILDU 7, PNV/EAJ 7, Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak 2, PSOE-PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman

3.- 2019urteko, maiatza, ekaina, uztaila eta abuztuko Alkatetzako dekretuen berri ematea.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Santamaría jna

19/628 y 19/0752 dekretuei buruzko galderak egin ditu.

Alkate jna.

Hurrengo Tokiko Gobernu Batzarrean emago ditu hauen argitalpenak.

Sukia and.

19/0582, 19/0751 y 19/0815 dekretuei burfuzko informazioa eskatu du. Santamaria jaunak eskatutako baten berri ere eskatu du.

Alkate jna.

Hurrengo Tokiko Gobernu Batzarrean emago ditu hauen argitalpenak.

Udaleko Osoko Bilkura jakinaren gainean dago.




Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman

4.- Ordizia Orain/Elkarrekin-Podemos/Ezker Anitza-IU alderdiak aurkeztutako proposamen administratiboa “Auzotasunagiria ezartzeari buruzkoa”.

Proposamena

Herritar atzarretar asko administrazio-egoera irregularrean bizi dira, eta lan egiten dute, EAEm. Atzerritarrei buruzko Legeak egoitza eta lan-baimena sustraitze sozialaren bidez lortzeko ezinbesteko eskakizun gisa ezartzen du gutxienez hiru urte jarraituz Espainiar estatuan finkatuta egotea; badaude



Ordiziako Udala

egoera erregularizatzeko beste modu batzuk ere, baina ez dira oso eraginkorrak (hala nola, lan-sustraitzea ego egoitza- eta lan-baimenak jatorri-herrialdean izapidetzea).

Eskakizun horren ondorioz, pertsona ugari egoera irregularrean gauzatu behar izaten dute eguneroko bizitza, hau da, "paperik gabe", beren borondatearen kontra, eta, gutxienez, hiru urte luzez. Izan ere, "paperak" izapidetzean, denbora tarte hori igaro baino lehen ez da kontuan hartuko zer neurritan dagoen sustraituta edo bertakotuta harrera-gizartean, ez eta gizarte horri zer ekarpen egiten dion ere.

Gutxienez hiru urtez, pertsona horiek egoera prekarioan bizi eta lan egin behar izaten dute; horrek gizarte-bazterketarako arrisku handiagoa eragiten die, eta edozein unetan haien aurkako kanporatze-agindu bat gauzatzeko arriskuan egoten dira. Askok, gainera, jatorri-herrialdean identifikazio-agiriak izapidetzeko zailtasunak izaten dituzte.

Errealitate hori gero eta ohikoagoa da EAEn arreta emateko politikak biltzen ditu, eta, oinarrizko xedearen artean, kulturarteko bizikidetzaren sustatzearena aipatzen du.

Barne Ministerioaren datuek erakusten dutenez, kanporatze gehienak (jatorri-herrialdera itzularazten dituzten pertsonak) egoitza-baimena ez izateagatik bakarrik gauzatu dira (falta administratibo bat da hori, ez delitu bat).

2005. eta 2017. urteen artean, gauzatutako kanporatzeen %70,5 arrazoi administratibo hutsagatik egin ziren, egonaldi irregularragatik, hain zuzen ere.

EAEk, dituen eskumenak izanda, ezin da Atzeritarrei buruzko Legea aldatu (Estatuaren eskumena da), baina hemen bizi diren eta lan egiten duten eta bertan sustraitzeko nahia duten baina kanporatze-agindu baten mehatxuarekin bizi diren herritar atzeritarrei laguntzeko tresnak sor ditzakegu. Izan ere, Konstituzioak eta Autonomia Estatutuak diote gizarteratzearen eta gizarte-bazterketaren alorreko eskumena lurralde autonomikoei dagokiela. Beraz, Barne Ministerioaren ardura da mugak eta atzeritartasuna zaintzea, baina gizarteratzea, berriz, euskal administrazioen ardura da.


Herritarren, kulturartekotasunaren eta inmigrazioaren eremuan jarduteko V.Plana dokumentuaren aurkezpenak honako hau dio: Inmigrante gehien-gehienek Euskadin geratu nahi dute. Datuek berretsi egiten dute hori. Alegia, gehiengoaren borondatea ur honetan jarraitzea da.

Ilido horretatik, auzotartasun-agiria ego auzorartasun-txartela direlako agiriak abian jarri dira zenbait udalerrietan, hala nola Bartzelonan Valentzian eta Madrilen. Eta oso ongi funtzionatzen ari dira gainera. Udalak ematen die agiri hori udalerriaren eroldaduta dauden eta bertan bizi diren baina egoera irregularrean dauden pertsonen, eta hiriko auzotar gisa duten bertakotze-maila erakusteko balio du. Bestalde, CIEtan sartzeko edo herrialdetik kanporatzeko prozeduretan, laguntza gisa erabil daitezke horrelako agiriak.

Horrelako tresnak oso lagungarriak dira egoera irregularrean dauden pertsonak sustraitzeko eta bertan gelditzeko haien nahia areagotzeko. Euskal gizarteko eguneroko bizitzan dagoeneko gertatzen ari den herritarren bertakotzea egiaztatzeko bitarteko bat dira. Hori horrela, EAEko udalerrietan antzeko esperientzia bat abiarazteko proposamena egiten dugu.

Eusko Jaurlaritzaren ardura da pertsona inmigranteen gizarteratzearekin eta gizartean duten parte-hartzearekin lotutako politika integral eta zeharkako bat sustatzea eta koordinatzea, baina udalak dira herritarrek hurbilen dituzten erakundeak, eta herritarrek hurbilen dituzten erakundeak, eta herritarren gizarteratze-maila hobekien ezagutzen dutenak. Gainera, auzotartasun-agiriak beste prozesu batzuk ere erraztu ditzake, hala nola errolatzea.

Esandakoagatik guztiagatik, Ordizia Orain Elkarrekin Podemos alderdiak honako ERABAKI-PROPOSAMEN hau luzatzen dio Ordiziako Udaleko Udaltzari:



Ordiziako Udala

1.- Ordiziako Udalak konpromisoa hartzen du "Hemengoa naiz" auzotartasun-agiriaren ekimena abiarazteko. Agiri horrek udalerrian bizi diren eta egoera irregularrean dauden pertsona atzerritarren bertakotze-maila egiaztatuko du, eta, horrela, haiek sustraitzea eta egonaldia sendotzen lagunduko du, eta Estatuak bizitzeko eta/edo lan egiteko baimena ematen duen dokumentazio administratiboa lortzeko lagungarri izango da. Era berean, CIEtan barneratzeko eta/edo herrialdetik kanporatzeko prozeduretan, defentsa-mekanismo bezala erabili ahal izango da.

2.- Ordiziako Udalak konpromisoa hartzen du Eusko Jaurlaritzari eskatzeko egin dezala EAEko udalerriz guztietan "hemengoa naiz" izeneko auzotartasun-agiri bat abiarazteko jarraibide komunen dekretu bat (agiri horrek udalerrian bizi diren eta egoera irregularrean dauden pertsona atzerritarren bertakotze maila egiaztatuko du).

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Sukia andreak adierazi du proposamenaren xedapen-zatiko lehenengo atala kentzea proposatuko dutela.

Aurkeztutako mozioaren xedearen berri eman du, eta irakurri egin du.

Proposamenaren lehen atala zergatik ezabatuko duten azaldu du, eta esan du beren ustez goragoko administrazioek finkatu behar dituztela jarraitu beharreko irizpideak, horretarako eskumenak baitituzte.

Gaineratu du une honetan immigrazio gaiak lantzen dituen teknikaria lanaldi erdian ari dela lanean, eta lanaldi osoa beharrezkoa dela irizten diote.

Perlines jaunak esan du bere taldeak positibotzat eta beharrezkotzat jotzen duela etorkinen aldeko neurriak eta ekintzak garatzea, gure gizartean integratzearen alde, baina, hala ere, mozioak zalantzaren bat sortzen die:

- 1) Nola neur daiteke gizarteratze-maila? Kualitatiboki edo kuantitatiboki? Agiria ez duena ez dago integraturik?
- 2) Madrilen ezarritako proiektua jarri da adibide gisa. Baina datuek erakusten dute Madril erdialdeko barrutiko 32.041 etorkinetatik 300 etorkinek bakarrik eskatu dutela auzotartasun-agiria. Horrek % 0,93 esan nahi du. Datu horiei erreparatuta, bere iritziz proiektuak analisi serioa behar du.
- 3) Gainera, mozioak dioenaren arabera, agiri horrek erroldatze-prozesua erraztu dezake. Nola, zein modutan?


Auzotartasun-agiria ez da identifikazio-agiri bat, ez ditu oinarrizko eskubideak bermatzen, Ordiziako udalak une honetan etorkinei ematen dizkien zerbitzuak ez ditu bermatzen, ez du beste inolako zerbitzu edo eskubiderik ematea bermatzen, ez da bizileku-baimenaren edo lan-baimenaren parekoa.

Hortaz, zertarako balio du?

Etorkinak nahasi ditzakeen neurria dela uste du, itzaropen faltsuak sor ditzakeena, benetan legezko baliorik gabeko dokumentua izanik.

Dubreuil jauna bat dator O. Orainekin planteatzen den arazoari alderdi politikoen aldetik erantzuna emateko ideiarekin.

Kulturartekotasun Planak erakunde arteko loturak ezartzen ditu, lantalde bateratuak zuzentzen ditu, gainerako eragileen ekimenak koordinatzen ditu eta, azken batean, plana gauzatzeaz, jarraipenaz eta ebaluazioaz arduratzen da. Arazoak tratamendu zorrotza eta homoginoa behar du, ez isolatua eta maila instituzional anitzetan.



Ordiziako Udala

Ordiziako sozialistak sentikorrak dira migrazio irregularraren arazoarekiko, eta legealdiz legealdi erakutsi dute hori, migrazio fenomenoak Ordiziar nabarmen eragiten hasi zitzaionetik, baina mozioak itxaropen faltsuak sortzen dituela uste dute, egoera irregularrean dauden etorkinak CIEn barneratzea eta ondoren kanporatzea saihesteko soilik diseinatutako dokumentua delako. Dokumentuak ez du balio juridikorik.

Gainera, Ordizian erroldatuta daudenei bakarrik aplikatuko litzaieke, eta Ordiziak ezin du bere kabuz jokatu guztiona izan behar duen ahalegin batean, euskal gizarte kohesionatu baten oinarriak finkatuz, kultur aniztasuna errespetatuz eta kulturartekotasunaren gakoan elkarbitza bultzatuz.

Bere iritziz lan-mahai bat eratu behar da.

Dioenez, erroldatzea da administrazio-auzotasunaren eskubide guztiak bermatzen dituen dokumentua.

Galdetu du ea saileko teknikariak pultsatu diren, proiektua ezartzeak zerbitzuak ematen dituzten langile publikoen lana handitzea ekarriko lukeelako.

Bere iritziz, datuak falta dira, eta mozioak zalantza ugari sortzen dizkio.

Sukia and.

Erantzun du ez zaiela teknikariei galdetu.

Alkate jaunak esan du, mozioaren xedapen-zatiko lehenengo atala ezabatzen bada, mozioa eskaera hutsean geratzen dela, Eusko Jaurlaritzari eskatzeko abian jar ditzala etorkinak babesteko beharrezkoak diren tresnak.

Mozioaren aldeko botoa emango dute.

Sukia andreak adierazi du gai konplexua dela, eta dagoeneko Eusko Legebiltzarrean eta udal batzuetan aurkeztutako mozio orokor bat dela.

Egia da ez dela erroldatze bat, baina NAN bat bezalakoa da, txip bat, errotze-agiri bat. Etorkinen defentsarako tresna bat da, babes-neurri bat.

Ez du uste itxaropen faltsurik sortuko duenik; etorkinek beraiek eskatu behar dute. Gai berria da, baina aukera handikoa.

Errotzea ez du erroldatzeak bakarrik ematen, askoz zabalagoa da.


Adierazi du mozioaren lehenengo puntua ezabatzean benetan geratzen dela Eusko Jaurlaritzari egindako eskaera bat, zeinek eskumenak baititu, Dubreuil jaunak uste duen bezala.

Oinarrizko babes bat da.

Perlines jaunak esan du mozioa eskaera hutsean geratzen denez, lehenengo puntua kendu ondoren, aldeko botoa emango duela, hasiera batean abstenitzea pentsatzen bazuen ere.

Dubreuil jaunak esan du abstenitu egingo dela eztabaidan argudiatu diren arrazoiak kontuan hartuta. Azpimarratu du egokiena lan-mahai bat osatzea litzatekeela, Eusko Jaurlaritzari protagonismoa emanez, nahiz eta badakien interesdunengandik gertuen dagoen instantzia udala dela.

Horrenbestez, mozioaren idazketa hauxe izango da:



Ordiziako Udala

Proposamena

Auzotarsun-agiria ezartzeari buruzko mozioa.

Herritar atzarretar asko administrazio-egoera irregularrean bizi dira, eta lan egiten dute, EAEm. Atzerritarrei buruzko Legeak egoitza eta lan-baimena sustraitze sozialaren bidez lortzeko ezinbesteko eskakizun gisa ezartzen du gutxienez hiru urte jarraituz Espainiar estatuan finkatuta egotea; badaude egoera erregularizatzeko beste modu batzuk ere, baina ez dira oso eraginkorrak (hala nola, lan-sustraitzea egoitza- eta lan-baimenak jatorri-herrialdean izapidetzea).

Eskakizun horren ondorioz, pertsona ugari egoera irregularrean gauzatu behar izaten dute eguneroko bizitza, hau da, "paperik gabe", beren borondatearen kontra, eta, gutxienez, hiru urte luzez. Izan ere, "paperak" izapidetzean, denbora tarte hori igaro baino lehen ez da kontuan hartuko zer neurritan dagoen sustraituta edo bertakotuta harrera-gizartean, ez eta gizarte horri zer ekarpen egiten dion ere.

Gutxienez hiru urtez, pertsona horiek egoera prekarioan bizi eta lan egin behar izaten dute; horrek gizarte-bazterketarako arrisku handiagoa eragiten die, eta edozein unetan haien aurkako kanporatze-agindu bat gauzatzeko arriskuan egoten dira. Askok, gainera, jatorri-herrialdean identifikazio-agiriak izapidetzeko zailtasunak izaten dituzte.

Errealitate hori gero eta ohikoagoa da EAEn arreta emateko politikak biltzen ditu, eta, oinarritzko xedeen artean, kulturarteko bizikidetzaren sustatzearena aipatzen du.

Barne Ministerioaren datuek erakusten dutenez, kanporatze gehienak (jatorri-herrialdera itzularazten dituzten pertsonak) egoitza-baimena ez izateagatik bakarrik gauzatu dira (falta administratibo bat da hori, ez delitu bat).

2005. eta 2017. urteen artean, gauzaturako kanporatzeen %70,5 arrazoi administratibo hutsagatik egin ziren, egonaldi irregularragatik, hain zuzen ere.


EAEk, dituen eskumenak izanda, ezin da Atzerritarrei buruzko Legea aldatu (Estatuaren eskumena da), baina hemen bizi diren eta lan egiten duten eta bertan sustraitzeko nahia duten baina kanporatze-agindu baten mehatxupean bizi diren herritar atzerritarrei laguntzeko tresnak sor ditzakegu. Izan ere, Konstituzioak eta Autonomia Estatuak diote gizarteratzearen eta gizarte-bazterketaren alorreko eskumena lurralde autonomikoei dagokiela. Beraz, Barne Ministerioaren ardura da mugak eta atzerritartasuna zaintzea, baina gizarteratzea, berriz, euskal administrazioen ardura da.

Herritarren, kulturartekotasunaren eta inmigrazioaren eremuan jarduteko V.Plana dokumentuaren aurkezpenak honako hau dio: Inmigrante gehien-gehienek Euskadin geratu nahi dute. Datuek berretsi egiten dute hori. Alegia, gehiengoaren borondatea ur honetan jarraitzea da.

Ildo horretatik, auzotartasun-agiria ego auzotartasun-txartela direlako agiriak abian jarri dira zenbait udalerritan, hala nola Bartzelonan Valentzian eta Madrilan. Eta oso ongi funtzionatzen ari dira gainera. Udalak ematen die agiri hori udalerrian eroldaduta dauden eta bertan bizi diren baina egoera irregularrean dauden pertsonen, eta hiriko auzotar gisa duten bertakotze-maila erakusteko balio du. Bestalde, CIEtan sartzeko edo herrialdetik kanporatzeko prozeduretan, laguntza gisa erabil daitezke horrelako agiriak.

Horrelako tresnak oso lagungarriak dira egoera irregularrean dauden pertsonak sustraitzeko eta bertan gelditzeko haien nahia areagotzeko. Euskal gizarteko eguneroko bizitzan dagoeneko gertatzen ari den herritarren bertakotzea egiaztatzeko bitarteko bat dira. Hori horrela, EAeko udalerritan antzeko esperientzia bat abiarazteko proposamena egiten dugu.

Eusko Jaurlaritzaren ardura da pertsona inmigranteen gizarteratzearekin eta gizartean duten parte-hartzearekin lotutako politika integral eta zeharkako bat sustatzea eta koordinatzea, baina udalak dira



Ordiziako Udala

herritarrek hurbilen dituzten erakundeak, eta herritarrek hurbilen dituzten erakundeak, eta herritarren gizarteratze-maila hobekien ezagutzen dutenak. Gainera, auzotartasun-agiriak beste prozesu batzuk ere erraztu ditzake, hala nola erroldatzea.

Esandakoagatik guztiagatik, Ordizia Orain Elkarrekin Podemos alderdiak honako ERABAKI-PROPOSAMEN hau luzatzen dio Ordiziako Udaleko Udaltzari:

AKORDIO PROPOSAMENA

.- Ordiziako Udalak konpromisoa hartzen du Eusko Jaurlaritzari eskatzeko egin dezala EAEko udalerrri guztietan “hemengoa naiz” izeneko auzotartasun-agiri bat abiarazteko jarraibide komunen dekretu bat (agiri horrek udalerrrian bizi diren eta egoera irregularrean dauden pertsona atzerritarren bertakotze maila egiaztatuko du).

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldekoak: 16 (EH-BILDU 7, PNV/EAJ 7, Elkarrekin Podemos-Ordizia Orain (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 2)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 1 (PSOE-EE (PSOE) 1)

Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

5.- Ordizia-Orain/Elkarrekin-Podemos/Ezker Anitza-IU alderdiak aurkeztutako proposamena Gipuzkoako zaharren egoitzei buruzkoa. Foru Aldundiari eskaerak.

Proposamena


Justifikazioa

Eusko Legebiltzarraren 12/2008 Legeak, abenduaren 5ekoak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, 22. artikuluan adierazten du zer zerbitzu sartzin diren Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan, eta xedatzen du euskal administrazio publiko eskumendunek bermatu behar dutela horiek betetzen direla.

Legeak foru-aldundien esku uzten dituen bigarren mailako arretako gizarte- zerbitzuen artean daude pertsona nagusientzako egoitza-zentroak eta Autonomia mugatuak eragindako premiei erantzuteko eguneko zerbitzuak edo zentroak (22. artikulua 2.4.1. eta 2.2.1. atalak, hurrenez hurren).

Legea indarrean sartu zenetik, eta pixkanaka, Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain hartu ditu udalenak ziren egoitza-zentroak, eta zentro pribatuetan itundu ditu lehenengo horiek estali gabe utzitako plazak. Gaur egun, Foru Aldundiak finantzatzen du plaza guztien %85.

Hainbat urtez, kostuak murrizteko grina horrekin, administrazio publikoa adinduei arreta emateko zerbitzu ugari kanpora ateratzen aritu da, eta, zerbitzua titulartasun publikokoa bada ere, azpikontratatuta gelditu da zentro horietako askotan. Plaza batzuk administrazioaren plantillako langileek betetzen dituzte, baina, gainerakoak, azpikontrataturako enpresetako langileek. Zerbitzuak kanpora ateratzeko politika horren emaitza ankerra da lan bera eginda ere lan-baldintza oso desberdinak dituzten langileak daudela zentroetan. Horrek eragin du Gipuzkoako egoitzetako greban dauden langileen honako lema hau: “lan



Ordiziako Udala

beraren truke, soldata bera". Horixe eskatzen dute, beste aldarrikapen batzuen artean; ez da bakarra, ez eta garrantzitsuena ere agian, baina garrantzitsua da dena den.

Administrazio publikoaren erantzukizuna da administrazio publikoarentzat lan egiten duten langile guztiek baldintza beretan lan egiten dutela eta haien lan- baldintzak duinak direla bermatzea, eta, halaber, haren betebeharra da azpikontratutako enpresek baldintza horiek betetzen dituztela zaintzea. Zaintzaileak zaintzea errespetuzko printzipioa da. Ez litzateke gaizki egongo, gainera, azpikontratutako zerbitzuen erreskateari buruzko bideragarritasun-azterketa bat egitea.

Bi urte baino gehiago igaro dira egoitzetarako hitzarmen berri bat onartzeko negoziazioak hasi zirenetik, eta urtebete, kolektiboaren mobilizazioak hasi zirenetik; baina, halere, ez da inolako akordiorik edo irtenbiderik ikusten etorkizun hurbilean. Egoitza batzuk publikoak direnez, eta beste zenbait plaza itunduta daudenez, ulertzen dugu Gipuzkoako Foru Aldundiak berehala erantzun behar duela, eta akordio bat lortzen lagundu behar duela, adin nagusiko erabiltzaileentzat kalitatezko zaintza bermatzeko eta, era berean, zaintza horiek zuzenean ematen dituzten langileen lan-baldintza duinak zihurtatzeko.

Hori guztia dela-eta, honako akordio puntu hauek proposatzen ditugu, udalaren osoko bilkuran eztabaida daitezen:

Ordiziako udalbatzak honako hau eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari:

- 1. Aurrea hartu dezala lurralde honetako adinduen egoitzei eragiten dien gatazkaren ebazpenean.**
- 2. Ezarri dezala epe labur bat egoitzetako gatazka amaitzeko.**
- 3. Har dezala bere gain gatazka honi irtenbide bat emango liokeen akordio bat ez lortzeak dakartzan ondorio negatiboen erantzukizuna.**
- 4. Egin dezala azpikontratutako zerbitzuak erreskateari buruzko bideragarritasun-plan bat**

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Sukia andreak Ordiziako adinekoen egoitzan zerbitzuak ematen dituzten langileen ordezkariari eman dio hitza.

Langileak mozioa irakurri du.

Esan du iaztik greban daudela, 108 aldizkako greba-egun.

Esan du oso tratu txarra jasotzen ari direla. Langile gehienak emakumeak dira, eta Eusko Jaurlaritzak inposatutako gutxieneko zerbitzuak gehiegizkoak dira, ehuneko 80koak. Zerbitzua ia normaltasunez betetzen ari dira.


Hori lortu arte ez direla geldituko adierazi du, eta gustatuko litzaieke alderdi politiko guztiek mozioarekin bat egitea, gatazkaren konponbidearen giltza duen Foru Aldundiari presio egiteko.

2019ko uztailean ratioei buruzko dekretu berri bat onartu da, langileei urteko 8.000 zerbitzu-ordu kentzeko. Ordizia bezalako egoitza batean 5 pertsona gutxiago egongo lirateke lanaldi osoan, eta praktikan, lanaldi partzialak direnez, 10 langile gutxiago izango lirateke.

Alkate jaunak esan du bere taldeak aldeko botoa emango duela. Bere iritziz langileek (gehienak emakumeak) egiten duten lana ez da balioesten.

Egoitza udal-zerbitzua izateari utzi zionetik ematen ari den lana aztertu beharko litzatekeela uste du.

Langileek zerbitzu publikoa ematen dute; horrenbestez, mozioaren alde egingo dute guztiz.



Ordiziako Udala

Santamaria jaunak esan du gaia ez dela berria; gatazka 2004. urtetik dator.

Bere iritziz, gatazkan dauden eragileek hitz egitera eseri behar dute, eta elkarrizketa hori bultzatuko duten arren, abstenitu egingo dira bozketan.

Dubreuil jaunak bi gatazka-mota bereizten ditu:

- Lan-gatazka
- Egoitzen gatazka

Bere iritziz, lan-gatazka negoziazio-mahaian konpondu behar da.

Baina sakoneko arazoak kezkatzen du. Mozioaren aurka bozkatu beharko luke, ez datorrelako bat mozioaren zenbait konturekin, baina gatazka egoera normalizatzea beharrezkoa dela uste du, eta horregatik abstenitu egingo da. Ez dute oztopatuko mozioak bere bidea egitea.

Bolinaga jaunak esan du ez dagoela ados mozioaren 4. puntuarekin. Puntu hori ezabatuz gero, alde bozkatuko du.

Sukia andreak esan du berak mozioari eutsiko liokeela proposatuta dagoen bezala, baina langileen ordezkariari galdetu dio.

Langileak erantzun du zaharren egoitzak negozio bihurtu direla, eta agureekin negoziatzen ari direla. Zerbitzu publikoa ematen duten langileak direla iritzia dio, eta dirua erabili beharra dagoela erabili behar denerako.

Greban daude ez soilik soldaten igoeragatik, baita kalitatezko zerbitzua ematearen alde ere.

Sukia andreak mozioaren 4. puntuari buruz esan du zerbitzuaren erreskaterako azterketa bat eskatzea dela kontua.

Bolinaga jaunak berriro esan du puntu hori kenduz gero aldeko botoa emango dutela, hala egin ezean, ez diote babesik emango mozioari.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldekoak: 10 (Euskalerrria Bildu EH-BILDU 7, Elkarrekin Podemos-Ordizia Orain (Podemos, Ezker Anitza/IU EQUO Berdeak, EAJ/PNV 1)


Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 7(EA/PNV 6, Euskal Sozialistak- Socialistas Vascos1)

Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:



Ordiziako Udala

6.- Udalbatzarrari jakinaraztea erabateko dedikazioa izango duten 3 zinegotzien izendapenak eta kargu-hartzeak.

2019/0848. DEKRETUA

HONAKO HAU IKUSITA:

2019ko uztailaren 23ko osoko bilkurako Akordio bidez, bi zinegotziri dedikazio eskusiboan eta partzialean aritzea aitortu zaie, hurrenez hurren.

Akordioan, izendatutakoek lan horiek burutzeko izango dituzten baldintzak ezartzen dira eta jasoko dituzten ordainsariak.

Alkate honi dagokio dedikazio hau izango dutenak izendatzea

Aurretik aipatutakoagatik,

HONAKO HAU ERABAKI DUT:

LEHENENGO: Maitane Alvarez Garziandia andrea izendatzea dedikazio eskusiboko kargurako 2019ko uztailaren 24tik aurrera.

BIGARREN: Ainhoa Jimenez Goñi andrea izendatzea dedikazio partzialeko kargurako 2019ko uztailaren 24tik aurrera.

HIRUGARREN: Zinegotziek izendapenak espresuki onartu behar dituzte.

LAUGARREN: Udalbatzari, hurrengo bileran, dekretu honen edukiaren berri ematea.

* Dekretu hau doakionari jakinaraztea.

2019/0980. DEKRETUA

HONAKO HAU IKUSITA:

2019ko uztailaren 23an Udaleko osoko bilkurak oposizioak izendaturiko erabateko dedikazioa onartu zuen, Euskadiko Toki Erakundeetako Legearen 33. Artikuluan oinarrituta.

Akordioan, izendatutakoek lan horiek burutzeko izango dituzten baldintzak ezartzen dira eta jasoko dituzten ordainsariak.

2019ko irailaren 30ean, EAJ/PNVk jakinarazpena bidali zuen eta Jose Miguel Santamaria Ezeiza jauna proposatu zuen EAJ/PNV taldeko bozeramaile gisa erabateko dedikazioa duen kargua hartzeko.

Alkate honi dagokio dedikazio hau izango dutenak izendatzea


HONAKO HAU ERABAKI DUT:

LEHENENGO: Jose Miguel Santamaria Ezeiza, EAJ/PNVko zinegotzia izendatzea erabateko dedikazioz bere karguari dagokion funtzioak burutzeko 2019ko urriaren 1etik aurrera.

BIGARREN: Izendatutako zinegotziaren berriazko onarpena behar da.

HIRUGARREN: Udalbatzari dekretu honen edukiaren berri ematea hurrengo osoko bilkuran.

* Dekretu hau doakionari jakinaraztea.



Ordiziako Udala

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: ez da izan.

Udaleko Osoko Bilkura jakinaren gainean dago.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman

7.- Informazioa Batzordeak egiteko egiteko egunen aldaketak.

Proposamena

2019ko uztailaren 23ko ezohiko bilkuran, gai-zerrendako 4. puntuan, informazio-batzordeen osaera eta bilerak ospatuko diren egunak adostu ziran.

Osoko bilkuren funtzionamendua eta antolakuntza hobetzeko, eta 2019ko urriak 1eko Antolaketaren Informazio Batzordearen aldeko irizpena jaso ondoren, honako hau aurkezten da Osoko Bilkurak onartzeko.

AKORDIO PROPOSAMENA

Udaleko informazio-batzordeak ospatuko diren egunak aldatzea, ondoren jasota geratzen de moduan:

- **Lurraldearen Batzorde Informatiboa eta Antolaketaren Informazio Batzordea: Ohiko Osoko Bilkura ospatuko den asteko aurreko astelehenean.**
- **Herritasunaren Batzorde Informatiboa eta Ongizate eta Osasunaren Batzorde Informatiboa: Ohiko Osoko Bilkura ospatuko den asteko aurreko asteartean.**

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jaunak gobernu-taldearen arduraldi eskusiboko zinegotzien izendapenen berri eman du, baita izendapenen onarpenaren berri ere.

Era berean, oposizioak izendatutako zinegotziaren izendapenen eta karguaren onarpenaren berri eman dio osoko bilkurari.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Bozketa


Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldekoak: 17 (Euskalerrria Bildu, E.H. BILDU 7, EAJ/PNV 7, Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak 2, (PSOE) PSE-EE(PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.



Ordiziako Udala



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

8.- Udal energia plana onartzea.

Proposamena

2017ko urtean Ordiziako Udalak Udal Energia Plana egin zuen, energia kontsumoa eta berotegi efektuko gasen emisioa murrizteko.

Onartu nahi den Energia Plan honek udalerriko berotegi-efektuko gasaren % 76ri eragingo die, eta gainerako isurien %24a diren industria sektorekoak eta lehen sektorekoak kanpoan geratuz.

Hau da, gutxienez 10.587 t-ko murrizketa lortuko da, honek CO2 isurien %25a murrizketa ekarriko luke 2025 urterako.

Helburu hori lortzeko Planak jasotzen dituen hainbat ekimen burutu behar da.

Hori guztia ikusirik eta 2019ko urriak 1eko Lurraldeko Informazio Batzordearen irizpenarekin, ondorengo proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

Ordiziako Energia Plana onartzea eta bertan jasotzen diren ekimenak martxan jartzea energia-kontsumoa eta berotegi efektuko gasen isurketa murrizteko.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jaunak esan du une honetan gaurkotasun osoa duen gaia dela.

Esan du une honetan bidezkoa dela eskatutako diru-laguntzak eskuratu ahal izateko proposamena onartzea, baina egokitu eta eguneratu egin beharko dela.

Santamaria jaunak adierazi du 2017an hasi zela lan hori egiten, eta, gai horri dagokionez, bere asmoa dela bere taldeak Larrialdi klimatikoari buruz aurkezten duen adierazpen instituzional bat gai-zerrendan sartzeko eskatzea.


Alkate jaunak idazkariari galdetu dio gaia noiz aztertu behar den. Honek erantzun dio alkate jaunak gai-zerrendan premiazko puntu gisa sartuko dituen beste bi puntu daudenez, "Galdera eta eskaerak" puntua baino lehen, ordena bati jarraituz, puntua beste biekkin batera sartu beharko litzatekeela.

Aranburu jaunak esan du 10.000 biztanletik gora, beste balorazio edo analisi bat gomendatzen dela plan energetikoa egokitzeke.

Argiteria publikoan egin zen auditoriaren berri eman du. Bertan, gabezia batzuk diagnostikatu ziren eta argi gehiago edo gutxiago behar zuten udalerriko puntu beltzak ezarri ziren.

Diagnostiko horretatik aurrera, plana lantzen hasi ginen.

Energia-eraginkortasuna etxetara ere eramateko sentsibilizazio-kanpainak jarri dira martxan.



Ordiziako Udala

Ingurumena zaintzen ez badugu, gizartean beste kontu batzuk oso ondo joanagatik ere, ez du ezertarako balioko. Ingurumena babestu beharra dugu.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldekoak: 17 (E.H. BILDU 7, EAJ/PNV 7, Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak 2, (PSOE)PSE-EE(PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

9.- Ordenantza Fiskalen hasierako onarpena.

Proposamena

ORDENANTZA FISKALA

ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGAREN KUOTA ZEHAZTEKO ALDERDIRIK NAGUSIENAK ARAUTZEN DITUENA.

I.- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.

Ordiziako Udalak, uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauko 14.3 artikulua ematen dion aginpideaz baliatuz –hura baita Ondasun Higiezinaren gaineko Zergarena arautzen duena–, hurrengo artikuluan jartzen duen eran zehaztu du zerga horren kuota.

II.- ZERGA-TASAK

2. artikulua.


- 1.- Ondasun higiezin hirialdekoek izango duten zerga-tasa ERANSKINEAN jartzen duena izango da.
- 2.- Ondasun higiezin baserrialdekoek izango duten zerga-tasa ERANSKINEAN jartzen duena izango da.

III.- ZERGA OINARRIA ETA KUOTAK

3. artikulua.

- 1.- Ondasun higiezin hirialdekoen gaineko zergaren oinarria katastroan jartzen duen balioa izango da.
- 2.- Ondasun higiezin baserrialdekoen gaineko zergaren oinarria arauetan jarritako eran onartutako katastroan jartzen duen balioa izango da.
- 3.- Bakoitzaren kuota, berriz, goian esan ditugun zerga oinarriari 2. artikuluan adierazitako tasak aplikatuta ateratzen da.
- 4.- Urtarrilaren 1ean ohiko bizileku ez diren ondasun higiezinaren kuota likidoaren %50eko errekargoa ezarri da. Bizitoki-finka ez ohiko bizileku izango da, urtarrilaren 1ean etxebizitza horretan inor ez badago erroldaturik. Etxebizitzak, etxebizitza erabilerarekin bateragarriak ez diren jardueretarako erabiltzen diren kasuetan, dagokion jarduera-proiektuarekin egiaztatutako beharko da egoera hori.

Alokatuta dauden etxebizitzak, ohiko bizileku izango dira legezko kontratua indarrean badago. 2015eko irailaren 26tik aurrera sinatutako alokairu kontratuak, Eusko Jaurlaritzako Bizilagun Zerbitzuan erregistratuak egon beharko dira, dagokion fiantzarekin.



Ordiziako Udala

GAINKARGUA EZ APLIKATZEKO URTERO AURKEZTU BEHARREKO BETEKIZUNAK ETA AGIRIAK:

- Dagokion ekitaldiko urtarilaren 1ean indarrean dagoen lege-alokairu kontratua.
- Eusko Jaurlaritzako Bizilagun Zerbitzuan izena ematea eta fidantza gordailatu izana.
- Indarrean dagoen ekitaldiko urtarileko alokairuari dagokion diru-sarreraren agiria.
- Eskaera epea: urtarilaren 1etik martxoaren 15era.

%50eko errekarua ez da egingo, zergaren titular den etxebizitzako jabea, bere ohiko etxebizitza izanda, bertan erroldatua ez dagoenean, arrazoia "familia ingurunean zaintzaile" izaera izanik, zaintzen duen mendekotasuna duen pertsonaren etxebizitzan erroldatua dagoenean.

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza hutsen programan, Udalaren alokairu sozialaren programan eta desjabetutako familientzako etxebizitza alokatzen parte hartzen dutenei ez zaie gainkargua aplikatuko.

IV.- HOBARIAK ETA SALBUESPENAK

4. artikulua.

- Higiezinaren hirigintza, eraikuntza eta sustapen enpresen jarduera egiteko higiezinarentzako %50eko hobaria ezarri da, uztailearen 15rko 12/89 Foru Arauaren 15.1. a) artikulua araberakoa.
- Babes Ofizialeko etxebizitzaren jabeak, behin betiko kalifikazio lortzetik lehen 3 urtetan %25eko hobaria ezarri da.
- Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza hutsen programan, Udalaren alokairu sozialaren programan eta desjabetutako familientzako etxebizitza alokatzen parte hartzen dutenei %50eko hobaria ezarri da.
- Eguzki energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak instalatuta eta martxan dituzten etxebizitzetako %25eko hobaria ezarri da. Urtero baieztatu beharko dute martxan daudela. Hobari honetatik kanpo geratzen dira legez behartuta burutu behar izan diren energia berriztagarriak ezartzeko egin diren egokitzapen lanak, (Eraikuntzaren Kode Teknikoa indarrean sartu zenetik).
- %50eko hobaria zergaren kopuru osoan Familia Ugari Orokorrek diren subjektu pasiboen alde, eta %75ekoa, Familia Ugari Bereziei hori horrela dela egiaztatzen dutenean.

Hori emateko ezaugarriak eta ekarri beharreko agiriak:

- Ohiko bizitokia: erroda agiria.
- Etxearen balio katastrala 130.000 eurokoa edo gutxiagokoa. Balio katastrala altuagoa balitz, hobaria kopuru hortarainokoa izango da.
- Ondasun Higiezinaren Zerga agiriaren kopia.
- Foru Aldundiko Gizartekintzak emandako familia ugariaren titulua indarrean.
- Beste Ondasun Higiezinaren jabe ez direla adierazteko Zinpeko adierazpena (garaje bat, trasteleku bat edo jarduera profesionalean aritzeko lokala izan ezik). Heredentziako higiezinetan jabegotza zati-banatuta egotea onartuko da, beste etxebizitza baten baliora iristen ez bada.
- Eskatzailea ordainagiriaren jabe ez balitz: etxearen jabearen zinpeko adierazpena, eskatzaileak ordaindu duela adierazten duena.
- Eskaera epea: urtarilaren 1etik 31ra.
- Ez dute hobaririk izango 60.000 eurotik gorako errenta duten familiek. Gipuzkoako Foru Aldundiaren onartutako 2018ko errenta aitortpenaren kopia aurkeztu beharko da.
- Hobaria etxebizitzaren balioarekiko aplikatuko da soilik, kasuan trastelekuari, garajeari etab. dagokiona deskontatuz.

Hobari hori bat etorriko da Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari aplikatu dakioken beste edozeinekin.

- Ezarritako hobari horiek, lor daitezkeen beste edozein hobari fiskalekin bateragarriak izango dira.


V.- ZERGA KUDEATZEKO ARAUAK

5. artikulua.

1.- Badago bidea zerga gestionatzea, kobratzea, biltzea nahiz ikuskatzea Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku uzteko. Hartarako baldintzak, edukiak eta mugak, ordea, Udaltzako jarriko ditu, eta, nolahi ere, hitzarmena egingo da bi erakundeen artean.

2.- G.A.O.n argitaratuko da Udalak hartzen duen erabakia.

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAABFP28.3TVj>



Ordiziako Udala

VI.- AZKENEKO ERABAKIA

Ordenantza fiskal hau nahiz Eranskinean datozen tasak (ordenantza baitira tasak ere), eranskinean jartzen duen egunean onartu zituen Udalbatzak, eta 2020ko urtarrilaren lehenetik aurrera indarrean izango dira, harik eta aldatzea edo kentzea erabaki arte.

ERANSKINA

- Hiri izaerako Ondasun Higiezin gaineko Zergan erabil daitekeen grabamen tipoa honako hau da:

- Bizitokietarako finkak %0,230
- Industrietarako finkak %0,600

- Baserialdeko Ondasun Higiezin gaineko Zergan erabil daitekeen grabamen tipoa honako hau da:
1,032%

2. ORDENANTZA FISKALA

JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA ORDAINARAZTEKO ESKUMEN BATZUK ARAUTZEN DITUENA.

I.- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.

Uztailaren 5eko 13/1989 Foru Arauko 10. eta 11. artikuluek eta 7/1991 Foru Arauko azkeneko aginduak ematen dion aginpideaz baliatuz –horiek baitira, hurrenez hurren, Ondasun Higiezin gaineko Zergarena eta Zerga Neurri Urjenteak arautzen dituztenak–, ordenantza honetan datozen koefiziente eta indizeak jarri ditu Ordiziako Udalak.

II.- KUOTA GUTXIENEOAK NEURTZEA

2. artikulua.

Foru Aldundiak zerga honentzat jartzen dituen tasa gutxieneoak I. Eranskinean datozen koefizienteak aplikatuz handituko dira.

3. artikulua.

Zerga honena ordaindu behar duten jarduerak egiten diren lokalen edo establezimenduen egoera fisikoa neurtzeko, berriz, 2. Eranskinean adierazitako eskalako indizeak aplikatuko zaizkie, kaleak duen kategoriaren arabera, 2. artikuluan esanda bezala handitutako kuotei.

4. artikulua.

Kuota probintzialei eta bereziei nahiz Errekargu Foralari ez zaie ez 2. artikuluko koefizienterik (handitze koefizientea) ezta 3. artikuluko indizerik (egoera indizea) erantsiko.

5. artikulua.


3. artikuluan esan dugun indizeak aplikatzeko, bestetik, kategoritan banatuko dira herriko kaleak, plazak eta auzoak. Sailkapena 2. Eranskinean dator.

III.- SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

6. artikulua.

Sortu berri diren enpresek, kuotaren %50eko hobaria izango dute 5 urtetan.

Enpresa berriak 4 enplegu edo gehiago sortzen baditu kuotan %75eko hobaria izango du 5 urtetan.



Ordiziako Udala

IV.- ZERGA KUOTA

7. artikulua.

Kuota gutxienekoei 2. eta 3. artikuluen arabera tokatzen zaizkien koefizienteak eta indizeak, nahiz, hala tokatzen bazaie, Errekargu Forala, erantsi eta ateratzen den kuota izango da zerga honen kuota.

V. - ZERGA KUDEATZEKO ARAUAK

8. artikulua.

1.- Badago bidea zerga gestionatzea, kobratzea, biltzea nahiz ikuskatzea Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku uzteko. Hartarako baldintzak, edukiak eta mugak, ordea, Udalbatzak jarriko ditu, eta, nolahi ere, hitzarmena egingo da bi erakundeen artean zerga indarrean sartu baino lehen.

2.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira nola erabakiak hala hitzarmenak, izenpetu eta sei hilabete baino lehen. Eta han argitaratuko dira, orobat, hitzarmenen salaketak.

3.- Artikulu honen lehenbiziko lehenaldian esandakoa goiti-beheiti, Foru Aldundiak izango ditu hor adierazitako eskumenak kuota berezietan eta probintzietan.

VI.- AZKENEKO ERABAKIA

Ordenantza fiskal hau, koefizienteak, indizeak nahiz 1. eta 2. eranskinetan jasotako kategoriak, kale eta abarrenak (ordenantza baitira koefizienteak, indizeak eta kategoriak ere), 2020ko urtarrilaren lehenetik aurrera indarrean izango dira, harik eta arauak agindutakoa errespetatuz aldatzea edo kentzea erabaki arte.

I. ERANSKINA

Kuota gutxienekoei erantsi behar zaien koefiziente bakarra: 2,20

II. ERANSKINA

Establezimenduen egoera fisikoa neurtzeko indizea: 1.

**3. ORDENANTZA FISKALA,
TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINEKO ZERGAREN TASA ZEHAZTEKO ALDERDIRIK
NAGUSIENAK ARAUTZEN DITUENA.**

I.- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.

Ordiziako Udalak, uztailearen 5eko 14/1989 Foru Arauko 4.4 artikulua ematen dion aginpideaz baliatuz –hori baita Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko zergarena arautzen duena–, ERANSKINEAN datorren koefizientea erantsi eta goian esandako artikuluko aurreneko atalean adierazitako kuota gutxienekoak jarri ditu.

II.- ZERGA-TASAK


2. artikulua.

Lehenbiziko artikuluan esandako koefizientea erantsi eta eranskinean datozen tarifen arabera kobratuko da zerga honena.

III.- ZERGA KUDEATZEA

3. artikulua.

1.- Urteko egunen arabera kitatuko da zerga honena. Ordainketa egiteko, dena den, orri bat izango da ofiziala, eta hura emango die Udalak bai partikularrei eta baita espedienteak izapidetzen jarduten duten gestoriei ere.



Ordiziako Udala

2.- Auto-kitapena aurkeztutako unean berean ordaindu behar da zerga.

4. artikulua.

Zorra ordaindutakoan Udalak ematen duen ordainagiri behin-betikoa izango da zerga honena kitatu izana erakusteko balioko duen agiria.

5. artikulua.

1.- Zerga honena ordaindu izana erakusteko agiria eraman ezean Trafiko Zuzendaritza ez da behean datozen espedienteak egiten hasten.

- a) Automobila bidean ibiltzeko moduan dagoela adierazteko egiaztatzea.
- b) Automobilari baja ematea behin-betiko.
- c) Horiek aldatzea, baldin eta zerga honetako sailkapena aldatzen bada.
- d) Automobila eskuz aldatzea.
- e) Ibilgailua ibiltzeko baimenean adierazitako pertsonaren helbidea aldatzea.

2.- Ordaindu beharreko kuotak ordainduta izana erakusteko agiria derrigorrez eraman behar da, orobat, Trafiko Zuzendaritza automobilari matrikula jartzeko espedientea egiten hasiko bada.

IV.- KUOTAK ITZULTZEA.

6. artikulua.

Urtea bukatu baino lehen automobilari behin-betiko baja emanez gero, edo behin-behingo kitapena egitekoan behar baino gehiago ordainduz gero, Udalak itzuli egingo dio aldea zergadunari; baina, behin-betiko baja emateko paperak edota matrikula jartzeko paperak ekarritakoan.

V.- HOBARIAK

7. artikulua

Ibilgailu historikoentzako eta gutxienez 25 urte dituztenentzako %100eko hobaria.

Kotxe edo moto elektrikoak %95eko hobaria jasoko dute, kotxe hibridoek %50eko hobaria eta Gasakin dabilzaten autoei %30eko hobaria.

Salbuetsitak egongo dira mugikortasun murriztua duten pertsonentzako ibilgailuak, abenduaren 23ko 2.822/1998 Errege Dekretuak, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra onartzen duenak, II. eranskinaren A letran aipatuak, pertsona desgaituen izenean matrikulatuta daudenean.


Era berean, salbuetsita daude 14 zaldi fiskaletik beherako ibilgailuak, baldin eta desgaituen izenean matrikulatuta egonik beraiek ez beste inork erabiltzeko badira.

Salbuespen hau zirkunstantzia horiek betetzen diren artean aplikatuko da, pertsona desgaituek gidatutako ibilgailuak izan nahiz horiek garraiatzeko ibilgailuak izan.

Aurreko bi paragrafoetan aipatutako salbuespenak ibilgailu batengatik bakarrik izango zaizkie aplikagarriak horien onuradun diren subjektu pasiboei.

Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako, honako hauek hartuko dira pertsona desgaitutzat:

a') Minusbaliotasun maila 100eko 33koa edo handiagoa eta 100eko 65ekoa baino txikiagoa duten pertsonak, mugikortasun murriztuko egoeran badaude. Mugikortasun murriztua dutela ulertuko da abenduaren 23ko 1.971/1999 Errege Dekretuak, minusbaliotasun maila aitortu, ezarri eta kalifikatzeko prozedurari buruzkoak, 3.eranskinean



Ordiziako Udala

jasotzen duen baremoaren A, B edo C letretako egoeretan sartuta daudenean edo baremo horren D, E, F, G edo H letretan 7 puntu edo gehiago eman zaizkienean.

b') Minusbaliotasun maila 100eko 65ekoa edo handiagoa duten pertsonak.

Aurreko a) eta b') letretan aipatutako pertsonak mugikortasun murriztuko A egoeran badaude 1.971/1999 Errege Dekretuak 3.eranskinean jasotzen duen baremoaren arabera, 14 zaldi fiskaleko muga ez zaie aplikatuko, baldin eta ibilgailua gurpil aulkia eramateko egokituta badago.

Salbuesita daude, baita ere, guraso-ahal, tutoretza edo kuradoretza dela-eta ardurapean minusbaliotasun maila 100eko 65ekoa edo handiagoa duen pertsona bat duten pertsonen jabetzako ibilgailuak. Ibilgailu bat baino gehiago badute jabetzan, ibilgailu bakarrak izango du salbuespena.


Desgaitasuna izateagatik salbuespenaren gozamina eskaera egin eta hurrengo urtetik aurrera hasiko da, kontuan hartuta sortzapena urtarilaren 1ean gertatzen dela.

VI.- AZKENEKO ERABAKIA.

Ordenantza fiskal hau eta bere eranskina 2020ko urtarilaren lehenetik aurrera indarrean izango dira, harik eta arauk agindutakoa errespetatuz aldatzea edo kentzea erabaki arte.

ERANSKINA TARIFA

Potentzia eta ibilgailu mota	Gutxi gora-beherako koefizientea	Kuota
A) TURISMOAK:		
9 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	1,60	29,48
9 zaldi fiskaletik 11,99ra bitartekoak	2,23	81,80
12 zaldi fiskaletik 13,99ra bitartekoak	2,46	150,66
14 zaldi fiskaletik 15,99ra bitartekoa	2,41	206,30
16 zaldi fiskaletik 19,99ra bitartekoa	2,51	277,04
20 zaldi fiskal eta gehiagokoak	2,79	376,79
B) AUTOBUSAK / AUTOBUSES::		
21 toki baino gutxiagokoak	2,42	200,97
21etik 50era bitartekoak	2,42	286,22
50 baino gehiagokoak	2,42	357,79
C) KAMIOIAK:		
1000kg. baino gutxiagoko zama eramateko modukoak.	2,42	102,01
1.000tik 2.999 kg.ra bitartekoak	2,42	200,97
2.999 baino gehiagotik 9.999 kg.ra bitartekoak.....	2,42	286,22
9.999 kg. baino gehiagokoak	2,42	357,79
D) TRAKTOREAK / TRACTORES:		
16 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	2,32	40,96
16 zaldi fiskaletik 25era bitartekoak	2,32	64,40
25 zaldi fiskal baino gehiagokoak	2,32	193,16
E) ATOIAK ETA ERDIATOIAK, TRAKZIO MEKANIKOZKO IBILGAILUEK GARRAIATUAK/		
750 tik 1.000 kg.ra baino gutxiagoko zama eramateko modukoak.....	2,42	42,63
1.000 baino gehiagotik 2.999 kg.ra bitartekoak.....	2,42	67,01
2.999 kg. baino gehiagokoak	2,42	200,97
F) BESTE ERA BATEKO IBILGAILUAK		
Ziklomotoreak	2,42	10,89
Motoak, 125 c.c. bitartekoak	2,42	10,89
125 c.c. baino gehiagotik 250era bitartekoak	2,44	18,81
250 c.c. baino gehiagotik 500era bitartekoak	2,51	38,72
500 c.c. baino gehiagotik 1.000ra bitartekoak ...	2,60	80,30
1.000 c.c. baino gehiagokoak	2,71	167,09



**4. ORDENANTZA FISKALA,
ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA.**

I.- XEDAPEN OROKORRAK.

1. artikulua.

Ordiziako Udalak, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzeko Foru Arauari nahiz zerga honi buruzko Foru Arauari jarraiki, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zerga jarri eta eskatuko du, ordenantza honetan eta eranskinean datorren eran. Eranskina ere ordenantza da, eta han datoz tarifak.

2. artikulua.

Udalerrri guztian balio du ordenantza honek.

II.- ZERGA-GAIA.

3. artikulua.

Ordiziako Udalak emandako lizentzia izan beharreko eraikuntza, instalazio edo obraren bat eginez gero kobratuko da zerga hau. Berdin dio lizentzia eskuratuta izatea edo ez izatea.

4. artikulua.

Hona hemen, zerga-gaiak adierazte aldera, zerga izango duten ekintzak:

1. Oina altxatzea dakarren eraikin edo instalazioen bat eraikitzeo obrak egitea.
2. Lehen eginda dauden eraikin edo instalazioak handitzeko obrak egitea.
3. Lehen eginda dauden eraikin edo instalazioak konpontzeko edo eraberritzeko obrak egitea, eraikin edo instalazioaren egiturari erasanez gero obrak.
4. Lehen eginda dauden eraikin edo instalazioen kanpoko itxura aldatzeko obrak egitea.
5. Eraikinen barruetako antolaketa aldatzea, erabiltzen denerako erabiltzen dela ere eraikina.
6. Lurzoruaren Legeko testu bateratuak 58. artikuluko 2. atalean adierazten dituen behin-behingo obrak egitea.
7. Zerbitzu publikoak jartzeko obrak egitea.
8. Lur mugimenduak (esate baterako, mendi kentzeak, zelaitzeak, indusketak eta betelanak), baldin eta urbanizazio edo eraikuntza proiektu onartu edo baimenduan sartuta eta programatuta ez badaude behintzat.
9. Eraikinak botatzea, baldin eta ruina jo eta erortzeko zorian ez badaude behintzat.
10. Lur azpiko instalazioak, bai aparkalekuak jartzeko, bai jarduera industrialak, bai merkataritzakoak edo profesionalak, bai zerbitzu publikoak bai beste edozein erabilera ematen zaiola ere.
11. Bide publikotik ikusteko moduko iragarpen afixak jartzea.
12. Beste edozein obra, eraikuntza edo instalazio egitea, baldin eta halako ahalmen ekonomiko bat eta udalaren lizentzia (dela obretakoa, dela eraikitzeakoa) behar baldin badira egiteko.

5. artikulua.


Ez dago eraikuntza, obra edo instalazioen gaineko zergarik ordaindu beharrik lanak Ordiziako Udalaren ondasunetan egin eta obraren jabea ere Udala bera izanez gero.

Era berean, ez dago obra edo instalazioen gaineko zergarik ordaindu beharrik obraren, eraikuntzaren edo instalazioaren jabea Estatua, Automi Erkidegoa, Lurralde Historikoa edo Toki Erakundea izan eta bideak, trenbideak, portuak, aireportuak, obra hidraulikoak, herrietako eta haietako ur zikinen saneamendua egiteko badira, baita horien gestioa erakunde autonomoren batek egiten badu ere, eta berdin dio obrak inbertsio berriak egiteko edo egindakoei kontu egiteko badira ere.

III.- SUBJEKTU PASIBOAK

6. artikulua.

1. Zerga honen subjektu pasiboak, zergadun gisa, Lurralde Historikoko Foru Arau Nagusiko 35. artikulua adierazten ditun pertsona fisiko edo juridikoak dira, obrak, eraikuntzak edo instalazioak egiten diren ondasunen jabe direnak eta, betiere, obraren jabe ere baldin badira; bestela, obraren jabe dena izango da zergadun.



Ordiziako Udala

2. Udaleko zerga-biltegiaren aurrean frogatzeko moduan erakutsi ezean obraren jabea eta ondasunaren jabea bi direla, ondasunaren jabea eta obraren jabea bat bera dela joko da.

7. artikulua.

1. Zergadunaren ordeko subjektu pasibo izango da lizentzia eskatu nahiz obra, eraikuntza edo instalazioa egiten duena, baldin eta zergaduna bera ez bada lizentzia eskatzen duena edo obra egiten duena.

2. Edozein moduz ere, Udalak badauka aginpidea zergadunaren izena eta helbidea ekarrarazteko zergadunaren ordekoari.

IV. SALBUESPENAK, MURRIZKETAK ETA HOBARIAK

8. artikulua.

1.- Interes berezi edo udal erabilerarako interesgarritzat jotzen diren eraikin, instalazio eta obrei zergaren kuotan %95eko hobaria emango zaie, beti ere izendapen hori arrazoitzeko behar adina ezaugarri sozial, kultural, historiko-artistiko eta enplegu-sustapenekoak baleude.

2.- Denda berrientzako hobaria ezartzen da jarraian zehazten den moduan:

2.1. Lehendik existitzen ez ziren sektoreetakoak irekitzea: %95

2.2. Lehendik existitzen diren sektoreetan irekitzea: %75

2.3. Lokalak modernizatzea: 50%. Azpiegiturako elementuei eragiten dienean %50 baino gehiago eta goi mailako teknikari baten proiektua beharrezkoa denean, %75eko hobaria aplikatuko da.

3.- Zergaren kuotan %75eko hobaria ezarri, autokontsumorako eguzki-energia berogailu edo argiteriarako sistemak jartzeko kostuaren zatiari dagokionean, beti ere instalazio hori norberak bere borondatez jartzen duenean eta indarrean dagoen araudiak eskatzen ez badu.

4.- 100eko 90era bitarteko hobaria, eraikuntza, instalazio edo obrek pertsona ezinduen irisgarritasun eta habitagarritasun baldintzak errazten dituztenean.

V.- ZERGA OINARRIA

9. artikulua.

1. Zerga honen oinarria eraikuntza, instalazio edo obra egitea egiazki kostatzen dena da, eta subjektu pasiboak edo haren ordekoak jasan beharrekoa.

2. Egiazki zer kostatzen den ikusteko balioko duena interesatuak aurkeztutako aurrekontua izango da, exekuzio materialaren aurrekontua, baldin eta dagokion elkargo ofizialak ikus-onetsia bada behintzat.

3. Lehen esandakoa bezalako aurrekonturik ez bada, edota lizentziarik eskuratu gabeko eraikuntza, instalazio edo obraren bat bada, Udaleko teknikariek erabakiko dute, proiektua zertsu kostatuko den begiratura, zergaren oinarria zenbatekoa izango den.

VI.- ZERGAREN KUOTA

10. artikulua.

Zerga honen kuota oinarriari tasa aplikatuz ateratzen dena izango da. Tasa, besteik, Eranskinean adierazitakoa izango da.

VII.- SORTZAPENA


11. artikulua.

Zerga ordaindu beharra eraikuntza, instalazioa edo obra egiten hasitakoan bertan jaiotzen da, baita lizentziarik eskuratu ez bada ere.

VIII.- KUDEAKETA

12. artikulua.

Lizentzia emandakoan kitapen behin-behingo bat egingo da, interesatuak ekarritako aurrekontua zergaren oinarritzat hartuta, betiere dagokion elkargo ofizialak ikus-onetsia izanez gero aurrekontua; bestela, Udaleko teknikariek erabakiko dute oinarria, proiektua zertsu kostatuko den begiratura.



Ordiziako Udala

13. artikulua.

Lizentzia eman eta gero hasierako proiektua aldatuz gero, beste aurrekontu bat aurkeztu behar da, hasierako aurrekontutik pasatzen den kopuruaren behin-behingo kitapena egiteko.

14. artikulua.

1. Egiazki egindako eraikuntzak, instalazioak eta obrak nahiz haien zer kostatu diren ikusi ondoren, Udalak, dagokion ikuskapen administratiboa eginez, aldatu egingo du, hala tokatzen bada, zergaren oinarria, eta behin-betiko kitapena egin eta ordaintzeko eskatu edo dagokion dirua itzuli egingo dio subjektu pasiboari.

2. Goiko lerroaldian adierazitakoa bideratzeko, berriz, obra bukatu izana edota behin-behingo hartu izana adierazten duen agiria aurkeztu behar da obra bukatu edo behin-behingo hartu eta hilabete baino lehen. Adierazpen hori egiteko orria Udalak berak emango du, eta, horrekin batera, lanen zuzendaritza eraman duenaren ziurtagiria ekarri behar da Udalera, haren elkargo ofizialak ikus-onetsia (ahal izanez gero), obra guztiak egitea zer kostatu den jartzen duena.

3. Baiztatzeko egindako lanak eta aurkeztutako likidazioa bat datorrela, Udalak eskatuko ditu egindako lan horien fakturak.

15. artikulua.

Zerga kitatze konturako berdin izango dira administrazioaren isilbidez emandako lizentziak eta berariaz adierazita emandakoak.

16. artikulua.

Ordenantza honetan araututako zerga honen kitapenari, biltzeari eta ikuskatzeari buruzko guztiari nahiz zerga-arauak hausteari eta tokatzen diren zigorrak jartzeari Zerga Foru Arau Orokorra aplikatuko zaio.

17. artikulua.

Lizentziaren titularrak obrak, eraikuntzak edo instalazioak egiteari utzi egingo balio, nahiz eta egiteko baimena izan, eta uzteko nahia idatziz adieraziko balio Udalari, Udalak itzuli edo baliorik gabe utziko du behin-behingo kitapena.

18. artikulua.

Lizentziaren balioa galduz gero, Udalak itzuli edo baliorik gabe utziko du egindako kitapena, baldin eta titularrak balioa berritzeko eskatu eta Udalak onartzen ez badu behintzat.


IX.- AZKENEKO ERABAKIA

Ordenantza hau eta ordenantza honen eranskina, 2020 urtarrilaren 1ean sartuko dira indarrean eta hala segiko dute harik eta aldatzea edo indarrik gabe uztea erabaki arte.

ERANSKINA

TARIFA

Eraikuntza, instalazio edo obra mota	(% Tipoa)
-Obraren jakinaren gainekoa (gremioen aurrekontua/gutxieneko prezioak)	3,00
-Obra txikiak (gremioen aurrekontuak/gutxieneko prezioak)	4,00
-Obra handiak (exekuzio materialaren aurrekontua)	5,00
-Babespeko etxeak birgaitzea eta merkataritza lokalak modernizatzea.	3,00
-Nekazaritza nahiz abeltzaintza ustiategiak, beren produktuak saltzeko lokalak barne.	3,00
-Babes ofizialeko etxeak eraikitzea alokairurako	3,00
-Babes ofizialeko etxeak saltzeko eraikitzea	5,00



Ordiziako Udala

5. ORDENANTZA FISKALA, HIRI-LURREK IRABAZITAKO BALIOAREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA.

I.- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.

Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzeko Foru Arauaren arabera eta zergaren gaineko 16/1989 Foru Arauaren arabera, hiri izaerako Lurren Balioaren gaineko Zerga ezarri eta eskatzen du Udalak.

II.- XEDAPEN OSAGARRIAK

2.artikulua.- Hobariak

Kuotaren %75 "mortis causa" hobaria jartzea ohiko etxeari gero seme-alabei, seme-alaba ordekoiei, senar-emazteei, gurasoei edo guraso ordekoiei.

Hobaria izateko, dena den, aurrena Udalak onartu behar du hobaria izateko eskubidea izatea.

3.artikulua.- Kudeaketa

3.1.- Zergagatiko dagokion aitortpena ekarri beharko dute subjektu pasiboek Udal Administrazioaren aurrera, bertan emango dien eredu ofizialaren arabera; bertan azalduko dira zerga-harremanaaren elementu guztiak azalduko dira, baita kuota zehazteko beharrezko diren gainerako datuak ere, kuota hori aitortpena aurkezteko egintza berean ordaindu beharko da.

3.2.1.- Aitortpenarekin batera inposaketa sortzen duten egintza edo kontratuak azalduko dituen behar bezala kautotutako agiria ekarri beharko da eta hori, desenkusaezina izango da.

3.2.2.- Eskatuko diren salbuespen edo hobariak ere agiriz arrazoitu beharko dira.

3.3.- Zergaren likidazioa egiteko beharrezkotzat jotako beste agiri batzuk eska dakieke hogeita hamar eguneko epean Udal Administrazioak interesatuei, eta interesatuak hala eskatuz gero, beste hamabost egunetz luza daiteke epe hori. Epe horietan eskatutakoak gauzatzen ez dituztenek dagozkion legehauste eta zerga-isunak hautsiko dituzte, agiri horiek aitortpena egiaztatze beharrezkoak direnean behintzat. Agiri horiek interesatuak alegatutako egoerak bere buruaren alde egiaztatze baliabide badira bakar bakarrik, errekerimendua ez betetzeak likidazioa erabakiko du, alegatutako eta ez arrazoitutako egoerei batere jaramonik egin gabe.

3.4.1.- Udal Administrazioak aitortpenean sartu gabeko zergapeko egitateak egin direla jakin izan badu, 13 artikuluan aipatutako epeen barruan aitortpen hori gauza dezaten eskatuko die interesatuei, hautsi lezaketen zergaren arau-hausteen kalterik gabe, eta, hala balegokio, dagozkion isunen kalterik gabe.

3.4.2.- Aurrez ikusitako errekerimenduak Udal Administrazioak egin eta gero, interesatuek dagokion aitortpena aurkeztuko ez balukete, ofiziozko espedienteari ekingo litzaioke, bere esku izandako datuekin, eta dagokion likidazioari ekingo litzaioke; eta, hala balegokio, komeni diren errekurtsuak jartzeko epeak azalduko lirateke, hautsirako zerga-arauen eta dagozkion isunen kalterik gabe.

III. AZKEN XEDAPENA.

Ordenantza hau eta Eranskina 2020ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean, eta aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte jarraituko du indarrean.


ERANSKINA

PORTZENTAJEEN LAUKIA

ALDIA/ PERIODO	URTEKO PORTZENTAJEA
a) 1etik 5 urtera.	3,36
b) 10 urte arte	2,85
c) 15 urte arte.	2,75
d) 20 urte arte.	2,75

TARIFA.

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/r/0/76/AAAABFP28.3TVj>



Ordiziako Udala

KARGA-TIPOA : %7,54

6. ORDENANTZA FISKALA ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA EKINTZA ADMINISTRATIBOAK EGITEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUENA.

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.-

Entitate lokal honek, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauari jarraiki, Eranskinean zehazten diren tasak ezarri eta exijitzen ditu zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatik. Ordenantza honetan adierazten diren arauen arabera ezarri eta exijitzen dira tasa horiek, eta haren barruan geratzen dira jasota.

2. artikulua.-

Ordenantza hau entitate lokalaren lurralde eremu osoan aplikatuko da.

II. ZERGAGAIA

3. artikulua.-

Administrazio Lokalaren aldetik zerbitzu bat eskaintzeak edo jarduera bat burutzeak eratzten du zergagaia, dela eskatua izan delako, dela partikularren egintza edo hutsegiteen ondorioz zeharka probokatu delako.

III. SUBJEKTU PASIBOA

4. artikulua.-

1.- Honako hauek izango dira, zergadun bezala, subjektu pasiboak: pertsona fisikoak zein juridikoak, eta Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak 33. artikuluan aipatzen dituen entitateak, zerbitzu edo jarduerak eskatzen dituztenean edo haien onura edo eragina jasotzen dutenean.

2.- Zergadunaren ordezkotzat hartuko dira:

a) Etxebizitza edo lokalen okupatzaileei onura edo eragina dakarkieten zerbitzu edo jarduerengatik ezarritako tasetan: higiezin horien jabeak. Horiek, hala dagokienean, onuradun desberdinei jasanarazi ahal izango dizkiete kuotak.

b) Suhiltzaile zerbitzuengatik, aurrien prebentzioagatik, eraikuntza eta eraipen zerbitzuengatik, salbamendukoengatik eta, oro har, pertsona eta ondasunak babesteko zerbitzuengatik ezarritako tasetan, zerbitzuaren mantenimendua barne, arriskuaren entitate edo sozietate aseguratzaileak.


c) Lurzoruari eta hiri antolaketari buruzko araudian jasotako hirigintza lizentziak emateagatik ezarritako tasetan: obren eraikitzaileak edo kontratistak.

5. artikulua.-

Tasak ordaintzera behartuta daude:

a) partikularren eskariz egindako zerbitzu edo jardueren kasuan, eskaera egin dutenak.

b) partikularrek eskatu ez baina, horien egintza edo hutsegiteengatik, derrigorrezkoak gertatu diren zerbitzu edo jardueren kasuan, egintza edo hutsegite horiek leporagarri dituztenak.



Ordiziako Udala

6. artikulua.-

Ordenantza honetatik eratorzen diren zerga zorretan, subjektu pasiboarekin batera, tarifak aplikatzeko arauetan aipatzen diren pertsonak ere erantzungo dute.

IV. OINARRI EZARGARRIA

7. artikulua.-

Oinarri ezargarría zerbitzua gauzatzen den unitate bakoitzak eraten du, Eranskinean jasotakoaren arabera.

V. KUOTA

8. artikulua-

1.- Zerga kuota tarifa bat, espreski erabakitako kopuru finko bat edo, bestela, bi prozedurak batera erabiliz finkatuko da, Eranskinean ezarritakoaren arabera.

VI. SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

9. artikulua-

1.- Zerbitzua edo jarduera egiten denean sortzen da tasa.

VII. LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

10. artikulua.-

Administrazio Lokalak kontzeptu bakoitzaren likidazioa egingo du, eta likidaturiko kopurua eskudirutan ordainduko da Eranskinak exakzio bakoitzerako ezartzen dituen arau partikularrei jarraituz.

VIII. TASEN KUDEAKETA

11. artikulua.-

Ordenantza honetan arautzen diren tasak likidatu, bildu eta ikuskatzeari dagokion guztian, eta, halaber, zerga urrapenak kalifikatu eta kasu bakoitzean dagozkien zigorrak ezartzerakoan, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrean jasotakoa aplikatuko da.

IX. AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau, eta bere Eranskina, 2020ko urtarilaren 1ean jarriko da indarrean, eta aldatu edo indargabetzea erabakitzen ez den artean jarraituko du indarrean.

AUTO-TAXIEN HERRI BARRUKO 2020RAKO TARIFAK (AGITAX, GIPUZKOAKO TAXISTEN ELKARTEA)

2020KO HERRI BARRUKO TARIFAK €tan

KONTZEPTUA	ABIASARIA	EGINDAKO KILOMETROAK	ITXARON ORDUA
TARIFA 1*	3,6237	1,1344	21,6681
TARIFA 2**	3,6237	1,8093	34,0552

* Lanegunetan, 07:00etatik 22:00ak arte

** Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00etatik 7:00ak arte. Bai igande eta araudi autonomika eta lokaleko erabakitako jaiegunetan 07:00tik 22:00 arte bai larunbatetan, eta abenduaren 24 eta abenduaren 31 egunetan.


AUTOTAXI ETA ALOKAIRUKO GAINERAKO IBILGALUEN BAIMEN ADMINISTRATIBOKO LIZENTZIAK EMATEA/

Euro

A) Lizentzia ematea, igortzea eta erregistratzea. Lizentzia bakoitzeko 1.- A motakoak	105,06
---	--------

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/r/0/76/AAAABFP28.3TVj>

26



Ordiziako Udala

2.- B motakoak	129,05
3.- C motakoak	131,82
B) Ibilgailuak ordezkatzeari	
1.- A motakoak	25,69
2.- B motakoak	32,19
3.- C motakoak	38,81
C) Lizenzia eskualdatzea	
1.- Lizenzia eskualdatze bakoitzagatik	2625,20
2.- Lizenzien eskualdaketa (mortis causa, 1. graduko senitartekoei)	104,77

Tarifa aplikatzeko arauak

- 1.- Tasa honena ordaindu beharra lizenzia emateko unean berean esijitu daiteke.
- 2.- Automobil arinen bidezko Garraio Zerbitzu Hirikoa, nahiz Hiriartekoa arautzeko Araudi nazionalen izen bera dutenak dira A, B eta C motakoak.

LURZORUARI BURUZKO LEGEAREN 178. ARTIKULUA ESKATZEN DITUEN LIZENTZIAK EMATEA ETA HIRIGINTZA ESPEDIENTEAK IZAPIDETZEA


Hirigintzako baimenak	Euroak. 2019
OBRA-BAIMENAK	
OBRA TXIKIAK	
3.000,00 € bitarteko aurrekontua	25,34
3.000,01 – 6.000,00 € bitarteko aurrekontua	44,5
6.000,01 – 18.000,00 € bitarteko aurrekontua	102,94
18.000,01 – 30.000,00 € bitarteko aurrekontua	196,27
30.000,01 – 60.000,00 € bitarteko aurrekontua	247,33
60.000,01 – 120.000,00 € bitarteko aurrekontua	494,66
120.000,01 € gainditzen duten aurrekontuentzat obra handien tasak aplikatuko dira	

GUTXIENKO AURREKONTUAK

Obra txikietan aurkezten diren aurrekontuak jarraian doan taulako gutxieneko kostu estimatuen azpitik daudenean, aurrekontu horiek xehatuak izan beharko dute. Obra baimena emateko udal teknikariek ontzat eman beharko dituzte, eta lanak amaitu ondoren dagozkion fakturak aurkeztu beharko dira, eta udal teknikariek ikuskapena burutuko dute egindako lanak aurkeztutako aurrekontuarekin bat datozela ziurtatzeko. Baldintza horiek bete ezean taula honetako gutxieneko kostuetatik eratoritzen dena hartuko da oinarri ezgarri bezala.

Sukaldearen eraberritze integrala	6.000,00
Bainugelaren eraberritze integrala	5.000,00
Bigarren bainugelaren eraberritze integrala	3.000,00
Galdara eta berogailu instalazioa	4.000,00
Kanpo aroztegia osoa	6.000,00

Etxebizitzen eraberritze integralaren aurrekontu minimoak 500 €/m²-ko gutxieneko kostua gainditu beharko du, katastroan azaltzen den azalera erabilita.



Ordiziako Udala

OBRA HANDIAK


ERAIKUNTZA BERRIEN OBRA BAIMENAK	
120.000,00 € bitarteko aurrekontua	1.008,73
120.000,01 – 600.000,00 € bitarteko aurrekontua	2.017,46
600.000,01 – 2.000.000,00 € bitarteko aurrekontua	3.026,19
2.000.000,01€ gainditzen duen aurrekontua	7.407,30
OBRA BAIMENAK	
3.000,00 € bitarteko aurrekontua	81,29
3.000,01 – 6.000,00 € bitarteko aurrekontua	119,45
6.000,01 – 60.000,00 € bitarteko aurrekontua	356,85
60.000,01 – 120.000,00 € bitarteko aurrekontua	535,28
120.000,01 – 600.000,00 € bitarteko aurrekontua	2.017,46
600.000,01 – 2.000.000,00 € bitarteko aurrekontua	3.026,19
2.000.000,01€ gainditzen duen aurrekontua	7.407,30
LEHEN ERABILERA KO BAIMENAK	
Eraikin eta oro har instalazioen lehen erabilera ko baimenak ehunekotan, eraikuntza, instalazio eta obren zergan lortutako baimenaren zenbatekoaren gainean	15

HIRIGINTZAKO ESPEDIENTE TRAMITAZIOA

Hirigintza gestioko dokumentu bakoitzeko: Exekuzio unitateen mugaketa Urbanizazio proiektuak Birpartzelatze proiektuak Gainerako antzekoak	2.745,00
Plan partziala	2.191,18
Plan berezia	2.191,18
Xehetasun azterlana	1.952,12
Hirigintza partzelazioak	356,85
Kontsultak eta hirigintza zedulak	142,55

LIZENTZIA BEHAR DUTEN JARDUERA SAILKATUAK

	Jarduera sailkatuen baimenak (3/98 legeko II.A eranskina)	Euroak. 2019
4,5,6, 13,14	Industriak, tailerrak eta biltegiak	
	100,00 m2 arte	1.585,60
	100,01m2 eta 500,00m2 artean	1.852,20
	500,01m2 eta 1.000,00m2 artean	2.117,60
	1.000,01m2 eta 2.000,00m2 artean	2.468,80
	2.000,01m2 eta 2.500,00m2 artean	2.766,40
	2.500,01m2tik gora	3.333,60
8	Gasolindegia	791,35



Ordiziako Udala

15	Diskoteka, dantzaleku eta antzeokoak	3.120,00
15	Pub eta 3. taldeko tabernak	1.728,00
16	Osteleritza, jatetxeak	2.135,90
16	Jolas aretoak	8.017,00
17,18	Nekazaritza ustiapenak	190,30
9,19	Instalazio osagarriak	207,50
	Jarduera aldaketa edo zabalkuntzarik gabeko titulartasun aldaketan, tarifaren erdia likidatuko da.	


AURRETIAZKO KOMUNIKAZIOA DUTEN JARDUERA SAILKATUAK		
	Jarduera sailkatuen baimenak (3/98 legeko II.B eranskina)	Euroak. 2019
2	Industriak, tailerrak eta biltegiak	
	100,00 m2 arte	791,35
	100,01m2 eta 300,00m2 artean	917,97
	300,01m2 eta 500,00m2 artean	1.046,48
	500,01m2 eta 1.000,00m2 artean	1.192,99
	1.000,01m2 eta 2.000,00m2 artean	1.360,01
	2.000,01m2 eta 2.500,00m2 artean	1.550,41
	2.500,01m2tik gora	1.767,47
3	dendak	414,95
5	garajeak	414,95
6,7,13	Zerbitzuak	594,80
8	jatetxeak, elkarte gastronomikoak	1.848,00
8	2 taldeko taberna eta kafetegiak	1.585,60
8	kafetegiak, degustazioa, izozkiak etab. (alkohol salmentarik gabe)	1.175,20
8	gainerakoak	1.175,20
9	abeltzaintza-ustiategi txikiak	190,30
10,11,12	Instalazio osagarriak	207,05
	Jarduera aldaketa edo zabalkuntzarik gabeko titulartasun aldaketan, tarifaren erdia likidatuko da.	
EXEKUZIO AGINDUAK		
	Obra txikiak	284,71
	Obra handiak	
	12.000,00 euro arteko aurrekontua	591,40
	12.000,01 euro baino aurrekontua handiagoa	1.774,19

Tarifa aplikatzeko arauak. / Normas de aplicación de la tarifa

1.- Tasa honena ordaindu beharra lizentzia emateko unean berean edota lizentzia ordaintzea dagokionak eraginda Udalak hirigintza espedienteak, nahiz jarduketak onartzen dituen unean esijitu daiteke. /

UDAL HILERRIKO ZERBITZUAK

<i>Kontzeptua</i>	Euro	
	<i>Laneguna</i>	<i>Jaieguna</i>
1.- Hilobiratzeko lana	453,97	540,44




Ordiziako Udala

2- Panteoian hilobiratzeko lana	345,87	432,36
3.- Kolunbarioetan hobiratzea (10 urterako)	225,51	
4.- Errautsen lurperatzea	276,48	
5.- Errautsen lorperatzea (panteoia albotik irekitzen dena)	212,68	
6.- -Borondatez hobitik ateratzea* (panteoia eta hilobia)	336,17	
7.- Horma hezurtegia	144,12	
8.- Panteoia egiteko terrenoa ematea (50 urte)		4544,01
9.- Gorpuzkin kutxak		28,39
10.- Izena aldatzeko tramitazioa		62,36
11.- Hilerria mantentzeko (hilobia/urteko)		17,81
12.- Hilerri mantentzeko (panteoi/urteko)		35,63
13.- Ehorketak eta desehorzketak hilobietan		86,44

- * Eskaera interesatuak egiten duenean, borondatezkoa dela ulertuko da.
- Aurreikusitako lan bat egiten denean, horren kostua onuradunari kenduko zaio.
- Kolunbariotik ateratzea ez da kobratuko.
- Gorpua hobitik ateratzea ofizioz, ez da kobratzen.

HONDAKINEN TASA / TASA DE RESIDUOS

	Euro / urteko:
Etxebizitza edo lokal hutsa	108,78
Etxebizitza betea	135,96
Komertzio eta zerbitzu orokorrak, 300,00m ² arte	293,28
Komertzio eta zerbitzu orokorrak, 300,01m ² edo gehiago	481,77
Hondakin organikoak sortzen duten elikadura dendak eta okindegi-gozotegiak	400,10
Arraindegiak	135,96
Supermerkatuak, jakien biltegiak eta antzekoak, salmenta-gunearen azalera 200,00m ² arte	908,97
Supermerkatuak, jakien biltegiak eta antzekoak, salmenta-gunearen azalera 200,01 m ² edo gehiago eta 400,00m ² arte dituenen	1.817,94
Supermerkatuak, jakien biltegiak eta antzekoak, salmenta-gunearen azalera 400,01 m ² edo gehiago dituenen /	3.635,88
Hipermerkatuak	10.907,63
Jatetxeak, erretegiak, sagardotegiak, antzekoak	815,79
Tabernak sukaldearekin	628,90
Tabernak, kafetegiak, kantinek eta antzekoak (sukalderik gabe)	419,27
Kultura eta kirol elkarte gastronomikoak / <i>Sociedades culturales y deportivas</i>	654,51
Bulegoak, despatxu profesionalak, irakaskuntza akademiak, eta antzekoak 150,00m ² arte	199,16
Bulegoak 150,01m ² edo gehiago	398,33
Banketxe, aurrezki kutxa etab.	418,24
Hotel, pentsio, nekazal turismo eta antzekoak 10 logela arte	475,88
Hotel, pentsio, nekazal turismo eta antzekoak 11-20 logela artekoak	693,42
Hotel, pentsio, nekazal turismo eta antzekoak 20 logelatik gora	992,54
Osasun zentroak 5 kontsulta bitartekoak / <i>Centros de salud hasta 5 consultas</i>	271,93
Osasun zentroak 5-10 kontsulta bitartekoak / <i>Centros de salud entre 5-10 consultas</i>	543,86
Osasun zentroak 10 kontsultatik gorakoak	1.087,72



Ordiziako Udala

Zaharren egoitza	3.500,00
Haur eskolak eta eguneko zentruak	271,93
Industria tailerrak 300,00m ² arte	363,10
Industria tailerrak, 300,01-600,00m ² artean	458,83
Industria tailerrak 600,01 m ² eta 2.500,00 m ² artean	779,00
Industria tailerrak 2.500,01 m ² -5.000,00m ² artean	1.811,83
Industria tailerrak 5.000,01m ² tik gora	4.745,73
Hondakin organikoa sortzen duten industriak 600,00 m ² arte	688,25
Hondakin organikoa sortzen duten industriak 600,01m ² eta 2.000,00m ² artean	1.363,25
Hondakin organikoa sortzen duten industriak 2.000,01m ² edo gehiago	4.582,00
Ikastetxeak jangelarekin	815,79
Lanbide eskola jangelarekin	902,16
Unibertsitatea jangelarekin	902,16
Ikerketa zentruak	779,00
Enpresa inkubategiak	779,00

Tarifa aplikatzeko irizpideak

-Kuota urtekoa eta zatiezina izango da, etxebizitzaren kasuan. Gainerako kasuetan, urtean zehar izan diren jabeen artean hilabeteka proportzionalki banatu.

-Etxebizitza bat okupatutzat hartzen da, biztanleen erroldan hala agertzen bada, biztanleen erroldak, bizilagunaren betebeharrak ez betetzeagatik, beste bitarteko batzuek ezagutzen ez duten etxebizitza edo lokalaren okupazio-egoerarik jasotzen ez duenean izan ezik.

-Etxebizitzaren jabeak edo erabiltzaileak ekainaren 30a baino lehen aldatuz gero, urte horretako erroldan sartuko dira, eta haiei kitatuko zaie tasa. Egun horretatik aurrera egindako aldaketak hurrengo urteko erroldan sartu eta handik aurrera hartuko dira kontuan

-Hutsik dauden lokal komertzialek eta etxebizitza hutsek igotal hartuko dira

-Enpresa, establezimendu eta industria txikiarentzat, eta bakarrik Sasietako Mankomunitateak jasotzen ez duen zabor mota kontuan izanik, honi dagokion Garbiguneko faktura deskontatu ahalko da beti ere kontuan izanik gutxieneko zabor-tasa dagokionaren %50a izango dela.


- Garajeek 0,00 euro

- Trasteroek 0,00 euro

- Udalak badauka bidea etxe batean bizi diren bizilagun guztiei batera kitatzeko zerbitzu honen tasa.

- Autokonpostajea egiten dutenek zaborren tasen %70eko ordainduko dute, baina edukiontzi organikoa hilabetean behin baino gehiagotan zabalzen bada txartelarekin ez da hobaria.

MATERIALAK ALOKATZEA	
JAIETAKO MATERIALA ERRENTAN EMATEKO	Euroak
Hesi metalikoak	5,07€ uni./astea (<i>semana</i>)
Egurrezko Hesiak	4,53€ uni./astea (<i>semana</i>)
PVC-ko mahaiak	8,06€ uni./eguneko (<i>día</i>)
Azokako mahaiak	5,04€ uni./eguneko (<i>día</i>)
Aulkiak	0,83€ uni./eguneko (<i>día</i>)
Azoka postuak (4x2)	22,36€ uni./eguneko (<i>día</i>)
Fruitu saltokia (metro linealagatik)	7,47€ uni./eguneko (<i>día</i>)
Karpa txikia (3x2)	26,48€ uni./eguneko (<i>día</i>)
Karpa handia (4x3.5)	37,36€ uni./eguneko (<i>día</i>)
Danborrak	6,02€ uni./eguneko (<i>día</i>)



Ordiziako Udala

Kupelak	7,47€ uni./eguneko (día)
Oholtza	15,00€ m2./eguneko (día)
Sukalde handia	60,32€ uni./eguneko (día)
Sukalde txikia	18,03€ uni./eguneko (día)
Bide-seinaleak	6,02€ uni./eguneko (día)

Alokaturiko materialean sortu litezkeen kalte edota galtzea, eskatzaileak ordaindu beharko ditu.

Materialaren garraioa Ordiziako Udalak burutzen baldin bada, kamionaren eta kamioi-gidariaren orduko kostua 143,80€-koa izango da. Ordiziako Udal langile gehiago beharrezkoak izanez gero, orduko kostua 25,35 €-koa izango da.

Materialaren eskaera Zumarraga, Beasain, Lazkao, Tolosa, Zaldibia edota Idiazabalgo Udalek burutzen dutenean, tarifak %100 murriztuko dira, Ordiziako Udalarari burutzen dioten doaineko materialaren lagapenagatik.

Ordiziako irabazi asmorik gabeko elkarte eta tokiko entitateei, eta udal aholkularitzarako kontseiluko partaideei, eta bestelako elkartei, beti ere tokiko interesako erregistroan izena emandakoak, (Gizarte Ongizatea, kultura, kirola etb) zero eurotako tarifa aplikatuko zaie, materialak alokatzeagatik, beti ere dagokion saileko aldeko irizpenarekin.

Muntaketa eta desmuntaketa lanengatik orduko eta langileko 50 euro kobratuko dira. Honako hauek salbuetsita egongo dira: Ordiziako irabazi asmorik gabeko elkarte eta tokiko entitateei, eta udal aholkularitzarako kontseiluko partaideei, eta bestelako elkartei, (Gizarte Ongizatea, kultura, kirola etb) zero eurotako tarifa aplikatuko zaie, beti ere dagokion saileko aldeko irizpenarekin

AGIRIAK EMATEA.

Konpultsatzea	Lehenengo 5 orrialdeak0,00 euro/ orrialdeko Hurrengoak.....0,15 euro/ orrialdeko
Informazio kartografikoa	9,33 euro/diskete edo dagoen kartografiako orrialde bakoitza.

ARRISKUTSUAK IZAN DAITEZKEEN ANIMALIAK EDUKITZEKO ARAUBIDEAREN 50/1999 LEGEAREN 3. ARTIKULUA ESKATZEN DUEN BAIMENA EMATEKO JARDUERA.

Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko baimena eta Arriskutsuak izan daitezkeen animalien erregistroan izena eman	30,56 euro
Berritzea edo baimena ematea	20,84 euro

Arriskutsua izan daitezkeen txakurra edukitzeko baimena emateko garaian, eta arriskutsuak izan daitezkeen animaliak Erregistroan izen-emateko txartela bidaltzeko unean tasa hau ordaintzeko betebeharra eskatuko da.

- Halaber, baimena berritzeko garaian ere eskatuko da.

GARABIA, ZEPOA ETA UDAL IBILGAILU GORDELEKUA


Garabia zerbitzua	113,32 euro
Zepoa/	25,76euro
ibilgailu gordelekua	15,46euro/eguna

GAZTE TXOKOA. EUSKARA ERREFORTZU SAIOAK ETORRI BERRIENTZAT/ GAZTE TXOKOA

Haur txokoko euskara errefortzu	10,00 euro
---------------------------------	------------

HERRI ANTZOKIA

Lau hileko abonua	26,00 euro
Sarrera orokorrak	5,00 euro
Haurrentzako sarrerak	3,50 euro



Ordiziako Udala

Film-emanaldia 3D-an baldin bada, sarrerak euro batean igoko dira.

GAINONTZEKO HIRIGINTZAKO ZERBITZUAK

2019ko ordenantza fiskaletan zeuden kontzeptuak %0,7ko KPI-an handituko dira.

7. ORDENANTZA FISKALA

UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO PROBETXAMENDU BEREZIAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA.

I- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.-

Entitate lokal honek, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauari jarraiki, Eranskinean zehazten diren tasak ezarri eta exijitzen ditu udal jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo probetxamendu bereziagatik. Ordenantza honetan adierazten diren arauen arabera ezarri eta exijitzen dira tasa horiek, eta haren barruan geratzen dira jasota.

2. artikulua.-

Ordenantza hau entitate lokalaren lurralde eremu osoan aplikatuko da.

II- ZERGAGAIA

3. artikulua.-

Udal jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo haren probetxamendu berezia da zergagaia.

III- SUBJEKTU PASIBOA

4. artikulua.-

1.- Honako hauek izango dira, zergadun bezala, subjektu pasiboak: pertsona fisikoak zein juridikoak, eta Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak 33. artikuluan aipatzen dituen entitateak, baldin eta beren onura partikularrerako gozatu, erabili edo aprobetxatzen badute modu berezian udal jabari publikoa, uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzkoak, 20.2 artikuluan jasotzen dituen kasuen arabera.

2.- Espaloietan egokitutako ibilgailu sarrerak modu pribatiboan erabiltzeagatik edo haien probetxamendu bereziagatik ezartzen diren tasetan eta, oro bat, sarrera horiek eraiki, mantendu, aldatu edo kentzekoetan, zergadunaren ordezkotzat hartuko dira ibilgailuen sarrera horiei sarbidea ematen dieten finka eta lokalen jabeak. Horiek, hala dagokienean, onuradun desberdinei jasanarazi ahal izango dizkiete kuotak.

3.- Estatuia, autonomia elkarteak eta entitate lokalak ez daude behartuta tasak ordaintzera herri jabariaren erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziarengatik, zuzenean ustiatzen dituzten komunikazio zerbitzu publikoen probetxamenduetan eta, bereziki, herritarren segurtasunarekin edo defentsa nazionalarekin zer ikusia duten guztietan.


5. artikulua.-

Tasen ordainketa lizentziak beren izenean jasotzen dituztenek egingo dute, eta horien ezean, probetxamenduaren onuradun direnek.

IV- OINARRI EZARGARRIA

6. artikulua.-

Oinarri ezargarrria udal jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo probetxamendu berezia gauzatzen den unitate bakoitzak osatzen du, Eranskinean jasotakoaren arabera.



Ordiziako Udala

V- KUOTA

7. artikulua.-

1.- Zerga kuota tarifa bat, espreski erabakitako kopuru finko bat edo, bestela, bi prozedurak batera erabiliz finkatuko da, Eranskinean ezarritakoaren arabera.

2.- Erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziak udal jabari publikoa suntsitu edo hondatzen duenean, onuradunak, behar den tasari aurre egiteaz gainera, osorik itzuli beharko ditu berreraikuntza edo konponketa gastuen kostuak, eta haren zenbatekoa aldez aurretik ordaindu.

Kalteak konponezinak badira, udalak kalteordain bat jasoko du. Suntsitutako ondasunen pareko balioa izango du, edo bestela, kaltetutako ondasunen zenbatekoarena.

Entitate Lokalak ezingo ditu barkatu, ez osorik ez zati batean, apartatu honetan aipatzen diren kalteordainak edo diru-itzulketak.

VI- SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

8. artikulua.-

1.- Udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziagatik exijitzen den tasa hurrengo uneetan sortuko da zergagaiaren izaeraren arabera: erabilera pribatiboa edo probetxamendu berezia hasten denean, eta orduan zenbateko osoa edo haren zati bat aurrez ordaintzea exijitu daiteke, edota, bestela, jarduketari edo espedienteari hasiera ematen dion eskaera aurkezten denean; jarduketa ez da egingo edo espedientea ez da izapidatuko dagokion ordainketa egiten ez bada.

2.- Tasaren izaera materialak sortzapena aldizkakoa izatea exijitzen duenean, sortzapen hori urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean gertatuko da eta zergaldiak urte naturala hartuko du. Erabilera pribatiboa edo probetxamendu berezia hasi edo uzten denean, ordea, zergaldia zirkunstantzia horretara egokituko da, eta kuotan dagokion hainbanaketa egingo da Eranskinean ezarritakoari jarraituz.

3.- Jabari publikoa erabili edo aprobetxatzeko eskubidea burutu edo gauzatu gabe geratzen bada subjektu pasiboarekin zer ikusirik ez duten arrazoiengatik, dagokion zenbatekoa itzuliko zaio.

VII- LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

9. artikulua.-

Entitate Lokalak kontzeptu bakoitzaren likidazioa egingo du, eta likidaturiko kopurua eskudirutan ordainduko da Eranskinak exakzio bakoitzerako ezartzen dituen arau partikularrei jarraituz.

VIII- TASEN KUDEAKETA

10. artikulua.-

Ordenantza honetan arautzen diren tasak likidatu, bildu eta ikuskatzeari dagokion guztian, eta, halaber, zerga urrapenak kalifikatu eta kasu bakoitzean dagozkien zigorrak ezartzerakoan, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrean jasotakoa aplikatuko da.

IX- AMAIERAKO XEDAPENA


Ordenantza hau, eta bere Eranskina, 2020ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta aldatu edo indargabetzea erabakitzen ez den artean jarraituko du indarrean.

ERANSKINA TARIFAK

ESPALOIAK ETA PASABIDEAK PASATUZ ORUBEETARA IBILGAILUAK SARTZEA

	Euro
Espaloi eta ibietatik zehar finketara ibilgailuak sartzeko	

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAABFP28.3TVj>



Ordiziako Udala

Ibilgailuko 5 ibilgailu arte	22,46
Ibilgailuen sarrera	
Ibilgailuko 5 ibilgailu baino gehiago (*)	11,23
Ibiak, metro linealeko/urtea	
Eremua	21,48
Eremua	21,48
Eremua	17,18
Eremua	13,97

Tarifa aplikatzeko arauak.

1.- Garaje partikular edo kolektiboetara sartzeko izanez gero tarifa normala kobratuko da, hau da, %100a.

2.- Zer automobil edo ibilgailu den ere kontuan izango da tasa kobratzeko orduan. Bi sailetakoak izango dira:

Lehenbiziko sailean legez 2.500 kg. baino gutxiagoko karga eramateko moduko ibilgailuak edo furgonetak izango dira.

Bigarren taldean merkantziak edo bidaiariak garraiatzeko ibilgailuak sartzen dira, baimendutako gehieneko karga 2500 kg baino gehiagokoa denean, kasu honetan aplikatu beharreko tasa ibilgailuak lokalera sartzeko espaloia zeharkatu behar dutenean %25 haziko da.

3.- Sarrera automobilak pasatzeko berariak prestatuta (espaloia altuera jaitsita edo espaloia materiala aldatuta) duenak ere eskuarki ordaindu behar denaren %25 ordaindu behar du.

4.- Espaloia pasatu beharrik gabe sartzea, tarifaren erdi prezioa ordaindu behar da.

Espaloia jaitsita, materiala aldatuta edota samurrago sartzeko espaloia erabat kenduta egonez gero, espaloia aldatuta dagoela joko da.

Etxadiaren bukaeran, etxe ertzetan daudenak espaloirik gabeko sarreratzat joko dira.

5.- Kuota. Orube batean ate bat baino gehiago izanez gero, ate bakoitzak kuota bat, osoa, ordaindu beharko du, nahiz eta urte gutzitan egunero sarrera edo pasoa ibili ez. Hala, ate bat egoteak paso edo sarrera bat esanahi du edozein gauzatarako.

6.- Kuotak urtekoa hartuko du. Udalak, edozein moduz ere, badauka eskubidea (administrazio lana samurrago egiteko) hiru hilean behin edo egoki jotzen duen aldiaren behin kobratzeko kuota hau, beste zerga edo tasa batzuekin batera edo apartate.


7.- Zenbat automobil diren erabakitzeke garajeak kabitzen dituenak kontatuko dira.

8.- Pasabidearen edo ibiaren titurrak, berriz, derrigor jarri behar du udalak emandako seinalea, udalak ordaindutako ordaindu eta gero jasoko duena.

(*) Bost ibilgailu baino gehiago egonez gero, lehenengo bostek 22,30 euro ordaindu beharko dituzte ibilgailuko eta gainerakoek 10,72 euro ibilgailuko.

ZAMALANETARAKO EMAKIDA BEREZIAK

	<i>Euro</i>
1 eremua	
Okupazioa metro linealagatik	22,86
2. eremua	
Okupazioa metro linealagatik	22,86
3. eremua	
Okupazioa metro linealagatik	5,74
4. eremua 4	
Okupazioa metro linealagatik	3,38



Ordiziako Udala

BITRINAK, PORTADA APAINGARRIAK, TOLDOAK ETA MARKESINAK

Bide publikora ateratzen direnak /	Euro /
1. eremua.- m ² edo zatikiko urtean	9,91
2. eremua.- m ² edo zatikiko urtean	9,91
3. eremua.- m ² edo zatikiko urtean	8,30
4. eremua.- m ² edo zatikiko urtean	7,87
Eranskinak	
1. eremua.- m ² edo zatikiko urtean	5,14
2. eremua.- m ² edo zatikiko urtean	4,54
3. eremua.- m ² edo zatikiko urtean	4,39
4. eremua.- m ² edo zatikiko urtean	4,10

ESTABLEZIMENDUZ KANPO PRODUKTUAK ERAKUSTEKO

m ² ko eta hiruhileko	14,23 euro
----------------------------------	------------


AZOKA EDO HERRI JAIETAKO SALTOKIAK

	euro
m ² eta eguneko orokorrean	2,19
m ² ko hiruhilekoa	15,08
Baserritarak:	
- mahai bat/urteko	20,93
- mahai erdi bat/urteko	10,45

AZOKA BEREZIAN SALTOKIAK JARTZEKO	<i>Euskal Jaiak /</i>	<i>Eguberrietako Azoka</i>	<i>Ardoaren azoka eta Artzain eguna</i>
Txorizo, talo eta ogitartekoak saltzeko	243,27 euro/egun	194,63 euro/egun	145,98 euro
Gainerako saltokiak (eztia, hegaluzea, pateak, pipar, poteak, eta)	14,69 euro/m.l/egun	14,69 euro/m.l/ egun	
Arboledan gazta saltzeko postuak (Idiazabal Gazta Lehiaketan parte hartzen duten artzainak zero euro ordainduko dute)	14,69 euro/m.l/egun		
Artisautza (Udal erabakiko du zeintzuk diren talde honetan sartzekoak)		0,00	

UDALERRIKO KALEEN ZORUA, AIREA EDOTA LUR-AZPIA NORBERARENTZAT ERABILTZEA EDO PROBETXU BEREZIA KENTZEA.

Lurra: / Suelo :	
Ostalaritzako aulki eta mahaitxoak (4 aulkiko mahai bakoitzeko). Urte Osoa.	76,30
Ostalaritzako aulki eta mahaitxoak (6 aulkiko mahai bakoitzeko). Urte Osoa.	81,75
Ostalaritzako aulki eta mahaitxoak (2 aulkiko mahai altu bakoitzeko) .Urte Osoa	54,50
Sillas y veladores de hostelería (2 aulkiko mahai baxu eta barrika bakoitzeko) Urte osoa	67,00
Mahiak eta aulkiak okupazioa Herriko Jaietan, 4 aulkiko mahaiko eta eguneko	5,56
Mahiak eta aulkiak okupazioa Herriko Jaietan, 6 aulkiko mahaiko eta eguneko	5,57
Mahiak eta aulkiak okupazioa Herriko Jaietan, 2 aulkiko mahai altuko eta eguneko	3,72
Mahiak eta aulkiak okupazioa Herriko Jaietan, 2 aulkiko mahai baxuko etabarrikak (eguneko)	4,56
Tabernak, txurrosaltoki, tiraketa-postu, etab. m ² ko eta eguneko	1,13
Loteria saltokia, m ² ko eta eguneko	1,13
Zirko eta beste ikuskizun batzuk jartzea astea	339,95€
Helikopteroak lur hartzea	618,10€ eguna



Ordiziako Udala

txonetak eta Puzgarriak (haur jolasak) / <i>Colchonetas e Hinchables (juegos infantiles)</i> (*0 € beti ere beraien tarifa udalarekin adosten bada	0
Puxikak saltzea	15,60€/eguna
Obrak:	
Egitura metalikoko okupazioa, bere azpian oinezkoentzako pasabidea utziz. m ² ko eta eguneko	0,13
Lanen eremua erabat isteko hesi altua duen okupazioa, m ² ko eta eguneko	0,22
1,5 metro baino gutxiagoko hesi metalikoko okupazioa, m ² ko eta eguneko	0,40
Hesirik gabeko okupazioa, m ² ko eta eguneko.	0,62
Kontenedorekin okupazioa, eguneko	2,15
Herri Zaharrean etxeak egiteko kalea okupatzea	%25 tarifa
Kutzazain automatikoekin m ² eta eguneko, aprobetxamendu berezia.	2,06€/m ² /eguna
“Vending” makinaren aprobetxamendua berezia	1,28/m ² /eguna

*Establezimenduaren fatxadan kartela jarriko da, irekitzeko ordutegiarekin eta kanpoan zenbat mahaitxoak jartzeko baimena duten adierazteko.

Tarifa aplikatzeko arauak.

- 1.- Udalak sustatutako obra denean ez dago prezio publiko horiek ordaindu beharrik.
- 2.- Paso gutxiko bideetan tarifaren erdi prezioa ordaindu beharko da.
3. Herriko Jaietan kalean mahaiak eta aulkiak jarri nahi badira, aparteko eskabidea egin beharko da, hau da, urte osorako egiten denaz gain beste bat. Gainera, uda partean jarritakoak baino gehiago badira Herriko Jaietan, alde hori kobratuko da.
- 4.- Mahaiak eta aulkiak: Ezarritako tarifak %70an aplikatuko dira erdigunetik kanpo dauden tabernei. Erdigunea zein kontsideratzen den planoa prestatu da.
5. Salbuespen hori ez da etxeak berritzen direnean aplikatzen.

UDALERRIKO KALEEN ZORUA, AIREA EDOTA LUR-AZPIA NORBERARENTZAT ERABILTZEA EDO PROBETXU BEREZIA KENTZEA, HORNIKUNTZA ZERBITZUAK USTIATZEN DITUZTEN LANTEGIEK EGITEN DUTENA.

Herri guztiari edo jende multzo handi bati zerbaiten gairen batez hornitzeko zerbitzua ustiatzen duen lantegiak Udalerriko kaleen zorua, airea edota lur-azpia norberarentzat erabiltzeko nahiz probetxu berezia kentzeko ordaindu behar duen prezioa lantegi horrek udalerrian urtean fakturatzen duenetik ateratako sarrera gordinaren %1,5 izango da.

Horretarako, honakoak hartuko dira hornidura-zerbitzuen enpresa ustiatzailatzat:


- a) Argindarra, ura edo gasa hornitzen duten enpresak.
- b) Jendearentzako telekomunikazio zerbitzuak ematen dituzten enpresak, baldin eta udal bide publikoen lurzoruan, zorupean edo hegalduran erabilera pribatiboz edo aprobetxamendu bereziz instalatutako telekomunikazioko sare publikoak, osorik edo zati batean, erabiltzen badira.
- c) Hornidura-zerbitzuak ematen dituen beste edozein enpresa, baldin eta horiek emateko udal lurzorua, hegaldura edo zorupea hartzen duten hodiak, kableak eta gainerako instalazioak erabiltzen badituzte.

Artikulu honetan jasotakoaren ondorio horietarako, zerbitzu horien enpresa ustiatzaileen artean zerbitzu horiek banatu eta merkaturatzen dituztenak sartuko dira.

Tarifa aplikatzeko araua.

- 1.- Lantegiak adierazpena aukertu behar dio Udalari urtearen aurreneko lau hilabeteak joan baino lehen. Aurreko urtean udalerrian egindako hornikuntzatik lortutako sarrera gordinen gaineko xehatasunak eman behar ditu adierazpenean.

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAABFP28.3TVj>



Ordiziako Udala

a) Era berean, lantegiaren kontabilitateari buruzko laburpena eta Udalak eskatutako beste edozein agiri edo dokumentu ekarri beharko dizkio adierazpenarekin batera lantegiak Udalari.

b) Horrekin erabaki eta kitatuko du Udalak, behin-behingo, tokatzen den prezio publikoa. Kitatu eta 5 urte pasa baino lehen ere, ordea, Udalak badauka kitatutako prezioa zuzentzeko eskubidea. Behin bost urte horiek pasatutakoa, behin-betiko kitatutzak joko da tarifa.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jaunak barkamena eskatu du, lehenik eta behin, behin betiko proposamena osoko bilkurako kideei atzerapenez bidaltzeagatik. Kontu-hartzailea bajaran dagoenez eta hori ordeztan duen kontu-hartzailea lanaldi partzialean dagoenez, kontu-hartzailetzako zerbitzuek azkar lan egin behar izan dute.

Ordenantza fiskalen aldaketak ordenantza guztiei eragiten diela jakinarazi du. Zegoen bezala geratuko da haur eskola zerbitzua emateko ordenantza.

Hondakinen bilketa-tasa % 5 igo da zerbitzua ordaindu ahal izateko, eta, era berean, zuzenbidearekin bat ez datozen tasa izendunak kendu dira.

Industria mailan, eta aipatu tasaren aplikazioan, orain arte bertako langile-kopurua hartzen zen kontuan, baina oso kontrol zaileko irizpidea denez, udal batzuetan bezala, enpresen azaleraren irizpidea kontuan hartzea erabaki da.

Aldaketarik garrantzitsuenen berri eman du.

Esate baterako, hirigintza-arloan zerbitzuak emateko tasa. Ez daude jasota ematen diren prestazio batzuk, eta, era berean, 2012ko erreformara egokitu ez ziren jarduera sailkatuen tasak egokitu dira.

Datorren urteari begira, "Jakinararen ganean jartzeko obra" landuko da, baina ehuneko 3ko ordainarazpena aurreikusten da jada, eraikuntzako ordenantza aldatzen denean ordenantza hori ordainarazi ahal izateko.


Hondakinen bilketa-tasari dagokionez, esan du igoera horren arrazoia dela oraindik ez dela ordaindu legez nahitaezkoa den zerbitzua.

Santamaria jaunak esan du berak ez duela atzerapenaren kritikarik egingo, badakielako gauzak nola doazen eta batzuetan ezin dela saihestu, baina esan du ez dutela denbora askorik izan ordenantza fiskalen proposamena aztertzeko. Jasotako proposamena zirriborro moduan jaso zelako eta aldaketekin etorri delako plenora.

Gaineratu du, ordea, ez daudela ados hirigintzako tasak landu diren moduarekin. Ez dituzte beraiek kontuan hartu. Hirigintzako tasak, duela bi urte landu genituen eta batzorde batean lantzeko geratu baginen, orain ezer hitz egin gabe zuzenean bozkatzera etorri dira.

Oro har, proposatutako aldaketen alde gaude eta ondorengo hauek proposatzen ditugu,

- OHZren errenergia etxebizitza hutsetan kentzea
- "Mortis causa" gainbalioak ahalik eta gehien hobarituko dira, ehuneko 95era, ahal bada.
- Merkatariei beren produktuak bide publikora ateratzeagatik kobratzen zaien tasa jabari publikoa okupatzeagatik. Kentzeko eskatu dute.



Ordiziako Udala

Sukia andreak esan du ados daudela ordenantza batzuekin eta ez beste batzuekin eta horregatik eskatu du bereiz bozkatzeko, banan-banan.

Dubreuil jaunak zerga eta tasa berriak onartzearekin zenbat diru bilduko den galdetu du.

Alkate jaunak erantzun dio kalkulu hori ez dela egin, kontu-hartzailea ez dagoelako.

Dubreuil jaunaren iritziz, udal-gobernuak aurkeztutako proposamena nahiko arrazoizkoa eta errealista da, nahiz eta alderdi batzuetan hobetu daitekeen; hain zuzen ere, talde sozialistak zuzenketa gisa proposatzen dituenak.

Proposamen horren bidez, egoera ahulenen dauden familien aldeko beste urrats bat eman nahi dute, ingurumenaren zaintzarekin kontzientziatuta dauden enpresak saritu eta Ordizian merkataritza jarduera mantentzea errazteko ahalik eta baldintza onenak sortu.

Ildo horretan, zerga-urte honetan zerga-hobekuntzak lehenetsi nahi ditu gizarte-arloan (1. eta 2. zuzenketa), trantsizio ekologikoan (3. eta 7. zuzenketa) eta merkataritza-sustapenean (4., 5. eta 6. zuzenketa).

Jarraian, ordenantzen eztabaida eta bozketa egingo da, bereizita eta taldeek planteatzen dituzten zuzenketein.

- **1. ordenantza, ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duena**

Sukia andreak zuzenketa bat proposatu du. 3. artikularen laugarren paragrafoa aldatzea proposatu du; bertan erantsiko da "errekargu horren bidez bildutako kopuruak zuzenean bideratuko dira izen bereko ordenantzak araututako alokairurako laguntzen programara".

Santamaria jaunak proposatu du hutsik dauden etxebizitzaren gaineko errekargua kentzea.

Dubreuil jaunak ere bi zuzenketa proposatu ditu:

- III. tituluan (Zerga Oinarria eta kuotak), zehazki 3. artikuluko 4. paragrafoan, honako hau gehitzea: "Halaber, adinekoentzako egoitza batean sartu diren titularren etxebizitzak OHZn % 50eko errekargutik salbuetsita geratuko dira urtarilaren 1ean ohiko bizilekua osatzen ez duten finkentzat. Errekargua ez ezartzeko epea 3 urtekoa izango da, egoitzan sartzen den egunetik zenbatzen hasita, baina urtero egiaztatu beharko da hori".
- IV. tituluan (Salbuespenak eta Hobariak), 4. artikuluko laugarren paragrafoan, honako haue gehitzea: "25.200 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten familiak salbuetsita egongo dira OHZ ordaintzetik".


Alkate jaunak erantzun du proposatutako bigarren zuzenketa ez dela gauzagarria. Hortaz, eta zuzenketa onartzen bada, aplikatu egingo da baldin eta legez aplikagarria bada.

Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak taldeak aurkeztutako zuzenketa bozkatzeari buruz

Aldekoak: 17 (E.H. BILDU 7, EAJ/PNV 7, Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak 2, (PSOE)PSE-EE(PSOE) 1)
Aurkakoak: 0
Abstentzioak: 0

Zuzenketa onartu da.

ORDIZIA ORAIN Elkarrekin-Podemos/Ezker Anitza-IU taldeak proposatutako zuzenketa bozkatzeari buruz



Ordiziako Udala

Aldeko botoak: 10 (Ordiziako E.H.BILDU 7, Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak 2, (PSOE)PSE-EE(PSOE) 1)
Kontrako botoak: 0
Abstentzioak: 7 (EAJ-PNV)

Zuzenketa onartu da.

EAJ-PNV taldeak proposatutako zuzenketa bozkatzea

Aldeko botoak : 7 (EAJ-PNV)
Kontrako botoak: 10 (Ordiziako E.H. Bildu 7, Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak 2, (PSOE)PSE-EE(PSOE) 1)
Abstentzioak: 0

Ez da onartu aurkeztutako zuzenketa.

Onartutako zuzenketekin proposamena bozkatzea

Aldeko botoak: 10 (Ordiziako E.H. Bildu 7, Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak 2, (PSOE)PSE-EE(PSOE) 1)
Kontrako botoak: 7 (EAJ-PNV)
Abstentzioak: 0

Proposamena gehiengoz onartu da sartutako zuzenketekin.

- **2. ordenantza arautzailea, ekonomia-jardueren gaineko zerga (EJZ) arautzen duena**

Dubreuil jaunak 6. artikuluari hirugarren paragrafoa gehitzea proposatu du, honela idatzita: "Energia berriztagarriak ezartzen dituzten eta beren langileentzat garraio kolektiboaren aldeko apustua egiten duten enpresek hobaria izango dute EJZn, bi kontzeptuetako bakoitzagatik ehuneko 10; neurri fiskal horiek bateragarriak izango dira dirulaguntzen arloan egin daitezkeen beste ekintza batzuekin".

Alkate jaunaren iritziz, puntu honetan hobariak eta/edo salbuespenak, etxebizitzetan bezala, aldaketa horiek borondatez egiten dituzten garraio-enpresei bakarrik eman beharko litzaizkieke, eta ez horretara behartuta daudenei.

Arocena andrearen iritziz, enpresek neurri horiek planean jasota badituzte, salbuespenak eta hobariak aplikatu beharko lirateke.

Sukia andrearen iritziz, hizpide ditugun garraio-enpresa gehienek 2.000.000 eurotik gora fakturatzen dute.


Alkate jaunak zuzenketaren aurka bozkatuko du, proposatzen denaren aplikazioa oso kontrol zailekoa dela uste dutelako.

Socialistas Vascos- Euskal Sozialistak taldeak proposaturiko zuzenketa bozkatzea.

Aldeko botoak: 1 ((PSOE) PSE-EE(PSOE) 1)
Kontrako botoak: 7 (Ordiziako E.H. Bildu)
Abstentzioak: 9 (EAJ-PNV 7, Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak 2,)

Ez da onartu zuzenketa

Gobernu-taldearen proposamenaren aldeko botoak



Ordiziako Udala

Aldeko botoak: 16 (EH-BILDU 7, EAJ-PNV 7, Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak 2)

Kontrako botoak: 1 ((PSOE)PSE-EE(PSOE) 1)

Abstentzioak: 0

Proposamena gehiengoz onartu da sartutako zuzenketekin.

- **3. ordenantza arautzailea, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duena**

Sukia andreak adierazi du ordenantzari proposatzen dioten zuzenketa behin baino gehiagotan eskatu duela bere taldeak, eta berriro ere planteatu dutela.

Historikoen kategoria duten ibilgailuei hobaria ematea proposatu du; hau da, 30 urtetik gora dituztenei. Aipatu du ibilgailu horiek arautzen dituen dekretua, eta, gainera, esan du erraz aplikatu daitekeela, matrikularekin kontrolatzen direlako.

Eskatu du, halaber, 25 urtetik gora eta 30etik behera dituzten ibilgailuentzako hobaria bertan behera uztea.

ORDIZIA ORAIN Elkarrekin-Podemos/Ezker Anitza-IU taldeak egindako zuzenketa bozkatzea.

Aldekoak: 17 (E.H. BILDU 7, EAJ/PNV 7, Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak 2, (PSOE)PSE-EE(PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.

- **4. ordenantza arautzailea, eraikuntza, obra eta instalazioen gaineko zergari buruzkoa**

Alkate jaunak proposamena azaldu du.

Dubreuil jaunak bi puntu dituen zuzenketa bat sartzea proposatu du, zehazki 8. artikuluko 3. paragrafoan, honela idatzita:

- 1) Zergaren kuotaren % 75eko hobaria ezartzea eguzki-energia autokontsumorako aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemen instalazioaren kostuari dagokion zatian, betiere instalazio hori borondatezkoa bada eta araudiak eskatzen ez badu. Irisgarritasuna hobetzeko obretarako hobaria 15 puntu igotzea, hobariaren ehuneko 90eraino iritsiz.

Socialistas Vascos- Euskal Sozialistak taldeak aurkeztutako zuzenketaren aldeko botoak

Aldekoak: 17 (E.H. BILDU 7, EAJ/PNV 7, Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak 2, (PSOE)PSE-EE(PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Aho batez onartu da zuzenketa


Onartutako zuzenketa duen proposamenaren aldeko bozketa

Aldekoak: 17 (E.H. BILDU 7, EAJ/PNV 7, Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak 2, (PSOE)PSE-EE(PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAABFP28.3TVj>



Ordiziako Udala

Ondorioz, Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat eman du, onartutako zuzenketa barne.

- **5. ordenantza arautzailea, hiri-lurren balio-gehikuntza arautzen duena**

Santamaria jaunak proposatu du ondasun higiezin mortis causa oinordetzetan % 95eko aldaketa egitea, eskualdaketa jasotzen duenak higiezina ohiko etxebizitza gisa erabiltzen badu.

EAJ-PNV taldeak aurkeztutako zuzenketa bozkatzea

Aldekoak: 17 (E.H. BILDU 7, EAJ/PNV 7, Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak 2, (PSOE)PSE-EE(PSOE) 1)
Aurkakoak: 0
Abstentzioak: 0

Zuzenketa aho batez onartu da.

Dubreuil jaunak proposatu du II. tituluan (dispertsio osagarriak), 2. artikuluan (Hobariak), paragrafo berri bat gehitzea, honela idatzita: "% 90era arteko hobaria izango dute denda zuzeneko senide bati eskualdatzen badiote".

Socialistas Vascos- Euskal Sozialistak taldeak aurkeztutako zuzenketa bozkatzea

Aldeko botoak: 1 (PSOE)PSE-EE(PSOE) 1)
Kontrako botoak: 9 (Ordiziako EH-BILDU 7, Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak 2)
Abstentzioak: 7 (EAJ-PNV)

Ez da onartu zuzenketa.

Gobernu-taldearen proposamenaren botoak

Aldeko botoak: 16 (Ordiziakok EH-BILDU 7, EAJ-PNV 7, Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak 2)
Kontrako botoak: 0
Abstentzioak: 1 (PSOE)PSE-EE(PSOE) 1)

Ondorioz, Alkate jaunak aho batez onartutzat eman du proposamena onartutako zuzenketa sartuta.

- **6. ordenantza arautzailea, zerbitzu publikoak emateagatiko eta administrazio-jarduerengatiko tasak arautzen dituena**

Dubreuil jaunak bi zuzenketa proposatu ditu:


- 1) Saltoki berriari hondakinen tasaren % 50eko hobaria gehitzea bizitzako lehen urtean, eta % 25ekoa bigarren urtean.
- 2) % 50era arteko salbuespena ezartzea ingurumen-kudeaketako sistemak ezarri dituzten enpresentzat.

Sukia andreak esan du aipatutako zuzenketen aurka bozkatuko duela, uste duelako merkataritzari eman beharreko laguntza beste modu batzuetatik etorri behar dela, baina ez hobarian edo salbuespenean, hondakinak sortzeari dagokionez.

Socialistas Vascos- Euskal Sozialistak taldeak aurkeztutako zuzenketa bozkatzea

-1 zenbakidun zuzenketa:

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAABFP28.3TVj>



Ordiziako Udala

Aldeko botoak: 1 (PSOE)PSE-EE(PSOE) 1)
Kontrako botoak: 9 (Ordiziakok EH-BILDU 7, Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak 2)
Abstentzioak: 7 (EAJ-PNV)

Ez da onartu zuzenketa.

-2 zenbakidun zuzenketa:

Aldeko botoak: 1 (PSOE)PSE-EE(PSOE) 1)
Kontrako botoak: 9 (Ordiziakok EH-BILDU 7, Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak 2)
Abstentzioak: 7 (EAJ-PNV)

Ez da onartu zuzenketa.

Sukia andreak esan du ez dagoela ados hondakinen gaineko tasa % 5 igotzearekin. Bere iritziz, udalerraren kudeaketa-eredu propioa sortu beharko litzateke, hura ez edukitzeak garestitzen baitu zerbitzua.

Aurten % 5 eta datorren urtean ere igoera handia izango da.

Gobernu-taldearen proposamenaren botoak

Aldeko botoak: 14 (Ordiziako EH-BILDU 7, EAJ-PNV 7)
Kontrako botoak: 2 (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak 2)
Abstentzioak: 1 (PSOE)PSE-EE(PSOE) 1)

Alkate jaunak, ondorioz, gehiengoz, onartutzat eman du proposamena.

• 7. ordenantza arautzailea, jabari publikoaren aprobeztamendu berezia arautzeari buruzkoa

Santamaria jauna bide publikoan produktuak erakusten dituzten saltokientzako tasa kentzea proposatu du. Saltoki askok egindako eskaera dela dio, eta bere iritziz tasa hori kobratzen ez bada, neurriak kalean bizitza gehiago egotea bultzatuko du.

Alkate jaunak horretan bidegabekeria konparatiboa ikusten du mahai eta aulkiekin bide publikoa okupatzen duten taberna eta establezimenduekiko.

Dubreuil jaunaren iritziz gaia globaltasunean aztertu behar da. Ez du arrazoirik ikusten denden tasa hori ez ordaintzeko eta beste sektore batzuek bai.

Alkate jaunak zuzenketaren aurka bozkatuko du, baina datorren urteari begira gaia hobeto aztertzeko konpromisoa hartu du.


EAJ-PNV taldeak aurkeztutako zuzenketa bozkatzea

Aldeko botoak: 7(EAJ-PNV)
Kontrako botoak: 9 (Ordiziako EH-BILDU 7, ORDIZIA ORAIN Elkarrekin-Podemos/Ezker Anitza-IU,2)
Abstentzioak: 1 (PSOE)PSE-EE(PSOE) 1

Ez da onartu zuzenketa

Gobernu taldeak aurkeztutako proposamenaren aldeko botoak

Aldeko botoak: 9 (Ordiziako EH-BILDU 7, Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak 2)
Kontrako botoak: 0



Ordiziako Udala

Abstentzioak: 8 (EAJ-PNV 7, PSEE-PSOE 1)

Alkate jaunak, ondorioz, gehiengoz onartutzat eman du proposamena.

- **8. ordenantza arautzailea, haur-eskolako zerbitzua emateagatikotasari buruzkoa**

Sukia andreak proposatu du familia-unitatearen diru-sarreraren araberako kuotak edo tarifak ezartzea.

laz planteatu zuten, eta aurten ere berriro proposatu dute dute, 1. tarifako diru-sarreraren azpitik, hau da, 15.626,31 eurotik beherako diru-sarreraren azpitik, kuota pixkanaka murriztea.

Alkate jaunak erantzun dio laguntzak beste modu batzuetatik etor daitezkeela, eta, gainera, zaila iruditzen zaio aplikazioa.

Sukia andreak dio diru-sarrera horietatik behera ezin zaiola tarifari aurre egin.

ORDIZIA ORAIN Elkarrekin-Podemos/Ezker Anitza-IU, taldeak aurkeztutako zuzenketa bozkatzea

Aldeko botoak: 17 (Ordiziako EH-BILDU 7, EAJ-PNV 7, ORDIZIA ORAIN Elkarrekin-Podemos/Ezker Anitza-IU,2, Socialistas Vascos- Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak. 0

Abstentzioak. 0

Gobernu taldeak aurkeztutako proposamenaren aldeko botoak onartutako zuzenketarekin

Aldekoak: 17 (E.H. BILDU 7, EAJ/PNV 7, Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak 2, (PSOE)PSE-EE(PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.

ONARTUTAKO PROPOSAMENA ZUZENKETAK EGIN ONDOREN, HAU DA:

1. ORDENANTZA FISKALA

ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGAREN KUOTA ZEHAZTEKO ALDERDIRIK NAGUSIENAK ARAUTZEN DITUENA.

I.- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.

Ordiziako Udalak, uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauko 14.3 artikulua ematen dion aginpideaz baliatuz (Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duenak), hurrengo artikuluan jartzen duen eran zehaztu du zerga horren kuota.


II.- ZERGA-TASAK

2. artikulua.

- 1.- Ondasun higiezin hirialdekoek izango duten zerga-tasa ERANSKINEAN jartzen duena izango da.
- 2.- Landa-lur Ondasun Higiezinak izango duten zerga-tasa ERANSKINEAN jartzen duena izango da.

III.- ZERGA OINARRIA ETA KUOTAK

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAABFP28.3TVj>



Ordiziako Udala

3. artikulua.

1.- Ondasun higiezin hirialdekoen gaineko zergaren oinarria katastroan jartzen duen balioa izango da.

2.- Landa-lur ondasunei aplika dakiekeen Ondasun Higiezin gaineko Zergaren zerga-oinarria erregelamendu bidez onartutako katastro-balioa izango da.

3.- Bakoitzaren kuota, berriz, goian esan ditugun zerga oinarri 2. artikuluan adierazitako tasak aplikatuta ateratzen da.

4.- Urtarrilaren 1ean ohiko bizileku ez diren ondasun higiezin kuota likidoaren %50eko errekgua ezarri da. Kontzeptu honengatik jasotzen diren diru-kopuru guztiak alokairurako laguntzen programari dagokion partidara bideratuko dira.

Bizitoki-finka ez ohiko bizilekua izango da, urtarrilaren 1ean etxebizitza horretan inor ez badago eroldaturik. Etxebizitzak, etxebizitza erabilerarekin bateragarriak ez diren jardueretarako erabiltzen diren kasuetan, dagokion jarduera-proiektuarekin egiaztatu beharko da egoera hori.

Era berean, adinekoen egoitza batean ingesatuta dagoen etxebizitzaren jabea ez zaio eskatuko %50eko errekgua ordaintzea, urtarrilaren 1ean etxebizitza horretan inor ez badago eroldaturik. Errekgua ez eskatzeak 3 urteko iraupena izango du egoitzan ingesatutako egunetik zenbatzen hasita, baina egoera hori urtero egiaztatu beharko da.

Alokatuta dauden etxebizitzak, ohiko bizileku izango dira legezko kontratua indarrean badago. 2015eko irailaren 26tik aurrera sinatutako alokairu kontratuak, Eusko Jaurlaritzako Bizilagun Zerbitzuan erregistratuak egon beharko dira, dagokion fidantzarekin.

GAINKARGUA EZ APLIKATZEKO URTERO AURKEZTU BEHARREKO BETEKIZUNAK ETA AGIRIAK:

- Dagokion ekitaldiko urtarrilaren 1ean indarrean dagoen lege-alkairu kontratua.
- Eusko Jaurlaritzako Bizilagun Zerbitzuan izena ematea eta fidantza gordailatu izana.
- Indarrean dagoen ekitaldiko urtarileko alokairuari dagokion diru-sarreraren agiria.
- Eskaera epea: urtarrilaren 1etik martxoaren 15era.

%50eko errekgua ez da egingo, zergaren titular den etxebizitzako jabea, bere ohiko etxebizitza izanda, bertan errolatua ez dagoenean, arrazoa "familia ingurunean zaintzaile" izaera izanik, zaintzen duen mendekotasuna duen pertsonaren etxebizitzan errolatua dagoenean.

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza hutsen programan, Udalaren alokairu sozialaren programan eta desjabetutako familientzako etxebizitza alokatzen parte hartzen dutenei ez zaie gainkargua aplikatuko.

IV.- HOBARIAK ETA SALBUESPENAK

4. artikulua.


1.- Higiezin hirigintza, eraikuntza eta sustapen enpresen jarduera egiteko higiezinrentzako %50eko hobia ezarri da, uztailaren 15eko 12/89 Foru Arauaren 15.1. a) artikulua arabera.

2.- Babes Ofizialeko etxebizitzak jabea, behin betiko kalifikazio lortzetik lehen 3 urtetan %25eko hobia ezarri da.

3.- Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza hutsen programan, Udalaren alokairu sozialaren programan eta desjabetutako familientzako etxebizitza alokatzen parte hartzen dutenei %50eko hobia ezarri da.

4.- Eguzki energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak instalatuta eta martxan dituzten etxebizitzak %25eko hobia ezarri da. Urtero baieztatu beharko dute martxan daudela. Hobari honetatik kanpo geratzen dira legez behartuta burutu behar izan diren energia berriztagarriak ezartzeko egin diren egokitzapen lanak, (Eraikuntzaren Kode Teknikoa indarrean sartu zenetik).

5. %50eko hobia zergaren kopuru osoan Familia Ugari Orokorrek diren subjektu pasiboen alde, eta %75ekoa, Familia Ugari Bereziei hori horrela dela egiaztatzen dutenean.



Ordiziako Udala

Hori emateko ezaugarriak eta ekarri beharreko agiriak:

- a) Ohiko bizitokia: erroda agiria.
- b) Etxearen balio katastrala 130.000 eurokoa edo gutxiagokoa. Balio katastrala altuagoa balitz, hobaria kopuru horretarainokoa izango da.
- c) Ondasun Higiezin Zerga agiriaren kopia.
- d) Foru Aldundiko Gizarte Ekintzak emandako familia ugariaren titulua indarrean.
- e) Beste Ondasun Higiezin jabe ez direla adierazteko Zinpeko adierazpena (garaje bat, trasteleku bat edo jarduera profesionalean aritzeko lokala izan ezik).
- f) Oinordetza bidez jasotako higiezinetan jabetza partekatua egotea onartuko da, beste etxebizitza baten baliora iristen ez bada.
- g) Eskatzailea ordainagiriaren jabe ez balitz: etxearen jabearen zinpeko adierazpena, eskatzaileak ordaindu duela adierazten duena.
- h) Eskaera epea: urtarrilaren 1etik 31ra.
- i) Ez dute hobaririk izango 60.000 eurotik gorako errenta duten familiek. Gipuzkoako Foru aldundiak onartutako 2018ko errenta aitopenen kopia aurkeztu beharko da.
- j) Hobaria etxebizitzaren balioarekiko aplikatuko da soilik, kasuan trastelekuari, garajeari etab. dagokiona deskontatuz.

Hobari hori bat etorriko da Ondasun Higiezin gaineko Zergari aplika dakioken beste edozeinekin.

- Ezarritako hobari horiek, lor daitezkeen beste edozein hobari fiskalekin bateragarriak izango dira.

V.- ZERGA KUDEATZEKO ARAUAK

5. artikulua.

1.- Badago bidea zerga gestionatzea, kobratzea, biltzea nahiz ikuskatzea Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku uzteko. Hartarako baldintzak, edukiak eta mugak, ordea, Udaltzak jarriko ditu, eta, nolana ere, hitzarmena egingo da bi erakundeen artean.

2.- G.A.O.n argitaratuko da Udalak hartzen duen erabakia.

VI.- AZKENEKO ERABAKIA

Ordenantza fiskal hau nahiz Eranskinean datozen tasak (ordenantza baitira tasak ere), eranskinean jartzen duen egunean onartu zituen Udaltzak, eta 2020ko urtarrilaren lehenetik aurrera indarrean izango dira, harik eta aldatzea edo kentzea erabaki arte.

ERANSKINA

- Hiri izaerako Ondasun Higiezin gaineko Zergan erabil daitezkeen grabamen tipoa honako hau da:

- Bizitokietarako finkak %0,230
- Industrietarako finkak %0,600

- Baserialdeko Ondasun Higiezin gaineko Zergan erabil daitezkeen grabamen tipoa honako hau da: 1,032%

2. ORDENANTZA FISKALA

JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA ORDAINARAZTEKO ESKUMEN BATZUK ARAUTZEN DITUENA.

I.- XEDAPEN OROKORRAK


1. artikulua.

Uztailaren 5eko 13/1989 Foru Arauko 10. eta 11. artikuluek eta 7/1991 Foru Arauko azkeneko aginduak ematen dion aginpideaz baliatuz –horiek baitira, hurrenez hurren, Ondasun Higiezin gaineko Zergarena eta Zerga Neurri Urjenteak arautzen dituztenak–, ordenantza honetan datozen koefiziente eta indizeak jarri ditu Ordiziako Udalak.

II.- KUOTA GUTXIENEOAK NEURTZEA

2. artikulua.

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAABFP28.3TVj>



Ordiziako Udala

Foru Aldundiak zerga honentzat jartzen dituen tasa gutxienekoak I. Eranskinean datozen koefizienteak aplikatuz handituko dira.

3. artikulua.

Zerga honena ordaindu behar duten jarduerak egiten diren lokalen edo establezimenduen egoera fisikoa neurtzeko, berriz, 2. Eranskinean adierazitako eskalako indizeak aplikatuko zaizkie, kaleak duen kategoriaren arabera, 2. artikuluan esanda bezala handitutako kuotei.

4. artikulua.

Kuota probintzialesi eta bereziei nahiz Errekargu Foralari ez zaie ez 2. artikuluko koefizienterik (handitze koefizientea) ezta 3. artikuluko indizerik (egoera indizea) erantsiko.

5. artikulua.

3. artikuluan esan dugun indizeak aplikatzeko, bestetik, kategoritan banatuko dira herriko kaleak, plazak eta auzoak. Saillkapena 2. Eranskinean dator.

III.- SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

6. artikulua.

Sortu berri diren enpresek, kuotaren %50eko hobaria izango dute 5 urtetan.

Enpresa berriak 4 enplegu edo gehiago sortzen baditu kuotan %75eko hobaria izango du 5 urtetan.

IV.- ZERGA KUOTA

7. artikulua.

Kuota gutxienekoei 2. eta 3. artikuluen arabera tokatzen zaizkien koefizienteak eta indizeak, nahiz, hala tokatzen bazaie, Errekargu Forala, erantsi eta ateratzen den kuota izango da zerga honen kuota.

V. - ZERGA KUDEATZEKO ARAUAK

8. artikulua.

1.- Badago bidea zerga gestionatzea, kobratzea, biltzea nahiz ikuskatzea Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku uzteko. Hartarako baldintzak, edukiak eta mugak, ordea, Udalbatzak jarriko ditu, eta, nolana ere, hitzarmena egingo da bi erakundeen artean zerga indarrean sartu baino lehen.

2.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira nola erabakiak hala hitzarmenak, izenpetu eta sei hilabete baino lehen. Eta han argitaratuko dira, orobat, hitzarmenen salaketak.

3.- Artikulu honen lehenbiziko lerroaldian esandakoa goiti-beheiti, Foru Aldundiak izango ditu hor adierazitako eskumenak kuota berezietan eta probintzialesetan.


VI.- AZKENEKO ERABAKIA

Ordenantza fiskal hau, koefizienteak, indizeak nahiz 1. eta 2. eranskinetan jasotako kategoriak, kale eta abarrenak (ordenantza baitira koefizienteak, indizeak eta kategoriak ere), 2020ko urtarrilaren lehenetik aurrera indarrean izango dira, harik eta arauak agindutakoa errespetatuz aldatzea edo kentzea erabaki arte.

I. ERANSKINA

Kuota gutxienekoei erantsi behar zaien koefiziente bakarra: 2,20
--

II. ERANSKINA



Ordiziako Udala

- Establezimenduen egoera fisikoa neurtzeko indizea: 1.

3. ORDENANTZA FISKALA,

TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAIKEKO ZERGAREN TASA ZEHAZTEKO ALDERDIRIK NAGUSIENAK ARAUTZEN DITUENA.

I.- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.

Ordiziako Udalak, uztailaren 5eko 14/1989 Foru Arauko 4.4 artikulua ematen dion aginpidez baliatuz –hori baita Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko zergarena arautzen duena–, ERANSKINEAN datorren koefizientea erantsi eta goian esandako artikuluko aurreko atalean adierazitako kuota gutxienekoak jarri ditu.

II.- ZERGA-TASAK

2. artikulua.

Lehenbiziko artikuluan esandako koefizientea erantsi eta eranskinean datozen tarifen arabera kobratuko da zerga honena.

III.- ZERGA KUDEATZEA

3. artikulua.

1.- Urteko egunen arabera kitatuko da zerga honena. Ordainketa egiteko, dena den, orri bat izango da ofiziala, eta hura emango die Udalak bai partikularrei eta baita espedienteak izapidetzen jarduten duten gestoriei ere.

2.- Auto-kitapena aurkeztutako unean berean ordaindu behar da zerga.

4. artikulua.

Zorra ordaindutakoan Udalak ematen duen ordainagiri behin-betikoa izango da zerga honena kitatu izana erakusteko balioko duen agiria.

5. artikulua.

1.- Zerga honena ordaindu izana erakusteko agiria eraman ezean Trafiko Zuzendaritza ez da behean datozen espedienteak egiten hasten.

- a) Automobila bidean ibiltzeko moduan dagoela adierazteko egiaztagiria.
- b) Automobilari baja ematea behin-betiko.
- c) Horiek aldatzea, baldin eta zerga honetako sailkapena aldatzen bada.
- d) Automobila eskuz aldatzea.
- e) Ibilgailua ibiltzeko baimenean adierazitako pertsonaren helbidea aldatzea.

2.- Ordaindu beharreko kuotak ordainduta izana erakusteko agiria derrigorrez eraman behar da, orobat, Trafiko Zuzendaritza automobilari matrikula jartzeko espedienteak egiten hasiko bada.


IV.- KUOTAK ITZULTZEA.

6. artikulua.

Urtea bukatu baino lehen automobilari behin-betiko baja emanez gero, edo behin-behingo kitapena egitekoan behar baino gehiago ordainduz gero, Udalak itzuli egingo dio aldea zergadunari; baina, behin-betiko baja emateko paperak edota matrikula jartzeko paperak ekarritakoan.

V.- HOBARIAK

7. artikulua



Ordiziako Udala

Ibilgailu historikoentzako %100eko hoberia. Ibilgailu historikotzat hartuko dira uztailearen ibilgailu historikoen araudia onartu zuen 14eko 1247/1995 Errege Dekretuan ezartzen diren baldintzak betetzen dituztenak, ibilgailuen azterketa teknikoa arautzen duen urriaren 23ko 920/2017 Errege Dekretuak egin zizkion moldaketak aintzat hartuta beti ere. Ezaugarri hauek guztiak betetzen dituzten ibilgailuak hartuko dira historikotzat:

- Gutxienez 30 urteko antzintasuna izatea fabrikatu eta lehendabiziko matrikulatu zenetik.
- Ibilgailuaren tipo espezifikoak jadanik ez ekoiztea.
- Jatorrizko egoeran mantentzea eta funtsezko aldaketarik ez jasatea bere ezaugarri tekniko edo oinarrizko osagaiei dagokionez, halanola, motorra, balazta, direkzioa, esekidura edo karrozeria.

Kotxe edo moto elektrikoak %95eko hoberia jasoko dute, kotxe hibridoek %50eko hoberia eta Gasakin dabilzaten autoei %30eko hoberia.

Salbuetsitak egongo dira mugikortasun murriztua duten pertsonentzako ibilgailuak, abenduaren 23ko 2.822/1998 Errege Dekretuak, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra onartzen duenak, II. eranskinaren A letran aipatuak, pertsona desgaituen izenean matrikulatuta daudenean.

Era berean, salbuetsita daude 14 zaldi fiskaletik beherako ibilgailuak, baldin eta desgaituen izenean matrikulatuta egonik beraiek ez beste inork erabiltzeko badira.

Salbuespen hau zirkunstantzia horiek betetzen diren artean aplikatuko da, pertsona desgaituek gidatutako ibilgailuak izan nahiz horiek garraiatzeko ibilgailuak izan.

Aurreko bi paragrafoetan aipatutako salbuespenak ibilgailu batengatik bakarrik izango zaizkie aplikagarriak horien onuradun diren subjektu pasiboiei.

Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako, honako hauek hartuko dira pertsona desgaitutzat:

a) Minusbaliotasun maila 100eko 33koa edo handiagoa eta 100eko 65ekoa baino txikiagoa duten pertsonak, mugikortasun murriztuko egoeran badaude. Mugikortasun murriztua dutela ulertuko da abenduaren 23ko 1.971/1999 Errege Dekretuak, minusbaliotasun maila aitortu, ezarri eta kalifikatzeko prozedurari buruzkoak, 3. eranskinean jasotzen duen baremoaren A, B edo C letretako egoeretan sartuta daudenean edo baremo horren D, E, F, G edo H letretan 7 puntu edo gehiago eman zaizkienean


b) Minusbaliotasun maila 100eko 65ekoa edo handiagoa duten pertsonak.
Aurreko a) eta b') letretan aipatutako pertsonak mugikortasun murriztuko A egoeran badaude 1.971/1999 Errege Dekretuak 3. eranskinean jasotzen duen baremoaren arabera, 14 zaldi fiskaleko muga ez zaie aplikatuko, baldin eta ibilgailua gorpil aulkia eramateko egokituta badago.

Salbuetsita daude, baita ere, guraso-ahal, tutoretza edo kuradoretza dela-eta ardurapean minusbaliotasun maila 100eko 65ekoa edo handiagoa duen pertsona bat duten pertsonen jabetzako ibilgailuak. Ibilgailu bat baino gehiago badute jabetzan, ibilgailu bakarrak izango du salbuespena.

Desgaitasuna izateagatik salbuespenaren gozamina eskaera egin eta hurrengo urtetik aurrera hasiko da, kontuan hartuta sortzapena urtarilaren 1ean gertatzen dela.

VI.- AZKENEKO ERABAKIA.

Ordenantza fiskal hau eta bere eranskina 2020ko urtarilaren lehenetik aurrera indarrean izango dira, harik eta arauk agindutakoa errespetatuz aldatzea edo kentzea erabaki arte.



Ordiziako Udala

ERANSKINA TARIFA

Potentzia eta ibilgailu mota	Gutxi gora-beherako koefizientea	Kuota
A) TURISMOAK / TURISMOS:		
9 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	1,60	29,48
9 zaldi fiskaletik 11,99ra bitartekoak	2,23	81,80
12 zaldi fiskaletik 13,99ra bitartekoak	2,46	150,66
14 zaldi fiskaletik 15,99ra bitartekoa	2,41	206,30
16 zaldi fiskaletik 19,99ra bitartekoa	2,51	277,04
20 zaldi fiskal eta gehiagokoak	2,79	376,79
B) AUTOBUSAK / AUTOBUSES:		
21 toki baino gutxiagokoak	2,42	200,97
21etik 50era bitartekoak	2,42	286,22
50 baino gehiagokoak	2,42	357,79
C) KAMIOIAK		
1000kg. baino gutxiagoko zama eramateko modukoak.	2,42	102,01
1.000tik 2.999 kg.ra bitartekoak	2,42	200,97
2.999 baino gehiagotik 9.999 kg.ra bitartekoak.	2,42	286,22
9.999 kg. baino gehiagokoak	2,42	357,79
D) TRAKTOREAK / TRACTORES:		
16 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	2,32	40,96
16 zaldi fiskaletik 25era bitartekoak	2,32	64,40
25 zaldi fiskal baino gehiagokoak	2,32	193,16
E) ATOIAK ETA ERDIATOIAK, TRAKZIO MEKANIKOZKO IBILGAILUEK GARRAIATUAK/		
750 tik 1.000 kg.ra baino gutxiagoko zama eramateko modukoak.....	2,42	42,63
1.000 baino gehiagotik 2.999 kg.ra bitartekoak.....	2,42	67,01
2.999 kg. baino gehiagokoak	2,42	200,97
F) BESTE ERA BATEKO IBILGAILUAK/ OTROS VEHÍCULOS:		
Ziklomotoreak	2,42	10,89
Motoak, 125 c.c. bitartekoak	2,42	10,89
125 c.c. baino gehiagotik 250era bitartekoak	2,44	18,81
250 c.c. baino gehiagotik 500era bitartekoak	2,51	38,72
500 c.c. baino gehiagotik 1.000ra bitartekoak ...	2,60	80,30
1.000 c.c. baino gehiagokoak	2,71	167,09

4. ORDENANTZA FISKALA, ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA.


I.- XEDAPEN OROKORRAK.

1. artikulua.

Ordiziako Udalak, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzeko Foru Arauari nahiz zerga honi buruzko Foru Arauari jarraiki, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zerga jarri eta eskatuko du, ordenantza honetan eta eranskinean datorren eran. Eranskina ere ordenantza da, eta han datoz tarifak.

2. artikulua.

Udalerrri guztian balio du ordenantza honek.



Ordiziako Udala

II.- ZERGA-GAIA.

3. artikulua.

Ordiziako Udalak emandako lizentzia izan beharreko eraikuntza, instalazio edo obraren bat eginez gero kobratuko da zerga hau. Berdin dio lizentzia eskuratuta izatea edo ez izatea.

4. artikulua.

Hona hemen, zerga-gaiak adierazte aldera, zerga izango duten ekintzak:

1. Oina altxatzea dakarren eraikin edo instalazioen bat eraikitzeo obrak egitea.
2. Lehen eginda dauden eraikin edo instalazioak handitzeko obrak egitea.
3. Lehen eginda dauden eraikin edo instalazioak konpontzeko edo eraberritzeko obrak egitea, eraikin edo instalazioaren egiturari erasanez gero obrak.
4. Lehen eginda dauden eraikin edo instalazioen kanpoko itxura aldatzeko obrak egitea.
5. Eraikinen barruetako antolaketa aldatzea, erabiltzen denerako erabiltzen dela ere eraikina.
6. Lurzoruaren Legeko testu bateratuak 58. artikuluko 2. atalean adierazten dituen behin-behingo obrak egitea.
7. Zerbitzu publikoak jartzeko obrak egitea.
8. Lur mugimenduak (esate baterako, mendi kentzeak, zelaitzeak, indusketak eta betelanak), baldin eta urbanizazio edo eraikuntza proiektu onartu edo baimenduan sartuta eta programatuta ez badaude behintzat.
9. Eraikinak botatzea, baldin eta ruina jo eta erortzeko zorian ez badaude behintzat.
10. Lur azpiko instalazioak, bai aparkalekuak jartzeko, bai jarduera industrialak, bai merkataritzakoak edo profesionalak, bai zerbitzu publikoak bai beste edozein erabilera ematen zaiola ere.
11. Bide publikotik ikusteko moduko iragarpen afixak jartzea.
12. Beste edozein obra, eraikuntza edo instalazio egitea, baldin eta halako ahalmen ekonomiko bat eta udalaren lizentzia (dela obretakoa, dela eraikitzeakoa) behar baldin badira egiteko.

5. artikulua.

Ez dago eraikuntza, obra edo instalazioen gaineko zergarik ordaindu beharrik lanak Ordiziako Udalaren ondasunetan egin eta obraren jabea ere Udala bera izanez gero.

Era berean, ez dago obra edo instalazioen gaineko zergarik ordaindu beharrik obraren, eraikuntzaren edo instalazioaren jabea Estatua, Automi Erkidegoa, Lurralde Historikoa edo Toki Erakundea izan eta bideak, trenbideak, portuak, aireportuak, obra hidraulikoak, herrietako eta haietako ur zikinen saneamendua egiteko badira, baita horien gestioa erakunde autonomoren batek egiten badu ere, eta berdin dio obrak inbertsio berriak egiteko edo egindakoei kontu egiteko badira ere.

III.- SUBJEKTU PASIBOAK


6. artikulua.

1. Zerga honen subjektu pasiboak, zergadun gisa, Lurralde Historikoko Foru Arau Nagusiko 35. artikulua adierazten ditun pertsona fisiko edo juridikoak dira, obrak, eraikuntzak edo instalazioak egiten diren ondasunen jabe direnak eta, betiere, obren jabe ere baldin badira; bestela, obraren jabe dena izango da zergadun.

2. Udaleko zerga-biltegiaren aurrean frogatzeko moduan erakutsi ezean obraren jabea eta ondasunaren jabea bi direla, ondasunaren jabea eta obraren jabea bat bera dela joko da.

7. artikulua.

1. Zergadunaren ordezkotik subjektu pasibo izango da lizentzia eskatu nahiz obra, eraikuntza edo instalazioa egiten duena, baldin eta zergaduna bera ez bada lizentzia eskatzen duena edo obra egiten duena.



Ordiziako Udala

2. Edozein moduz ere, Udalak badauka aginpidea zergadunaren izena eta helbidea ekarrarazteko zergadunaren ordekoari.

IV. SALBUESPENAK, MURRIZKETAK ETA HOBARIAK

8. artikulua.

1.- Interes berezi edo udal erabilerarako interesgarritzat jotzen diren eraikin, instalazio eta obrei zergaren kuotan %95eko hobaria emango zaie, beti ere izendapen hori arrazoitzeko behar adina ezaugarri sozial, kultural, historiko-artistiko eta enplegu-sustapenekoak baleude.

2.- Denda berrientzako hobaria ezartzen da jarraian zehazten den moduan:

2.1. Lehendik existitzen ez ziren sektoreetakoak irekitzea: %95

2.2. Lehendik existitzen diren sektoreetan irekitzea: %75

2.3. Lokalak modernizatzea: 50%. Azpiegiturako elementuei eragiten dienean %50 baino gehiago eta goi mailako teknikari baten proiektua beharrezkoa denean, %75eko hobaria aplikatuko da.

3.- Zergaren kuotan %75eko hobaria ezarri, autokontsumorako eguzki-energia berogailu edo argiteriarako sistemak jartzeko kostuaren zatiari dagokionean, beti ere instalazio hori norberak bere borondatez jartzen duenean eta indarrean dagoen araudiak eskatzen ez badu.

4.- 100eko 90era bitarteko hobaria, eraikuntza, instalazio edo obrek pertsona ezinduen irisgarritasun eta habitagarritasun baldintzak errazten dituztenean.

V.- ZERGA OINARRIA

9. artikulua.

1. Zerga honen oinarria eraikuntza, instalazio edo obra egitea egiazki kostatzen dena da, eta subjektu pasiboak edo haren ordekoak jasan beharrekoa.

2. Egiazki zer kostatzen den ikusteko balioko duena interesatuak aurkeztutako aurrekontua izango da, exekuzio materialaren aurrekontua, baldin eta dagokion elkargo ofizialak ikus-onetsia bada behintzat.

3. Lehen esandakoa bezalako aurrekonturik ez bada, edota lizentziarik eskuratu gabeko eraikuntza, instalazio edo obraren bat bada, Udaleko teknikariek erabakiko dute, proiektua zertsu kostatuko den begiratuta, zergaren oinarria zenbatekoa izango den.

VI.- ZERGAREN KUOTA

10. artikulua.

Zerga honen kuota oinarriari tasa aplikatuz ateratzen dena izango da. Tasa, besteik, Eranskinean adierazitakoa izango da.

VII.- SORTZAPENA

11. artikulua.

Zerga ordaindu beharra eraikuntza, instalazioa edo obra egiten hasitakoan bertan jaiotzen da, baita lizentziarik eskuratu ez bada ere.


VIII.- KUDEAKETA

12. artikulua.

Lizentzia emandakoan kitapen behin-behingo bat egingo da, interesatuek ekarritako aurrekontua zergaren oinarritzat hartuta, betiere dagokion elkargo ofizialak ikus-onetsia izanez gero aurrekontua; bestela, Udaleko teknikariek erabakiko dute oinarria, proiektua zertsu kostatuko den begiratuta.

13. artikulua.

Lizentzia eman eta gero hasierako proiektua aldatuz gero, beste aurrekontu bat aurkeztu behar da, hasierako aurrekontutik pasatzen den kopuruaren behin-behingo kitapena egiteko.



Ordiziako Udala

14. artikulua.

1. Egiazki egindako eraikuntzak, instalazioak eta obrak nahiz haiek zer kostatu diren ikusi ondoren, Udalak, dagokion ikuskapen administratiboa eginez, aldatu egingo du, hala tokatzen bada, zergaren oinarria, eta behin-betiko kitapena egin eta ordaintzeko eskatu edo dagokion dirua itzuli egingo dio subjektu pasiboari.

2. Goiko lerroaldian adierazitakoa bideratzeko, berriz, obra bukatu izana edota behin-behingo hartu izana adierazten duen agiria aurkeztu behar da obra bukatu edo behin-behingo hartu eta hilabete baino lehen. Adierazpen hori egiteko orria Udalak berak emango du, eta, horrekin batera, lanen zuzendaritza eraman duenaren ziurtagiria ekarri behar da Udalera, haren elkargo ofizialak ikus-onetsia (ahal izanez gero), obra guztiak egitea zer kostatu den jartzen duena.

3. Baiztatzeko egindako lanak eta aurkeztutako likidazioa bat datorrela, Udalak eskatuko ditu egindako lan horien fakturak.

15. artikulua.

Zerga kitatze konturako berdin izango dira administrazioaren isilbidez emandako lizentziak eta berariaz adierazita emandakoak.

16. artikulua.

Ordenantza honetan araututako zerga honen kitapenari, biltzeari eta ikuskatzeari buruzko guztiari nahiz zerga-arauak hausteari eta tokatzen diren zigorrak jartzeari Zerga Foru Arau Orokorra aplikatuko zaio.

17. artikulua.

Lizentziaren titularrak obrak, eraikuntzak edo instalazioak egiteari utzi egingo balio, nahiz eta egiteko baimena izan, eta uzteko nahia idatziz adieraziko balio Udalari, Udalak itzuli edo baliorik gabe utziko du behin-behingo kitapena.

18. artikulua.

Lizentziaren balioa galduz gero, Udalak itzuli edo baliorik gabe utziko du egindako kitapena, baldin eta titularrak balioa berritzeko eskatu eta Udalak onartzen ez badu behintzat.

IX.- AZKENEKO ERABAKIA

Ordenantza hau eta ordenantza honen eranskina, 2020 urtarrilaren 1ean sartuko dira indarrean eta hala segiko dute harik eta aldatzea edo indarrrik gabe uztea erabaki arte.

ERANSKINA	
TARIFA	
Eraikuntza, instalazio edo obra mota	
	(% Tipoa/Tipo (%))
-Obraren jakinaren gainekoa (gremioen aurrekontua/gutxieneko prezioak)	3,00
--Obra txikiak (gremioen aurrekontuak/gutxieneko prezioak)	4,00
--Obra handiak (exekuzio materialaren aurrekontua)	5,00
--Babespeko etxeak birgaitzea eta merkataritza lokalak modernizatzea.	3,00
--Nekazaritza nahiz abeltzaintza ustiategiak, beren produktuak saltzeko lokalak barne.	3,00
--Babes ofizialeko etxeak eraikitzea alokairurako	3,00
--Babes ofizialeko etxeak saltzeko eraikitzea	5,00

5. ORDENANTZA FISKALA, HIRI-LURREK IRABAZITAKO BALIOAREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA.


I.- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.

Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzeko Foru Arauaren arabera eta zergaren gaineko 16/1989 Foru Arauaren arabera, hiri izaerako Lurren Balioaren gaineko Zerga ezarri eta eskatzen du Udalak.

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAABFP28.3TVj>

Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus



Ordiziako Udala

II.- XEDAPEN OSAGARRIAK

2.artikulua.- Hobariak

Kuotaren %75eko hobaria jartzea "mortis causa" ohiko etxearen transmisioa seme-alabei, seme-alaba ordekoiei, senar-emazteei, gurasoei edo guraso ordezkoei burutzen zaienean.

Aurreko kasuan, transmititzen den etxebizitza jasotzen duten pertsonen ohiko etxebizitza baldin bada, hobaria %95eko izango da.

Hala ere, aurrena Udalak onartu behar du hobaria izateko eskubidea.

3.artikulua.- Kudeaketa

3.1.- Zergagatiko dagokion aitortpena ekarri beharko dute subjektu pasiboek Udal Administrazioaren aurrera, bertan emango dien eredu ofizialaren arabera; bertan azalduko dira zerga-harremanaren elementu guztiak azalduko dira, baita kuota zehazteko beharrezko diren gainerako datuak ere, kuota hori aitortpena aurkezteko egintza berean ordaindu beharko da.

3.2.1.- Aitortpenarekin batera inposaketa sortzen duten egintza edo kontratuak azalduko dituen behar bezala kautotutako agiria ekarri beharko da eta hori, derrigorrezkoa izango da.

3.2.2.- Eskatuko diren salbuespen edo hobariak ere agiriz arrazoitu beharko dira.

3.3.- Zergaren likidazioa egiteko beharrezkotzat jotako beste agiri batzuk eska dakieke hogeita hamar eguneko epean Udal Administrazioak interesatuei, eta interesatuak hala eskatuz gero, beste hamabost egunez luza daiteke epe hori. Epe horietan eskatutakoak gauzatzen ez dituztenek dagozkion lege-hauste eta zerga-isunak hautsiko dituzte, agiri horiek aitortpena egiaztatze beharrezkoak direnean behintzat. Agiri horiek interesatuak alegatutako egoerak bere buruaren alde egiaztatze baliabide badira bakar bakarrik, errekerimendua ez betetzeak likidazioa erabakiko du, alegatutako eta ez arrazoitutako egoerei batere jaramonik egin gabe.


3.4.1.- Udal Administrazioak aitortpenean sartu gabeko zergapeko egitateak egin direla jakin izan badu, 13 artikuluan aipatutako epeen barruan aitortpen hori gauza dezaten eskatuko die interesatuei, hautsi lezaketen zergaren arau-hausteen kalterik gabe, eta, hala balegokio, dagozkion isunen kalterik gabe.

3.4.2.- Aurrez ikusitako errekerimenduak Udal Administrazioak egin eta gero, interesatuek dagokion aitortpena aurkeztuko ez balukete, ofiziozko espedienteari ekingo litzaioke, bere esku izandako datuekin, eta dagokion likidazioari ekingo litzaioke; eta, hala balegokio, komeni diren errekursoak jartzeko epeak azalduko lirateke, hautsirako zerga-arauen eta dagozkion isunen kalterik gabe.

III. AZKEN XEDAPENA.

Ordenantza hau eta Eranskina 2020ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean, eta aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte jarraituko du indarrean.

ERANSKINA	
PORTZENTAJEEN LAUKIA	
ALDIA/ PERIODO	URTEKO PORTZENTAJEA / PORCENTAJE ANUAL
a) 1etik 5 urtera.....	3,36
b) 10 urte arte.....	2,85
15 urte arte.....	2,75
c) 20 urte arte.....	2,75
Hasta 20 años.	
TARIFA.	
KARGA-TIPOA / TIPO DE GRAVAMEN.	
%7,54	
O.I.	
ALKATEA,	IDAZKARIA



Ordiziako Udala

6. ORDENANTZA FISKALA

ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA EKINTZA ADMINISTRATIBOAK EGITEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUENA.

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.-

Entitate lokal honek, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauari jarraiki, Eranskinean zehazten diren tasak ezarri eta exijitzen ditu zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatik. Ordenantza honetan adierazten diren arauen arabera ezarri eta exijitzen dira tasa horiek, eta haren barruan geratzen dira jasota.

2. artikulua.-

Ordenantza hau entitate lokalaren lurralde eremu osoan aplikatuko da.

II. ZERGAGAIA

3. artikulua.-

Administrazio Lokalaren aldetik zerbitzu bat eskaintzeak edo jarduera bat burutzeak eratzten du zergagaia, dela eskatua izan delako, dela partikularren egintza edo hutsegiteen ondorioz zeharka probokatu delako.

III. SUBJEKTU PASIBOA

4. artikulua.-

1.- Honako hauek izango dira, zergadun bezala, subjektu pasiboak: pertsona fisikoak zein juridikoak, eta Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak 33. artikuluan aipatzen dituen entitateak, zerbitzu edo jarduerak eskatzen dituztenean edo haien onura edo eragina jasotzen dutenean.

2.- Zergadunaren ordezkotzat hartuko dira:

a) Etxebizitza edo lokalen okupatzaileei onura edo eragina dakarkieten zerbitzu edo jarduerengatik ezarritako tasetan: higiezin horien jabeak. Horiek, hala dagokienean, onuradun desberdinei jasanarazi ahal izango dizkiete kuotak.

b) Suhiltzaile zerbitzuengatik, aurrien prebentzioagatik, eraikuntza eta eraipen zerbitzuengatik, salbamendukoengatik eta, oro har, pertsona eta ondasunak babesteko zerbitzuengatik ezarritako tasetan, zerbitzuaren mantenimendua barne, arriskuaren entitate edo sozietate aseguratzaileak.

c) Lurzoruari eta hiri antolaketari buruzko araudian jasotako hirigintza lizentziak emateagatik ezarritako tasetan: obren eraikitzaileak edo kontratistak.

5. artikulua.-


Tasak ordaintzera behartuta daude:

a) partikularren eskariz egindako zerbitzu edo jardueren kasuan, eskaera egin dutenak.

b) partikularrek eskatu ez baina, horien egintza edo hutsegiteengatik, derrigorrezkoak gertatu diren zerbitzu edo jardueren kasuan, egintza edo hutsegite horiek leporagarri dituztenak.

6. artikulua.-

Ordenantza honetatik eratorritzen diren zerga zorretan, subjektu pasiboarekin batera, tarifak aplikatzeko arauetan aipatzen diren pertsonak ere erantzungo dute.



Ordiziako Udala

IV. OINARRI EZARGARRIA

7. artikulua.-

Oinarrizko ezargaria zerbitzua gauzatzen den unitate bakoitzak eratzten du, Eranskinean jasotakoaren arabera.

V. KUOTA

8. artikulua-

1.- Zerga kuota tarifa bat, espreski erabakitako kopuru finko bat edo, bestela, bi prozedurak batera erabiliz finkatuko da, Eranskinean ezarritakoaren arabera.

VI. SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

9. artikulua-

1.- Zerbitzua edo jarduera egiten denean sortzen da tasa.

VII. LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

10. artikulua.-

Administrazio Lokalak kontzeptu bakoitzaren likidazioa egingo du, eta likidaturiko kopurua eskudirutan ordainduko da Eranskinak exakzio bakoitzerako ezartzen dituen arau partikularrei jarraituz.

VIII. TASEN KUDEAKETA

11. artikulua.-

Ordenantza honetan arautzen diren tasak likidatu, bildu eta ikuskatzeari dagokion guztian, eta, halaber, zerga urrapenak kalifikatu eta kasu bakoitzean dagozkien zigorrak ezartzerakoan, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrean jasotakoa aplikatuko da.

IX. AMAIERAKO XEDAPENA


Ordenantza hau, eta bere Eranskina, 2020ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta aldatu edo indargabetzea erabakitzen ez den artean jarraituko du indarrean.

AUTOTAXI ETA ALOKAIRUKO GAINERAKO IBILGALUEN BAIMEN ADMINISTRATIBOKO LIZENTZIAK EMATEA

	Euro /
A) Lizentzia ematea, igortzea eta erregistratzea	
Lizentzia bakoitzeko /:	
1.- A motakoak	105,06
2.- B motakoak	129,05
3.- C motakoak	131,82
B) Ibilgailuak ordezkatzeko	
1.- A motakoak	25,69
2.- B motakoak	32,19
3.- C motakoak	38,81
C) Lizentzia eskualdatzea	
1.- Lizentzia eskualdatze bakoitzagatik	2.625,20
2.- Lizentzien eskualdaketa (mortis causa, 1. graduako senitartekoei)	104,77

Tarifa aplikatzeko arauak./ Normas de aplicación de la tarifa.

- 1.- Tasa honen ordaindu beharra lizentzia emateko unean berean esijitu daiteke
- 2.- Automobil arinen bidezko Garraio Zerbitzu Hirikoa, nahiz Hiriartekoa arautzeko Araudi nazionalean izen bera dutenak dira A, B eta C motakoak. /



Ordiziako Udala


LURZORUARI BURUZKO LEGEAREN 178. ARTIKULUAK ESKATZEN DITUEN LIZENTZIAK EMATEA ETA HIRIGINTZA ESPEDIENTEAK IZAPIDETZEA.

HIRIGINTZAKO BAIMENAK	
OBRA-BAIMENAK	TARIFA €
OBRA TXIKIAK	
3.000,00 € bitarteko aurrekontua	25,34
3.000,01 – 6.000,00 € bitarteko aurrekontua	44,5
6.000,01 – 18.000,00 € bitarteko aurrekontua	102,94
18.000,01 – 30.000,00 € bitarteko aurrekontua	196,27
30.000,01 – 60.000,00 € bitarteko aurrekontua	247,33
60.000,01 – 120.000,00 € bitarteko aurrekontua	494,66
120.000,01 € gainditzen duten aurrekontuentzat obra handien tasak aplikatuko dira	

GUTXIENeko AURREKONTUAK	
<p>Obra txikietan aurkezten diren aurrekontuak jarraian doan taulako gutxieneko kostu estimatuen azpitik daudenean, aurrekontu horiek xehatuak izan beharko dute. Obra baimena emateko udal teknikariek ontzat eman beharko dituzte, eta lanak amaitu ondoren dagozkion fakturak aurkeztu beharko dira, eta udal teknikariek ikuskapena burutuko dute egindako lanak aurkeztutako aurrekontuarekin bat datozela ziurtatzeko. Baldintza horiek bete ezean taula honetako gutxieneko kostuetatik eratorzen dena hartuko da oinarri ezargarri bezala.</p>	
Sukaldearen eraberritze integrala	6.000,00
Bainugelaren eraberritze integrala	5.000,00
Bigarren bainugelaren eraberritze integrala	3.000,00
Galdara eta berogailu instalazioa	4.000,00
Kanpo aroztegia osoa	6.000,00
Etxebizitzaren eraberritze integralaren aurrekontu minimoak 500 €/m ² -ko gutxieneko kostua gainditu beharko du, katastroan azaltzen den azalera erabilita.	

OBRA HANDIAK	TARIFA €
ERAIKUNTZA BERRIEN OBRA BAIMENAK	
120.000,00 € bitarteko aurrekontua	1.008,73
120.000,01 – 600.000,00 € bitarteko aurrekontua	2.017,46
600.000,01 – 2.000.000,00 € bitarteko aurrekontua	3.026,19
2.000.000,01€ gainditzen duen aurrekontua	7.407,30

OBRA BAIMENAK	TARIFA €
3.000,00 € bitarteko aurrekontua	81,29
3.000,01 – 6.000,00 € bitarteko aurrekontua	119,45
6.000,01 – 60.000,00 € bitarteko aurrekontua	356,85




Ordiziako Udala

60.000,01 – 120.000,00 € bitarteko aurrekontua	535,28
120.000,01 – 600.000,00 € bitarteko aurrekontua	2.017,46
600.000,01 – 2.000.000,00 € bitarteko aurrekontua	3.026,19
2.000.000,01€ gainditzen duen aurrekontua	7.407,30

LEHEN ERABILERA KO BAIMENAK	%
Eraikin eta oro har instalazioen lehen erabilera ko baimenak ehunekotan, eraikuntza, instalazio eta obren zergan lortutako baimenaren zenbatekoaren gainean	15
HIRIGINTZA KO ESPEDIENTE TRAMITAZIOA	
HIRIGINTZA GESTIO KO DOKUMENTU BAKOITZEKO:	TARIFA €
Exekuzio unitateen mugaketa	2.745,00
Urbanizazio proiektuak	
Birpartzelatze proiektuak	
Gainerako antzekoak	
Plan partziala	2.191,18
Plan berezia	2.191,18
Xehetasun azterlana	1.952,12
Hirigintza partzelazioak	356,85
Kontsultak eta hirigintza zedulak	142,55

LIZENTZIA BEHAR DUTEN JARDUERA SAILKATUAK		
	JARDUERA SAILKATUEN BAIMENAK (3/98 LEGEKO II.A ERANSKINA)	TARIFA €
4,5,6, 13,14	Industriak, tailerrak eta biltegiak	
	100,00 m2 arte	1.585,60
	100,01m2 eta 500,00m2 artean	1.852,20
	500,01m2 eta 1.000,00m2 artean	2.117,60
	1.000,01m2 eta 2.000,00m2 artean	2.468,80
	2.000,01m2 eta 2.500,00m2 artean	2.766,40
	2.500,01m2tik gora	3.333,60
8	Gasolindegia	791,35
15	Diskoteka, dantzaleku eta antzekoak	3.120,00
15	Pub eta 3. Taldeko tabernak	1.728,00
16	Osteleritza, jatetxeak	2.135,90
16	Jolas aretoak	8.017,00
17,18	Nekazaritza ustiapenak	190,30
9,19	Instalazio osagarriak	207,50
	Jarduera aldaketa edo zabalkuntzarik gabeko titulartasun aldaketan, tarifaren erdia likidatuko da.	
AURRETIAZKO KOMUNIKAZIOA DUTEN JARDUERA SAILKATUAK		



Ordiziako Udala

	JARDUERA SAILKATUEN BAIMENAK (3/98 LEGEKO II.B ERANSKINA)	TARIFA €
2	Industriak, tailerrak eta biltegiak	
	100,00 m2 arte	791,35
	100,01m2 eta 300,00m2 artean	917,97
	300,01m2 eta 500,00m2 artean	1.046,48
	500,01m2 eta 1.000,00m2 artean	1.192,99
	1.000,01m2 eta 2.000,00m2 artean	1.360,01
	2.000,01m2 eta 2.500,00m2 artean	1.550,41
	2.500,01m2tik gora	1.767,47
3	Dendak	414,95
5	Garajeak	414,95
6,7,13	Zerbitzuak	594,80
8	Jatetxeak, elkarte gastronomikoak	1.848,00
8	2 taldeko taberna eta kafetegiak	1.585,60
8	Kafetegiak, degustazioa, izozkiak etab. (alkohol salmentarik gabe)	1.175,20
8	Gainerakoak	1.175,20
9	Abeltzaintza-ustiategi txikiak	190,30
10,11, 12	Instalazio osagarriak	207,05
	Jarduera aldaketa edo zabalkuntzarik gabeko titulartasun aldaketan, tarifaren erdia likidatuko da.	

EXEKUZIO AGINDUAK		TARIFA €
	OBRA TXIKIAK	284,71
	OBRA HANDIAK	
	12.000,00 euro arteko aurrekontua	591,40
	12.000,01 euro baino aurrekontua handiagoa	1.774,19


Tarifa aplikatzeko arauak

1.- Tasa honena ordaindu beharra lizentzia emateko unean berean edota lizentzia ordaintzea dagokionak eraginda Udalak hirigintza espedienteak, nahiz jarduketak onartzen dituen unean esijitu daiteke

UDAL HILERRIKO ZERBITZUAK

Euro

Kontzeptua	Laneguna/	Jaieguna
1.- Hilobiratzeko lana	453,97	540,44
2.- Panteoian hilobiratzeko lana	345,87	432,36
3.- Kolunbarioetan hobiratzea (10 urterako)	225,51	
4.- Errautsen lurperatzea /	276,48	
5.- Errautsen lorperatzea (panteoia albotik irekitzen dena) /	212,68	
6.- -Borondatez hobitik ateratzea* (panteoia eta hilobia) /	336,17	
7.- Horma hezurtegia (10 urterako kontzesioa barne) /	144,12	




Ordiziako Udala

8.- Panteoia egiteko terrenoa ematea (50 urte) /	4544,01
9.- Gorpuzkin kutzak /	28,39
10.- Izena aldatzeko tramitazioa /	62,36
11.- Hilerrria mantentzeko (hilobia/urteko)	17,81
12.- Hilerrri mantentzeko (panteoi/urteko)	35,63
13.- Ehorzketak eta desehorzketak hilobietan	86,44

- * Eskaera interesatuak egiten duenean, borondatezkoa dela ulertuko da.
- Aurreikusi gabeko lan bat egiten denean, horren kostua onuradunari kenduko zaio.
- Kolunbariotik ateratzea ez da kobratuko.
- Gorpua hobitik ateratzea ofizioz, ez da kobratzen.

HONDAKINEN TASA

	Euro / urteko: :
Etxebizitza edo lokal hutsa	108,78
Etxebizitza betea	135,96
Komertzio eta zerbitzu orokorrak, 300,00m ² arte	293,28
Komertzio eta zerbitzu orokorrak, 300,01m ² edo gehiago	481,77
Hondakin organikoa sortzen duten elikadura dendak eta okindegi-gozotegiak	400,10
Arraindegiak	135,96
Supermerkatuak, jakien biltegiak eta antzekoak, salmenta-gunearen azalera 200,00m ² arte	908,97
Supermerkatuak, jakien biltegiak eta antzekoak, salmenta-gunearen azalera 200,01 m ² edo gehiago eta 400,00m ² arte dituenean	1.817,94
Supermerkatuak, jakien biltegiak eta antzekoak, salmenta-gunearen azalera 400,01 m ² edo gehiago dituenean /	3.635,88
Hipermerkatuak /	10.907,63
Jatetxeak, erretegiak, sagardotegiak, antzekoak /	815,79
Tabernak sukaldearekin /	628,90
Tabernak, kafetegiak, kantinek eta antzekoak (sukalderik gabe) /	419,27
Kultura eta kirol elkarte gastronomikoak /	654,51
Bulegoak, despatxu profesionalak, irakaskuntza akademiak, eta antzekoak 150,00m ² arte /	199,16
Bulegoak 150,01m ² edo gehiago /	398,33
Banketxe, aurrezki kutxa etab. /	418,24
Hotel, pentsio, nekazalturismo eta antzekoak 10 logela arte /	475,88
Hotel, pentsio, nekazalturismo eta antzekoak 11-20 logela artekoa	693,42
Hotel, pentsio, nekazalturismo eta antzekoak 20 logelatik gora /	992,54
Osasun zentroak 5 kontsulta bitartekoak /	271,93
Osasun zentroak 5-10 kontsulta bitartekoak /	543,86
Osasun zentroak 10 kontsultatik gorakoak	1.087,72
Zaharren egoitza /	3.500,00
Haur eskolak eta eguneko zentruak /	271,93
Industria tailerrak 300,00m ² arte /	363,10
Industria tailerrak, 300,01-600,00m ² artean /	458,83
Industria tailerrak 600,01 m ² eta 2.500,00 m ² artean /	779,00
Industria tailerrak 2.500,01 m ² -5.000,00m ² artean/	1.811,83
Industria tailerrak 5.000,01m ² tik gora /	4.745,73



Ordiziako Udala

Hondakin organikoa sortzen duten industriak 600,00 m ² arte /	688,25
Hondakin organikoa sortzen duten industriak 600,01m ² eta 2.000,00m ² artean / <i>Industrias que generan residuos orgánicos entre 600,01m² y 2.000,00m²</i>	1.363,25
Hondakin organikoa sortzen duten industriak 2.000,01m ² edo gehiago / <i>Industrias que generan residuos orgánicos igual o superior a 2.000,01m²</i>	4.582,00
Ikastetxeak jangelarekin / <i>Colegios con comedor</i>	815,79
Lanbide eskola jangelarekin / <i>Escuela Profesional con comedor</i>	902,16
Unibertsitatea jangelarekin / <i>Universidades con comedor</i>	902,16
Ikerketa zentruak / <i>Centros de investigación</i>	779,00
Enpresa inkubategiak / <i>Empresas incubadoras</i>	779,00

Tarifa aplikatzeko irizpideak

-Kuota urtekoa eta zatiezina izango da, etxebizitzaren kasuan. Gainerako kasuetan, urtean zehar izan diren jabeen artean hilabeteka proportzionalki banatuko da

-Etxebizitza bat okupatutzat hartzen da, biztanleen erroldan hala agertzen bada, biztanleen erroldak, bizilagunaren betebeharrak ez betetzeagatik, beste bitarteko batzuek ezagutzen ez duten etxebizitza edo lokalaren okupazio-egoerarik jasotzen ez duenean izan ezik

-Etxebizitzaren jabeak edo erabiltzaileak ekainaren 30a baino lehen aldatuz gero, urte horretako erroldan sartuko dira, eta haiei kitatuko zaie tasa. Bigarren seihilekoan egindako aldaketak hurrengo urteko erroldan sartu eta handik aurrera hartuko dira kontuan.

-Hutsik dauden lokal komertzialek eta etxebizitza hutsek berdin hartuko dira

-Enpresa, establezimendu eta industria txikiarentzat, eta bakarrik Sasietako Mankomunitateak jasotzen ez duen zabor mota kontuan izanik, honi dagokion Garbiguneko faktura deskontatu ahalko da beti ere kontuan izanik gutxieneko zabor-tasa dagokionaren %50a izango dela

- Garajeek 0,00 euro

- Trasteroek 0,00 euro


- Udalak badauka bidea etxe batean bizi diren bizilagun guztiei batera kitatzeko zerbitzu honen tasa

- Autokonpostajea egiten dutenek zaborren tasen %70eko ordainduko dute, baina edukiontzi organikoa hilabetean behin baino gehiagotan zabalitzen bada txartelarekin ez da hobaria aplikatuko

MATERIALAK ALOKATZEA

JAIETAKO MATERIALA ERRENTAN EMATEKO	Euroak
Hesi metalikoak /	5,07€ uni./astea
Egurrezko Hesiak /	4,53€ uni./astea
PVC-ko mahaia /	8,06€ uni./eguneko
Azokako mahaia /	5,04€ uni./eguneko
Aulkiak /	0,83€ uni./eguneko
Azoka postuak (4x2) /	22,36€ uni./eguneko
Fruitu saltokia (metro linealagatik)	7,47€ uni./eguneko
Karpa txikia (3x2)	26,48€ uni./eguneko
Karpa handia (4x3.5)	37,36€ uni./eguneko
Danborrak	6,02€ uni./eguneko
Kupelak /	7,47€ uni./eguneko
Oholtza /	15,00€ m2./eguneko
Sukalde handia	60,32€ uni./eguneko
Sukalde txikia /	18,03€ uni./eguneko
Bide-seinaleak	6,02€ uni./eguneko

Alokaturiko materialean sortu litezkeen kalte edota galtzea, eskatzaileak ordaindu beharko ditu.



Ordiziako Udala

Materialaren garraioa Ordiziako Udalak burutzen baldin bada, kamionaren eta kamioi-gidariaren orduko kostua 143,80€-koa izango da. Ordiziako Udal langile gehiago beharrezkoak izanez gero, orduko kostu gehigarria 25,35 €-koa izango da.

Materialaren eskaera Zumarraga, Beasain, Lazkao, Tolosa, Zaldibia edota Idiazabalgo Udalek burutzen dutenean, tarifak %100 murriztuko dira, Ordiziako Udalarik burutzen dioten doaineko materialaren lagapenagatik.

Ordiziako irabazi asmorik gabeko elkarte eta tokiko entitateei, eta udal aholkularitzarako kontseiluko partaideei, eta bestelako elkartei, beti ere tokiko interesako erregistroan izena emandakoak, (Gizarte Ongizatea, kultura, kirola etb) zero eurotako tarifa aplikatuko zaie, materialak alokatzeagatik, beti ere dagokion saileko aldeko irizpenarekin.

Muntaketa eta desmuntaketa lanengatik orduko eta langileko 50 euro kobratuko dira. Honako hauek salbuetsita egongo dira: Ordiziako irabazi asmorik gabeko elkarte eta tokiko entitateei, eta udal aholkularitzarako kontseiluko partaideei, eta bestelako elkartei, (Gizarte Ongizatea, kultura, kirola etb) zero eurotako tarifa aplikatuko zaie, beti ere dagokion saileko aldeko irizpenarekin

AGIRIAK EMATEA.	
Konpultsatzea	Lehenengo 5 orrialdeak0,00 euro/ orrialdeko Hurrengoak.....0,15 euro/ orrialdeko
Informazio kartografikoa	9,33 euro/euskarri digitala edo dagoen kartografiako orrialde bakoitza.

ARRISKUTSUAK IZAN DAITEZKEEN ANIMALIAK EDUKITZEKO ARAUBIDEAREN 50/1999 LEGEAREN 3. ARTIKULUA ESKATZEN DUEN BAIMENA EMATEKO JARDUERA.

Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko baimena eta Arriskutsuak izan daitezkeen animalien erregistroan izena eman	30,56 euro
Berritzea edo baimena ematea / <i>Licencia o renovación de la misma</i>	20,84 euro

Arriskutsua izan daitezkeen txakurra edukitzeko baimena emateko garaian, eta arriskutsuak izan daitezkeen animaliak Erregistroan izen-emateko txartela bidaltzeko unean tasa hau ordaintzeko betebeharra eskatuko da.

- Halaber, baimena berritzeko garaian ere eskatuko da..

GARABIA, ZEPOA ETA UDAL IBILGAILU GORDELEKUA

Garabia zerbitzua	113,32 euro
Zepoa /	25,76euro
Ibilgailu gordelekua	15,46euroeguna


GAZTE TXOKOA. EUSKARA ERREFORTZU SAIOAK ETORRI BERRIENTZAT

Haur txokoko euskara errefortzu	10,00 euro
---------------------------------	------------

HERRI ANTZOKIA

Lau hileko abonua	26,00 euro
Sarrera orokorrak	5,00 euro
Haurtzako sarrerak	3,50 euro

Film-emanaldia 3D-an baldin bada, sarrerak euro batean igoko dira.



Ordiziako Udala

7. ORDENANTZA FISKALA

UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO PROBETXAMENDU BEREZIAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA.

I- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.-

Entitate lokal honek, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauari jarraiki, Eranskinean zehazten diren tasak ezarri eta exijitzen ditu udal jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo probetxamendu bereziagatik. Ordenantza honetan adierazten diren arauen arabera ezarri eta exijitzen dira tasa horiek, eta haren barruan geratzen dira jasota.

2. artikulua.-

Ordenantza hau entitate lokalaren lurralde eremu osoan aplikatuko da.

II- ZERGAGAIA

3. artikulua.-

Udal jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo haren probetxamendu berezia da zergagaia.

III- SUBJEKTU PASIBOA

4. artikulua.-

1.- Honako hauek izango dira, zergadun bezala, subjektu pasiboak: pertsona fisikoak zein juridikoak, eta Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak 33. artikuluan aipatzen dituen entitateak, baldin eta beren onura partikularrerako gozatu, erabili edo aprobetxatzen badute modu berezian udal jabari publikoa, uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzkoak, 20.2 artikuluan jasotzen dituen kasuen arabera.

2.- Espaloietan egokitutako ibilgailu sarrerak modu pribatiboan erabiltzeagatik edo haien probetxamendu bereziagatik ezartzen diren tasetan eta, oro bat, sarrera horiek eraiki, mantendu, aldatu edo kentzekoetan, zergadunaren ordezkotzat hartuko dira ibilgailuen sarrera horiei sarbidea ematen dieten finka eta lokalen jabeak. Horiek, hala dagokienez, onuradun desberdinei jasanarazi ahal izango dizkiete kuotak.

3.- Estatua, autonomia elkarteak eta entitate lokalak ez daude behartuta tasak ordaintzera herri jabariaren erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziarengatik, zuzenean ustiatzen dituzten komunikazio zerbitzu publikoen probetxamenduetan eta, bereziki, herritarren segurtasunarekin edo defentsa nazionalarekin zer ikusia duten guztietan.

5. artikulua.-

Tasen ordainketa lizentziak beren izenean jasotzen dituztenek egingo dute, eta horien ezean, probetxamenduaren onuradun direnek.

IV- OINARRI EZARGARRIA


6. artikulua.-

Oinarri ezargarrria udal jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo probetxamendu berezia gauzatzen den unitate bakoitzak osatzen du, Eranskinean jasotakoaren arabera.

V- KUOTA

7. artikulua.-

1.- Zerga kuota tarifa bat, espresuki erabakitako kopuru finko bat edo, bestela, bi prozedurak batera erabiliz finkatuko da, Eranskinean ezarritakoaren arabera.



Ordiziako Udala

2.- Erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziak udal jabari publikoa suntsitu edo hondatzen duenean, onuradunak, behar den tasari aurre egiteaz gainera, osorik itzuli beharko ditu berreraikuntza edo konponketa gastuen kostuak, eta haren zenbatekoa aldez aurretik ordaindu.

Kalteak konponezinak badira, udalak kalteordain bat jasoko du. Suntsitutako ondasunen pareko balioa izango du, edo bestela, kaltetutako ondasunen zenbatekoarena.

Entitate Lokalak ezingo ditu barkatu, ez osorik ez zati batean, apartatu honetan aipatzen diren kalteordainak edo diru-itzulketak.

VI- SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

8. artikulua.-

1.- Udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziagatik exijitzen den tasa hurrengo uneetan sortuko da zergagaiaren izaeraren arabera: erabilera pribatiboa edo probetxamendu berezia hasten denean, eta orduan zenbateko osoa edo haren zati bat aurrez ordaintzea exijitu daiteke, edota, bestela, jarduketari edo espedienteari hasiera ematen dion eskaera aurkezten denean; jarduketa ez da egingo edo espedientea ez da izapidatuko dagokion ordainketa egiten ez bada.

2.- Tasaren izaera materialak sortzapena aldizkakoa izatea exijitzen duenean, sortzapen hori urte bakoitzeko urtarilaren 1ean gertatuko da eta zergaldiak urte naturala hartuko du. Erabilera pribatiboa edo probetxamendu berezia hasi edo uzten denean, ordea, zergaldia zirkunstantzia horretara egokituko da, eta kuotan dagokion hainbanaketa egingo da Eranskinean ezarritakoari jarraituz.

3.- Jabari publikoa erabili edo aprobeatzeko eskubidea burutu edo gauzatu gabe geratzen bada subjektu pasiboarekin zer ikusirik ez duten arrazoiengatik, dagokion zenbatekoa itzuliko zaio.

VII- LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

9. artikulua.-

Entitate Lokalak kontzeptu bakoitzaren likidazioa egingo du, eta likidaturiko kopurua eskudirutan ordainduko da Eranskinak exakzio bakoitzerako ezartzen dituen arau partikularrei jarraituz.

VIII- TASEN KUDEAKETA

10. artikulua.-

Ordenantza honetan arautzen diren tasak likidatu, bildu eta ikuskatzeari dagokion guztian, eta, halaber, zerga urrapenak kalifikatu eta kasu bakoitzean dagozkien zigorrak ezartzerakoan, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrean jasotakoa aplikatuko da.


IX- AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau, eta bere Eranskina, 2020ko urtarilaren 1ean jarriko da indarrean, eta aldatu edo indargabetzea erabakitzen ez den artean jarraituko du indarrean.

ERANSKINA TARIFAK

ESPALOIAK ETA PASABIDEAK PASATUZ ORUBEETARA IBILGAILUAK SARTZEA /

<i>Euro</i>	
Espaloi eta ibietatik zehar finketara ibilgailuak sartzeko Ibilgailuko 5 ibilgailu arte /	22,46
Ibilgailuen sarrera. /	
Ibilgailuko 5 ibilgailu baino gehiago (*)	11,23
Ibiak, metro linealeko/urtea /	
1. Eremua	21,48
2. Eremua	21,48
3. Eremua	17,18
4. Eremua	13,97



Ordiziako Udala

Tarifa aplikatzeko arauak.

1.- Garaje partikular edo kolektiboetara sartzeko izanez gero tarifa normala kobratuko da, hau da, %100a.

2.- Zer automobil edo ibilgailu den ere kontuan izango da tasa kobratzeko orduan. Bi sailetakoak izango dira:

Lehenbiziko sailean legez 2.500 kg. baino gutxiagoko karga eramateko moduko ibilgailuak edo furgonetak izango dira.

Bigarren taldean merkantziak edo bidaiariak garraiatzeko ibilgailuak sartzen dira, baimendutako gehienezko karga 2500 kg baino gehiagokoa denean, kasu honetan aplikatu beharreko tasa ibilgailuak lokalera sartzeko espaloia zeharkatu behar dutenean %25 haziko da.

3.- Sarrera automobilak pasatzeko berariaz prestatuta (espaloia altuera jaituta edo espaloia materiala aldatuta) duenak ere eskuarki ordaindu behar denaren %25 ordaindu behar du.

4.- Espaloia pasatu beharrik gabe sartzea, tarifaren erdi prezioa ordaindu behar da.

Espaloia jaituta, materiala aldatuta edota samurrago sartzeko espaloia erabat kenduta egonez gero, espaloia aldatuta dagoela joko da.

Etxadiaren bukaeran, etxe ertzetan daudenak espaloirik gabeko sarreratzat joko dira.

5.- Kuota. Orube batean ate bat baino gehiago izanez gero, ate bakoitzak kuota bat, osoa, ordaindu beharko du, nahiz eta urte guztian egunero sarrera edo pasoa ibili ez. Hala, ate bat egoteak paso edo sarrera bat esanahi du edozein gauzatarako.

6.- Kuotak urtekoa hartuko du. Udalak, edozein moduz ere, badauka eskubidea (administrazio lana samurrago egiteko) hiru hilean behin edo egoki jotzen duen aldi behin kobratzeko kuota hau, beste zerga edo tasa batzuekin batera edo aparte.

7.- Zenbat automobil diren erabakitzeko garajeak kabitzen dituenak kontatuko dira.

8.- Pasabidearen edo ibiaren titularrak, berriz, derrigor jarri behar du udalak emandako seinalea, udalak ordaindu eta gero jasoko duena.

(*) Bost ibilgailu baino gehiago egonez gero, lehenengo bostek 22,46 euro ordaindu beharko dituzte ibilgailuko eta gainerakoek 11,23 euro ibilgailuko.

ZAMALANETARAKO EMAKIDA BEREZIAK / CONCESIONES ESPECIALES CARGA Y DESCARGA

Euro


1 eremua / Zona 1	
Okupazioa metro linealagatik.	22,86
2. eremua / Zona 2	
Okupazioa metro linealagatik /	22,86
3. eremua / Zona 3	
Okupazioa metro linealagatik /	5,74
4. eremua / Zona 4	
Okupazioa metro linealagatik /	3,38

BITRINAK, PORTADA APAINGARRIAK, TOLDOAK ETA MARKESINAK.

Bide publikora ateratzen direnak	Euro /
1. eremua.- m ² edo zatikiko urtean /	9,91
2. eremua.- m ² edo zatikiko urtean /	9,91
3. eremua.- m ² edo zatikiko urtean /	8,30
4. eremua.- m ² edo zatikiko urtean /	7,87
Eranskinak / Adosados	
1. eremua.- m ² edo zatikiko urtean	5,14
2. eremua.- m ² edo zatikiko urtean /	4,54
3. eremua.- m ² edo zatikiko urtean /	4,39

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAABFP28.3TVj>

65



Ordiziako Udala

4. eremua.- m ² edo zatikiko urtean /	4,10
--	------

ESTABLEZIMENDUZ KANPO PRODUKTUAK ERAKUSTEKO / EXPOSICION DE PRODUCTOS FUERA DEL COMERCIO

m ² ko eta hiruhileko	14,23 euro
----------------------------------	------------


AZOKA EDO HERRI JAIETAKO SALTOKIAK / PUESTOS EN FERIAS O FESTEJOS POPULARES

		Euro	
m ² eta eguneko orokorrean		2,19	
m ² ko hiruhilekoa		15,08	
Baserritarak: / <i>Baserritarras</i>			
- mahai bat/urteko /		20,93	
- mahai erdi bat/urteko		10,45	
AZOKA BEREZETAN SALTOKIAK JARTZEKO /	<u>Euskal Jaiak /</u>	<u>Eguberrietako Azoka /</u>	<u>Ardoaren azoka eta Artzain eguna /</u>
Txorizo, talo eta ogitartekoak saltzeko / <i>Venta de talos y bocadillos de chorizo.</i>	243,27 euro/egun	194,63 euro/egun	145,98 euro/egun
Gainerako saltokiak (eztia, hegaluzea, patea, pipar, poteak, eta.)/	14,69 euro/m.l./egun	14,69 euro/m.l./ egun	
Arboledan gazta saltzeko postuak (Idiazabal Gazta Lehiaketan parte hartzen duten artzainak zero euro ordainduko dute)/	14,69 euro/m.l./egun		
Artisautza (Udalak erabakiko du zeintzuk diren talde honetan sartzekoak) /		0,00	

UDALERRIKO KALEEN ZORUA, AIREA EDOTA LUR-AZPIA NORBERARENTZAT ERABILTZEA EDO PROBETXU BEREZIA KENTZEA. /.

Lurra: / Suelo :	
Ostalaritzako aulki eta mahaitxoak (4 aulkiko mahai bakoitzeko). Urte Osoa.	76,30
Ostalaritzako aulki eta mahaitxoak (6 aulkiko mahai bakoitzeko) . Urte Osoa.	81,75
Ostalaritzako aulki eta mahaitxoak (2 aulkiko mahai altu bakoitzeko) .Urte Osoa	54,50
Sillas y veladores de hostelería (2 aulkiko mahai baxu eta barrika bakoitzeko)Urte osoa	67,00
Mahiak eta aulkiak okupazioa Herriko Jaietan, 4 aulkiko mahaiko eta eguneko	5,56
Mahiak eta aulkiak okupazioa Herriko Jaietan, 6 aulkiko mahaiko eta eguneko	5,57
Mahiak eta aulkiak okupazioa Herriko Jaietan, 2 aulkiko mahai altuko eta eguneko	3,72
Mahiak eta aulkiak okupazioa Herriko Jaietan, 2 aulkiko mahai baxuko etabarrikako eta eguneko)	4,56
Tabernak, txurrosaltoki, tiraketa-postu, etab. m ² ko eta eguneko	1,13
Loteria saltokia, m ² ko eta eguneko	1,13
Zirko eta beste ikuskizun batzuk jartzea astea /	339,95€
Helikopteroak lur hartzea	618,10€ eguna/
txonetak eta Puzgarriak (haur jolasak) (*)0 € beti ere beraien tarifa udalarekin adosten bada. Umeen tarifa adosten ez bada 40€/ eguna	0
Puxikak saltzea	15,60€/eguna
Obrak: / Obras:	
Egitura metalikoko okupazioa, bere azpian oinezkoentzako pasabidea utziz. m ² ko eta eguneko /	0,13
Lanen eremua erabat isteko hesi altua duen okupazioa, m ² ko eta eguneko /	0,22
1,5 metro baino gutxiagoko hesi metalikoko okupazioa, m ² ko eta eguneko /	0,40
Hesirik gabeko okupazioa, m ² ko eta eguneko /	0,62

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAABFP28.3TVj>



Ordiziako Udala

Kontenedorekin okupazioa, eguneko /	2,15
Herri Zaharrean etxeak egiteko kalea okupatzea /	%25 tarifa
Kutxazain automatikoekin m2 eta eguneko, aprobetxamendu berezia.	2,06€/m2/eguna
“Vending” makinaren aprobetxamendua berezia /	1,28/m2/eguna

*Establezimenduaren fatxadan kartela jarriko da, irekitzeko ordutegiarekin eta kanpoan zenbat mahaitxoak jartzeko baimena duten adierazteko.

Tarifa aplikatzeko arauak.

- 1.- Udalak sustatutako obra denean ez dago prezio publiko horiek ordaindu beharrik.
- 2.- Paso gutxiko bideetan tarifaren erdi prezioa ordaindu beharko da.
3. Herriko Jaietan kalean mahaiak eta aulkiak jarri nahi badira, aparteko eskabidea egin beharko da, hau da, urte osorako egiten denaz gain beste bat. Gainera, uda partean jarritakoak baino gehiago badira Herriko Jaietan, alde hori kobratuko da.
- 4.- Mahaiak eta aulkiak: Ezarritako tarifak %70an aplikatuko dira erdigunetik kanpo dauden tabernei. Erdigunea zein kontsideratzen den planoan prestatu da.
5. Salbuespen hori ez da etxeak berritzen direnean aplikatzen.

UDALERRIKO KALEEN ZORUA, AIREA EDOTA LUR-AZPIA NORBERARENTZAT ERABILTZEAK EDO PROBETXU BEREZIA KENTZEA, HORNIKUNTZA ZERBITZUAK USTIATZEN DITUZTEN LANTEGIEK EGITEN DUTENA.

Herri guztiari edo jende multzo handi bati zerbaiten gairen batez hornitzeko zerbitzua ustiatzen duen lantegiak Udalerriko kaleen zorua, airea edota lur-azpia norberarentzat erabiltzeko nahiz probetxu berezia kentzeko ordaindu behar duen prezioa lantegi horrek udalerrian urtean fakturatzen duenetik ateratako sarrera gordinaren %1,5 izango da.

Horretarako, honakoak hartuko dira hornidura-zerbitzuen enpresa ustiatzailatzat:

- d) Argindarra, ura edo gasa hornitzen duten enpresak.
- e) Jendearentzako telekomunikazio zerbitzuak ematen dituzten enpresak, baldin eta udal bide publikoen lurzoruan, zorupean edo hegalduran erabilera pribatiboz edo aprobetxamendu bereziz instalatutako telekomunikazioko sare publikoak, osorik edo zati batean, erabiltzen badira.
- f) Hornidura-zerbitzuak ematen dituen beste edozein enpresa, baldin eta horiek emateko udal lurzorua, hegaldura edo zorupea hartzen duten hodiak, kableak eta gainerako instalazioak erabiltzen badituzte.


Artikulu honetan jasotakoaren ondorio horietarako, zerbitzu horien enpresa ustiatzaileen artean zerbitzu horiek banatu eta merkaturatzen dituztenak sartuko dira.

Tarifa aplikatzeko araua.

1.- Lantegiak adierazpena aurkeztu behar dio Udalari urtearen aurreneko lau hilabeteak joan baino lehen. Aurreko urtean udalerrian egindako hornikuntzatik lortutako sarrera gordinen gaineko xehetasunak eman behar ditu adierazpenean.

a) Era berean, lantegiaren kontabilitateari buruzko laburpena eta Udalak eskatutako beste edozein agiri edo dokumentu ekarri beharko dizkio adierazpenarekin batera lantegiak Udalari.

b) Horrekin erabaki eta kitatuko du Udalak, behin-behingo, tokatzen den prezio publikoa. Kitatu eta 5 urte pasa baino lehen ere, ordea, Udalak badauka kitatutako prezioa zuzentzeko eskubidea. Behin bost urte horiek pasatutakoa, behin-betiko kitatutzak joko da tarifa.



Ordiziako Udala

8. ORDENANTZA FISKALA HAUR ESKOLAREN UDAL ZERBITZUAGATIKO TASA ARAUTZEN DUENA

1. ARTIKULUA: XEDEA

Haur Eskolaren Udal Zerbitzua erabiltzeagatiko tasa arautzea da Ordenantza honen xedea.

2. ARTIKULUA.-

Tasak Zerbitzua erabiltzen dutenek ordaindu beharko dituzte.

3. ARTIKULUA.-

Tasaren kopurua Ordenantzan honen 4., artikuluan dagoen Tarifagatik ateratzen dena izango da, Famili-Unitatearen dirusarreraren arabera.

4. ARTIKULUA.- TARIFAK

1. tarifa 259,24 euroak/hileko
2. tarifa 295,30 euroak/hileko
3. tarifa 307,32 euroak/hileko
4. tarifa 325,35 euroak/hileko
5. tarifa 225,00 euroak/hileko

Erabiltzaile bakoitzak ordaindu beharreko tarifa zehazteko, famili-unitatearen segidako dirusarrerak izango dira kontuan:

1. tarifa 15.626,31 euroak baino gutxiago
Tarifaren %100 ordainduko da diru-sarrerak gehieneko kopuruaren berdina direnean, eta azpitik dauden kasuetan berriz, tasa proportzionalki jaitsiko da, gehieneko kopuruarekiko diru-sarrerak jaisten diren proportzio berean.
2. tarifa 15.626,31tik 22.387,70 euroak arte
3. tarifa 22.387,70 tik 23.138,97 euroak arte
4. tarifa 23.138,97 euroak baino gehiago
5. tarifa soilik goizeko ordutegiko erabiltzaileak

5. ARTIKULUA.- FAMILI UNITATEAREN KONTZEPTUA

Ezkontzaz edo ezkontza antzeko harreman iraunkorreko beste harreman modu batez osatutako elkarbizitza unitatea da Famili Unitatea.

6. ARTIKULUA.- DIRUSARREREN ZURIKETA

Famili Unitatearen dirusarrerak segidako agirien bidez zurituko dira:


- 1.- Eskuera aurretiko hilabetearen nominen kopia.
- 2.- Derrigorrez Errenta Aitorpena egin behar dutenen kopia, eskaera aurretiko urteari dagokiona.
- 3.- Beste dirusarreraren egiaztagiriak.

7. ARTIKULUA.-

Zerbitzua erabiltzen den hasten den une berean hasiko da Ordenantza honetan araututako tasak ordaintzeko betebeharra.

Behin zerbitzuaren erabiltzaileak matrikulatu ondoren, dagokion seihilabetekoari dagozkien tarifak ordaindu beharko ditu, epe hori bukatu aurretik uzten badute ere.

Seihilabeteko horrek abuztua hartzen ez badu, hilabete horri dagokion proportzioa ere ordaindu beharko dute.



Ordiziako Udala

8. ARTIKULUA.-

Udal Administrazioak tasa hauengatiko zorrak premiabidez eskatuko ditu, hala badagokio.

9. ARTIKULUA.-

Ordenantza honetan araututako Tasaren likidazio, dirubilketa eta gainbegiratze lanetarako, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean aurrikusitakoa aplikatuko da.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau, behin betirako onartu ondoren, GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean, gero egindako beste Ordenantza batek aldatu edo derogatzen ez duen bitartean.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:


10.- 2019 aurrekontuaren kreditu gehigarriaren behin-behineko onarpena (Kredituak aldatzeko espedientea: 2019 Kreditu Gehigarriaren Modalitatea).

Proposamena

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu egitea, ondoko proposamenean adierazten den moduan. Udal honetako aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Beraz, premiazkoa da kredituak aldatzeko espedienteari hasiera ematea, proposamenean zehazten den kopuruan kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko. Horregatik, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan jasotakoaren arabera, hau ebatzi dut:


Kreditu gehigarrien espedientea hastea, aipatutako xedapen horretan jasotako erregulazioarekin bat etorriz. Proposatzen diren kreditu aldaketak ondorengo hauek dira:

GASTUEN PARTIDA	AZALPENA	KREDITUAK		
		EGUNGOAK	ALDAKETAK	BEHIN BETIKOAK
1.1100.500.01.929.00	KREDITU GLOBALA	0	452.708,64	452.708,64
230.01.132.00 (3429)	DIETAK. UDALTZAINGOAK	1.500,00	2.500,00	4.000,00
212.01.133.00 (3060)	MAK.MANT.TRESN. TRAFIKO KONTROLA	8.000,00	6.000,00	14.000,00
226.99.133.00 (3323)	HAINBAT GASTU. TRAFIKO KONTROLA	2.000,00	5.500,00	7.500,00
213.01.135.00 (3097)	BABES ZIBILEKO IBILGAILUEN MANTENUA	1.000,00	1.000,00	2.000,00
221.99.135.00 (4196)	BABES ZIBILEKO MATERIAL BEREZIA	250,00	200,00	450,00
222.01.135.00 (3237)	BABES ZIBILEKO KOMUNIKAZIO TELEF.	130,00	110,00	240,00
224.02.135.00 (3264)	BABES ZIBILEKO ASEGURUAK	850,00	120,00	970,00
221.02.136.00 (3172)	UR KONTSUMOA. SUHILTZAILEAK	203,40	500,00	703,40
221.01.165.00 (3152)	ARGINDARRA. ARGITERIA	142.910,66	5.000,00	147.910,66
226.06.170.00 (3293)	INGURUMEN JARDUERAK	1.441,48	10.000,00	11.441,48
227.07.170.00 (3410)	KONTR. LAGUNT. TEKNIKOA.	18.730,48	9.900,00	28.630,48
227.07.171.20 (3411)	AZTERLAN TEKNIK. OIANGU	17.892,89	8.000,00	25.892,89



Ordiziako Udala

226.09.231.00 (4222)	ETORKINEN BEHATOKIA / ONGI ETORRI ESKOLARA	5.000,00	27.065,00	32.065,00
226.99.241.00 (3951)	ENPLEGU SUSTAPENA. FORMAKUNTZA	57.658,54	7.690,00	65.348,54
117.01.326.10 (3364)	GARBIKETA. E.P.A.	0,00	6.800,00	6.800,00
226.97.334.00 (4278)	KIROL EKITALDIAK	0,00	5.000,00	5.000,00
226.98.334.00 (4240)	ORDIZIA 750. URTEURRENA	5.000,00	44.000,00	49.000,00
227.99.334.00 (4241)	KULTURLAB	0,00	36.021,95	36.021,75
226.99.335.00 (3338)	EUSKARA SUSTAPENA	72.000,00	11.200	83.200,00
226.98.338.10 (3316)	HAINBAT GASTU, ZAINDARIAREN JAIK	24.408,00	3.661,00	28.069,00
226.99.338.10 (3340)	ZAINDARIAREN JAIK	84.139,26	5.000,00	89.139,26
222.01.430.00 (4271)	TELEFONOAK	0,00	760,00	760,00
226.98.430.00 (4247)	SINGULAR DENDA	2.904,00	100,00	3.004,00
226.91.431.10 (3310)	ARTZAIN EGUNA	20.340,00	7.700,00	28.040,00
226.92.431.10 (3311)	ERDI AROKO FERIA	10.353,84	4.400,00	14.753,84
227.01.442.00 (3372)	GARBIKETA. GARRAIOAK	1.989,85	900,00	2.889,85
224.01.912.00 (3261)	ASEGURUAK	14.100,27	24.600,00	38.700,27
226.99.912.00 (3347)	HAINBAT GASTU. GOBERNU ORGANUAK	1.017,00	25.000,00	26.017,00
227.06.912.00 (4346)	HAUTESKUNDEETAKO GASTUAK	0,00	4.500,00	4.500,00
231.01.912.00 (3452)	DIET.GARR. GOB. ORG.	39.866,40	3.000,00	42.866,40
227.01.920.00 (3373)	GARBIKETA. ADMIN.OROKOR.	7.932,60	2.500,00	10.432,60
227.04.920.00 (3405)	ZERBITZUEN KONTRATUAK	15.270,88	18.629,40	33.900,28
227.99.920.00 (3428)	ITZULPEN ZERBITZUAK	6.102,00	6.000,00	12.102,00
369.01.931.00 (3455)	GASTU FINANTZARIOAK. ADMIN.	305,10	120,00	425,10
400.01.334.00 (4348)	DIRULAGUNTZAREN ITZULKETA	0,00	12.000,00	12.000,00
421.01.162.10 (3458)	EKARP. SASIETA	827.446,00	39.872,09	867.318,09
422.01.912.00 (3463)	EKARP. EUDEL	1.528,07	1.476,99	3.005,06
470.01.241.00 (3470)	EKARP. GOIEKI. ENPLEGU SUST.	100.023,20	1.190,36	101.213,56
471.03.430.00 (4248)	ORDIZIAN HITZARMENA	43.785,00	1.010,00	44.795,00
471.01.491.00 (3475)	LAGUNTZAK KOMUNIKABIDEEI	19.017,90	1.800,00	20.817,90
481.01.241.00 (3850)	TRANSF. GOIERRIKO HERRIEN EKINTZA	43.650,00	544,00	44.194,00
481.01.335.000 (3494)	TRANSF. EUSKARA SUSTAPENA	4.671,00	2.400,00	7.071,00
481.02.335.00 (3999)	GOIZTIRI AEK	5.491,80	510,00	6.001,80
481.05.335.00 (4002)	EUSKARAZKO EGUNKARIA GOIERRIKO HITZA	20.441,70	355,00	20.796,70
481.02.912.00 (3506)	TALDE POLITIKOEI TRANSF.	22.211,28	7.000,00	29.211,28
601.06.153.00 (3945)	ZORU LABAINGARRIENTZAT TRATAMENDUA	2.000,00	8.000,00	10.000,00
601.06.153.20 (4202)	HERRIAN ASFALTATZE LANAK	97.000,00	38.000,00	135.000,00
622.01.920.00	ADMINISTRAZIO BULEGOAK	0	20.000,00	20.000,00
623.01.912.00	BIDEO-AKTA SISTEMA PLENO ARETOA EGOKITZEA	0	40.000,00	40.000,00
623.01.171.10	HAUR PARKEEN BERRITZEA	0	30.000,00	30.000,00



Ordiziako Udala

623.01.933.00	UDAL ETXEBIZITZA EGOKITZEA	0	40.000,00	40.000,00
781.01.241.00 (4269)	GOIERRI HERRIEN EKINTZA FUND.INBERTSIOAK	30.809,00	443,00	31.252,00
GUZTIRA /TOTAL		1.781.371,60	990.787,43	2.772.158,83

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa /
a)	420.01.000.00 (50)	UDAL FINANTZAKETARAKO FUNTSA – FORU ALDUNDIA	990.787,43
FINANTZAKETA GUZTIRA / FINANCIACIÓN TOTAL			990.787,43

KODEEN AZALPENA: Sarrera berri edo handiagoak. 2019ko urriaren 1eko Antolamendu Batzordearen aldeko irizpenarekin, honako akordio hau onartzea proposatzen da

AKORDIO PROPOSAMENA

- 1) Hasierako onarpena ematea, **990.787,43€**-ko kreditu-aldaketari, kreditu gehigarri modalitatean.
- 2) Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean jendaurrean jartzea, erreklamazioak aurkezteko 15 egun baliodunetan.

Epe horretan inolako erreklamaziorik egon ez den kasuan, akordio hau behin betikotzat jotzea, osoko bilkuran beste erabaki bat hartu beharrik gabe.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jaunak esan du 2019ko aurrekontua luzatutako aurrekontua dela, eta kreditu-aldaketa proposatu du; kreditu-modalitate gehigarri hori 990.787,43 €-koa izango da, urte amaiera arte aurreikusten diren gastuei aurre egiteko.


Partida guztien egoera aztertu da sailka, urtea amaitzeko zenbat diru behar den jakiteko.

Kreditu globala izeneko partida sortzen dela esan du, eta I. kapitulua aurtengo ekainaren 30era arteko gastuak kontuan izanda kalkulatu da. 70.000 € falta ziren urtea amaitzeko. Langileen soldatetarako %5 eko igoera eta jubilazioen primak ere sartu dira kontzeptu honetan. Gainera, gastu handiagoak daude, arduraldi eskusiboko karguen kopurua aurreko legealdikoa baino handiagoa delako; aldi baterako izendapen bat dago, baina lanaldi erdiarekin, eta zinegotzi hautetsien dietak eta asistentziak; horien kopurua 13tik 17ra igaro da egungo legealdian.

Osoko bilkurak kreditu gehigarri bat onartzea proposatu da, gero tokiko gobernu-batzarrak behar dituen kreditu-transferentziak egin ahal izateko.

Gainerako partiden igoerak azaldu ditu.

Santamaria jaunak esan du kreditua aldatu beharra luzatutako aurrekontuaren ondorioa dela, baina galdera bat egin nahi du horri buruz. Zehazki, honako hauek izan ditu galdegai: audioakta ezartzeko IZFEren proiektua. Bestalde, hurrengoak proposatu ditu kreditu aldaketa honetan txertatzeko: gaixotasun arraroak dituzten familientzako laguntzetarako gizarte-zerbitzuetan 10.000.-€ko partida, larrialdi klimatikoko tokiko planerako 18.000.-€ko finantzaketa, aisialdiko baratzeak handitzeko 22.000.-€ eta osasun-zentroa handitzeko obrak gauzatzeko onartutako partida berreskuratzea, 120.000.-€kin. Bere iritziz inbertsio horiek gehitu beharko lirarteke.



Ordiziako Udala

Alkate jaunak erantzun dio aipatutako puntu horiek guztiak kontuan hartuko direla 2020ko aurrekonturako.

Analizatu beharrekoa da zergatik iritsi garen egoera honetara.

Sukia andrearen iritziz, aurrekontua egokitu behar da, nahitaezko egokitzapena gaizki kudeatutako aurrekontu luzatu baten ondorioz.

Politikariek eta teknikariek egindako ahalegina eta lana balioesten ditu, baina kontzeptuagatik ezin dute ia 1.000.000 euroko desbideratzea onartu.

Dubreuil jaunaren iritziz, pramatikoa izan behar da, eta hemendik urte bukaerara egoera konpondu behar da.

Partida zehatz bati buruz galdetu du: enplegua sustatzeko aldi baterako kontratazioei, EKIMENA programari eta Gureakekin egindako hitzarmenari buruzkoa.

Alkatea jaunak erantzun egin dio.

EAJ-PNV taldeak egindako Inbertsio proposamena bozkatzea

Aldeko botoak: 7 (EAJ-PNV)

Kontrako botoak: 9 (Ordiziako EH-BILDU 7, Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak 2)

Abstentzioak: 1 ((PSOE)PSE-EE(PSOE) 1))

Ez da onartu proposamena

Aurrekontu aldaketaren proposamena bozkatzea

Aldeko botoak: 15 (Ordiziako EH-BILDU 7, EAJ-PNV 7, (PSOE)PSE-EE(PSOE) 1))

Kontrako botoak: 2 (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak 2)

Abstentzioak: 0

Alkate jaunak, ondorioz, gehiengoz onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

11.- 2018ko kontu orokorraren onarpena

Proposamena

Kontuen Batzorde Bereziak 2019ko ekainaren 12an egindako bileran 2018ko Aurrekontu Orokorraren aldeko txostena egin zuen.


Aldeko txostena jendaurreko erakusketan egon da 2019ko ekainak 20ko 116 zenbakidun G.A.On, eta ez da erreklamaziorik, erreparorik edo oharrik aurkeztu.

2019ko irailaren 24ean Kontuen Batzorde Bereziak behin betiko egin du Kontu Orokorraren txostena, erakusketa publikorako epea igaro eta erreklamaziorik, erreparorik edo oharrik aurkeztu ez denean.

Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuak arautzen dituen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 63.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, ondorengoa aurkezten da Osoko Blikuran onartzeko:

AKORDIO PROPOSAMENA

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAABFP28.3TVj>



Ordiziako Udala

2018ko Aurrekontuen Kontu Orokorra Onartzea.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Abierto el turno de intervenciones por parte del Sr. Alcalde se producen las que sucintamente a continuación se recogen:

Alkate jaunak azaldu du 2018ko Kontu Orokorra Kontuetako Batzorde Berezian aztertu zela eta aldeko irizpena eman zitzaiola, eta ezarritako epean egon zela erakusketa publikoan. Aipatutako epean ez da erreklamaziorik edo alegaziorik aurkeztu eta berriro 2019ko irailaren 24ko Kontuetako Batzorde Berezian aldeko irizpena eman dio, eta ondoren osoko bilkurara eraman da bertan onartzeko.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldekoak: 15 (Ordiziako E.H- Bildu 7, EAJ/PNV 7, (PSOE)PSE-EE(PSOE) 1)

Votos en contra: Aurkakoak: 2 (Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak 2)

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena gehiengoz onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

12.- Majori Kiroldegiko inbertsioa onartzea.

Proposamena

2019ko urtarrilaren 23an, Udalbatza Osoak aho batez onartu zuen finantziario kreditu-aldaketa bat egitea, hain zuzen ere, errugbi-zelaiaren belarra ordezkatzeko.

Inbertsioa 350.000 eurokoa zen.


Gaur egun eta proiektua amaituta, 92.431,01 euroko soberakina dago. Kopuru horrekin Majori Kiroldegia, S.L.rentzako kirol-ekipamendua erosi nahi da, eta, beraz, inbertsioaren xedearen aldaketa onartu behar da.

92.431,01€-ko kreditu egokia eta nahikoa dagoenez, Majori Kiroldegia, S.L.-k dagokion partida egokitu beharko du, Ordiziako Udalak inolako kreditu-aldaketarik onartu beharrik ez duelarik izango.

Hori ikusita eta 2019ko urriaren 1eko Antolaketako Informazio Batzordeak aldeko irizpena emanda, honako hau proposatzen da

AKORDIO PROIEKTUA

Majori Kiroldegia, S.L.ri kirol-ekipamendua hornitzeko, 2019ko urtarrilaren 23an onartutako inbertsioaren xedearen aldaketa onartzea, 92.431,01 €-ko zenbatekoagatik.



Ordiziako Udala

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jaunak jakinarazi du ez dela inbertsioa onartzea bere horretan, inbertsioa osoko bilkurak onartu baitzuen bere garaian.

Kontua da 92.431,01 €ko soberakina beste xede baterako erabili nahi dela, eta beraz, beharrezkoa da osoko bilkurak inbertsioaren xedea aldatzea onartzea, hau da, soberakinaren erabilera kirol ekipamendua erosteko izatea.

Bolinaga jaunak esan du orain arte Majori Kiroldegiari eragiten zioten gaiak, eta osoko bilkuran aztertzen zirenak, aldez aurretik sozietatearen Administrazio batzordean aztertzen zirela.

Alkate jaunak baietz erantzun dio, arrazoia duela eta datorren astean Administrazio Batzordearen deialdia egingo duela garrantzi handia duten gaiak aztertzeko.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldekoak: 17 (E.H. BILDU 7, EAJ/PNV 7, Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak 2, (PSOE)PSE-EE(PSOE) 1)
Aurkakoak: 0
Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

13.- 2019rako Plantilla organikoaren aldaketa


Proposamena

Toki Entitateen Oinarriak Arazten dituen 1985ko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90. artikulua eta Euskal Funtzio Publikoko 6/89 Legearen 20. artikulua zehazten duenaren arabera, Udaleko osoko bilkurari dagokio urtero Aurrekontuak onartzea, eta funtzionarioen, langile finko eta aldi baterako langileen lanpostu guztiak bateratzen dituen langileen plantilla.

Aipatutako arautegia betetzeko eta dauden aurrekariekin, azterketa eta justifikatzeko agiriekin, 2019ko otsailaren 28ko osoko bilkuraren akordio bidez hasierako izaerarekin onartu zen 2019 ekitaldirako plantilla organikoa. Akordioa behin betiko onartu zen 2019ko maiatzaren 27ko GAOko iragarki bidez.

Une honetan, Plantillan izan diren aldaketak direla eta, Plantilla Organikoan Legearen arabera aldaketa egin behar da eta onarpenean egin behar diren izapideak egin behar dira aldaketarako.

Hori guztia ikusita eta 2019ko urriaren 1eko Antolakuntzaren Informazio Batzordearen aldeko irizpenarekin, ondorengo proposatzen da:



Ordiziako Udala

AKORDIO PROIEKTUA

Lehena.- 2019 urteko ekitaldirako Plantilla Organikoa hasieraz onartzea, Udal honetako langile funtzionarioei dagozkien plazak dituen, eta erabaki honen Eranskin gisa doana.

Bigarrena.-Espedientea jendeaurrean jartzea, hamabost lanegunez, dagozkion erreklamazioak era iradokizunak aurkeztu ahal daitezen, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik zenbatzen hasita.

Hirugarrena.- Agiri hauek behin betikoz onartutzat ematea, erreklamaziorik aurkezten ez bada.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Idazkari andreak argitu du euskaraz dagoen Plantilla Organikoaren Eranskinean aldi bateko izendapena duten langileak gehitzea falta dela, eta gaztelerazkoan azaltzen dela.

Alkate jaunak aldaketak zeintzuk diren azaldu du. Orokorrean plantilla egokitu behar da zenbait lanpostu hutsik dagoelako (jabearen jubilazioagatik, heriotzagatik edo bestelako arrazoiengatik).

Gainera kontuan izan behar da 2019ko uztailaren 23ko osoko bilkuran aldi baterako izendapena sartzea erabaki zela, konfiantzazko kargu batena, Komunikazioko Arduradunarena, zuzenean Alkatezaren menpe dagoena, eta horrek ere Plantilla Organikoan azaldu behar du.

Sukia andreak adierazi du proposamenaren aurka bozkatuko dutela plantillan dagoen bitartekotasun handia murrizteko eskaera aspalditik eskatzen ari direlako eta nahiz eta denbora igaro ez da ikusten horretarako neurririk hartu denik.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldekoak: 15 (Ordiziako E.H. Bildu 7, EAJ/PNV 7, (PSOE)PSE-EE(PSOE) 1)

Aurkakoak: 2 (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak 2)

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena gehiengoz onartutzat jo du.




Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

14.- 2019rako Lanpostu Zerrendaren aldaketa.

Proposamena

Toki Entitateen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90.2 artikulua eta Euskal Funtzio Publikoko Legearen 14. artikulua zehazten duenaren arabera, Udaleko osoko bilkurari dagokio lanpostu zerrenda onartzea, aurrekontuetan aurreikusitako guztiak jaso beharko ditu, funtzionarioak, langile finkoak eta aldi baterako langileak bereiziz.



Ordiziako Udala

Aipatutako araudia oinarri harturik, Idazkaritza eta Kontuhartzailtza Sailak 2019ko lanpostuen zerrenda eratu zuen, 2019ko otsailaren 28ko osoko bilkurak hasierako izaeraz onartu zuena eta behin betiko onartu zena 2019ko maiatzaren 27ko GAOko iragarki bidez.

Une honetan, Lanpostuen zerrendan izan diren aldaketak kontuan izanik, Legean oinarritutako aldaketa egin behar da, eta onarpenerako beharrezkoak izan ziren izapideak egin behar dira aldaketa egiteko.

Hizkuntz normalizazio plangintzarako 86/1997 Dekretuak eta Euskal Funtzio Publikoaren 6/89 Legeak zehaztutakoaren arabera, hizkuntz eskakizunak eta derrigortasun-data lanpostuen zerrendan finkatuta egon behar dute.

Hau guztia kontuan izanik, eta 2019ko urriaren 1eko Antolakuntzaren Informazio Batzordearen aldeko irizpenarekin, honakoa proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

Lehena.- 2019 urteko ekitaldirako Lanpostu Zerrenda hasieraz onartzea, Udal honen zerbitzura dauden lanpostu guztiak barnean dituen, aurrekontu-dotazioak dituztela, erabaki honetako ERANSKIN ereduaren dagoen bezala.

Bigarrena.- Espedientea jendeaurrean jartzea, hogeitaz lanegunez, dagozkion erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal daitezen, dagozkion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik zenbatzen hasita.

Hirugarrena.- Lanpostuen Zerrenda behin betikoz onartutzat ematea, erreklamaziorik aurkezten ez bada.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Sr. Alcalde al igual que en el punto anterior, explica que modificaciones osn las que proceden en la Relación de Puestos de Trabajo y además d elas señaladas en el punto anterior, añade que en la R.P.T. ha de reflejarse la modificación que alguno de los puestos (Aparejador/Responsable de Servicios) conlleva, previa propuesta de la Comisión de Valoración de Puestos de Trabajo.

Sra. Sukia dice que votarán en contras por el mismo motivo argumentado en el punto anterior.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldekoak: 15 (Ordiziako E.H. Bildu 7, EAJ/PNV 7, (PSOE)PSE-EE(PSOE) 1)


Aurkakoak: 2 (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak 2,)

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena gehiengoz onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:



Ordiziako Udala

15.- Ekintza humanitarioentzako larrialdietarako laguntza.

Proposamena

ASOCIACION SALVAMENTO MARITIMO HUMANITARIO - SMHek dirulaguntza eskaera aurkeztu du "MayDayTerraneo Aita Mari Zubia proiektua" ekintza aurrera eramateko.

Ordiziako udaleko garapenerako lankidetzeta-programa arautzen duen araudia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2012ko abuztuaren 21ean argitaratua, eta araudiko bigarren kapituluan arautzen den "Ekintza gizatiarrentzako larrialdietarako laguntzak" ikusita.

2019ko urriak 1eko ongizate eta osasunaren batzorde informatiboaren aldeko irizpenarekin, honakoa onartzea proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

1.- ASOCIACION SALVAMENTO MARITIMO HUMANITARIO - SMH erakundeari 2.000,00€ko dirulaguntza ematea proposatzen da "MayDayTerraneo Aita Mari Zubia proiektua" ekintza aurrera eramateko.

2.- Akordio honen ziurtagiria SUSTAPEN MINISTERITZARI bidaltzea.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Abierto el turno de intervenciones por parte del Sr. Alcalde se producen las que sucintamente a continuación se recogen:

Alkate jaunak jakinarazi du puntu honetan Gizarte Zerbitzuetako eta Osasun arloko Informazio Batzordean bigarren puntua gehitzea proposatu zela, eta bertan jasotzen zela osoko bilkurak erabakitzen duen ebazpena Sustapen Ministeriora bidali behar zela.

Osoko bilkurak erabaki du akordio proposamenaren azalpen zatiko bigarren puntuak horrela idatzita joan behar duela:

"Akordio hau Sustapen Ministeriora bidaliko da, Itsas Salbamenduko Elkartearen burutzen ari den lana errazteko."

Beraz, proposamena horrela idatzita geratzen da:

Por lo tanto la propuesta queda redactada de la siguiente forma:


Proposamena

ASOCIACION SALVAMENTO MARITIMO HUMANITARIO - SMHek dirulaguntza eskaera aurkeztu du "MayDayTerraneo Aita Mari Zubia proiektua" ekintza aurrera eramateko.

Ordiziako udaleko garapenerako lankidetzeta-programa arautzen duen araudia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2012ko abuztuaren 21ean argitaratua, eta araudiko bigarren kapituluan arautzen den "Ekintza gizatiarrentzako larrialdietarako laguntzak" ikusita.

2019ko urriak 1eko ongizate eta osasunaren batzorde informatiboaren aldeko irizpenarekin, honakoa onartzea proposatzen da:

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAABFP28.3TVj>



Ordiziako Udala

AKORDIO PROIEKTUA

1.- ASOCIACION SALVAMENTO MARITIMO HUMANITARIO - SMH erakundeari 2.000,00€ko dirulaguntza ematea proposatzen da “MayDayTerraneo Aita Mari Zubia proiektua” ekintza aurrera eramateko.

2.- Akordio honen ziurtagiria SUSTAPEN MINISTERITZARI bidaltzea Asociación de Salvamento Maritimo Humanitario erakundeak egiten ari den lana errazteko.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldekoak: 17 (E.H. BILDU 7, EAJ/PNV 7, Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak 2, (PSOE)PSE-EE(PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

16.- Floreaga HIEn Babes Publikoko etxebizitzak sustatzeko hirigintza hitzarmena izenpetzea.

Proposamena

2019ko maiatzaren 23an udaleko osoko bilkurak, ohiko deialdian, beharrezkoa zen gehiengo absolutuarekin, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren eta Ordiziako Udalaren arteko hirigintza hitzarmena onartu zuen, 13-Floreaga HIEn babes publikoko etxebizitzak sustatzeko.

GAOn eta Udaleko webgunean erakusketa publikoan egon zen hitzarmenaren testua osorik 20 eguneko epean eta epe horretan zehar ez da alegaziorik ezta erreklamaziorik ere aurkeztu. Hitzarmena behin betiko onartu zen honenbestez, berriro akordiorik hartzeko beharrik gabe.


Hartutako akordioan, Jose Miguel Santamaria Eceizari, udaleko alkate-lehendakariari, ematen zitzaion hitzarmena bera eta hitzarmena gauzatzeko beharrezkoak ziren gainerako agiriak sinatzeko eskumena.

Akordioa behin betiko bilakatu denean eta sinatu egin behar zenean, 2019ko maiatzeko hauteskundeetako emaitzen ondorioz alkate-lehendakari kargua eskuratu du Adur Ezenarro Agirrek, eta beraz, azkeneko honi hitzarmena sinatzeko eskumena eman behar zaio.

Aurrekoa ikusita eta 2019ko urriak 1eko Antolakuntzako Informazio Batzordearen irizpenarekin, ondorengoa proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

Alkate-lehendakaria den ADUR EZENARRO AGIRREri, hitzarmena sinatzeko eta hitzarmena gauzatzeko beharrezkoak diren agiri guztiak sinatzeko eskumena ematea.



Ordiziako Udala

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Idazkariak jakinarazi du osoko bilkurak onartu zuela hirigintza hitzarmena aurreko legealdian baina bere izenpetzea atzeratu zela udal berria eratu zelako eta ondorioz, Adur Ezenarro Izagirre jaunari, alkate berriari, zehaztutako hitzarmena izenpetzeko eskumena eman behar zaio.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldekoak: 17 (E.H. BILDU 7, EAJ/PNV 7, Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak 2, (PSOE) PSE-EE(PSOE) 1)
Aurkakoak: 0
Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

17.- 2020 erako auto-taxien tarifak

Proposamena

Emilio Fernandez Fidalgo jaunak AGITAX, Gipuzkoako Taxisten Elkarteko (FIK G20098612) lehendakari gisa, aurkeztutako idatziaren berri eman da. Idatzi horretan, auto-taxien herri barruko 2020rako tarifak onartzea eskatzen du, ondoren zehazten den eran:

2020ko HERRI BARRUKO TARIFAK – Tarifas Urbanas 2020			
KONTZEPTU TARIFA	ABIASARIA/	EGINDAKO KILOMETROAK	ITXARON ORDUA
TARIFA 1*	3,6237	1,1344	21,6681
TARIFA 2**	3,6237	1,8093	34,0552

* Lanegunetan, 07:00etatik 22:00ak arte.


** Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00etatik 7:00ak arte. Bai igande eta araudi autonomika eta lokaleko erabakitako jaiegunetan 07:00tik 22:00 arte bai larunbatetan, eta abenduaren 24 eta abenduaren 31 egunetan.

AGITAXek tarifak justifikatuz prestatu duen txostena ekonomikoa ikusirik

Herri barruko gaurko dauden tarifak, hauek dira:

2019ko HERRI BARRUKO TARIFAK			
KONTZEPTU TARIFA	ABIASARIA	EGINDAKO KILOMETROAK	ITXARON ORDUA
TARIFA 1*	3,5949	1,1254	21,4962
TARIFA 2**	3,5949	1,7949	33,7849

* Lanegunetan, 07:00etatik 22:00ak arte.



Ordiziako Udala

** Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00etatik 7:00ak arte. Bai igande eta araudi autonomika eta lokaleko erabakitako jaiegunetan 07:00tik 22:00 arte bai larunbatetan, eta abenduaren 24 eta abenduaren 31 egunetan.

Gauzak horrela, 2019ko urriak 1eko Lurraldearen Batzorde Informatiboak honako hau proposatzea erabaki da:

AKORDIO PROIEKTUA.

1.- Onartzea 2020rako auto-taxien tarifak, esposizio-atalean esandakoaren arabera.

2.- Erabaki hau Goieki, S.A.ri jakinaraztea.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jaunak azaldu du urtero osoko bilkuratek pasa behar dela datorren urteko tarifen onarpena. Gaia Goieki San kudeatzen da.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldekoak: 17 (E.H. BILDU 7, EAJ/PNV 7, Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak 2, (PSOE) PSE-EE(PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.



Eguneko gai-ordenaren hurrengo puntura pasa aurretik, Alkate jaunak hurrengo bi puntuak presazko puntu gisa sartzeko beharra arrazoi du.


Majori Kiroldetgia SMren finantzaketa, taberna-jatetxearen sukaldeko altzari eta ekipamenduetarako. Ordizia Lantzen Sari 110.000 €ko ekarpena egitea, sozietateak hitzartuta dituen maileguren kuotei aurre egiteko.

Gainera, Santamaria jaunak eskatu du eguneko gai-ordenean beste puntu bat sartzeko osoko bilkura honetan aztertu den puntuetako batekin lotura duelako.

.- "EAJ-PNVk aurkeztutako Erakunde Adierazpena, Larrialdi Klimatikoari buruzkoa."

Idazkari andreak esan du presazko puntu gisa proposatutakoak aztertzen hasi aurretik, AFA (Antolakuntza eta Funtzionamenduari buruzko Araudia)ren arabera, osoko bilkuran onartu behar dela puntua sartzea eta behar den gehiengoa, gehiengo absolutua dela.

Hiru puntuak eguneko gai-ordenan sartzea bozkatu da, eta batera bozkatu dira:



Ordiziako Udala

Bozketa

Aldekoak: 17 (E.H. BILDU 7, EAJ/PNV 7, Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak 2, (PSOE) PSE-EE(PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Ondorioz, puntuak gai-ordenan sartu dira.

Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.

18.- Majori Kiroldedia SM finantzatzea sukaldeko ekipamendua erosteko.

Proposamena

Gauzatzen ari diren Majori Kiroldedia SMren obra fasean ez dago aurreikusita taberna-jatetxe berriaren sukaldearen altzariak eta ekipamenduaren hornitzea eta instalatzea hornitzea, eta ezinbestekoa da lehenbailehen sukalde berria martxan jartzeko.

Hori ikusita presazko izaeraz puntua sartzeari proposatzen da osoko bilkuran onartzeko.

AKORDIO PROIEKTUA

Majori Kiroldedia SMri taberna-jatetxera sukalde berriaren ekipamendurako eta horniketarako 25.000€ko ekarpena egitea onartzea, eta Tokiko Gobernu Batzordean onartuko den kreditu transferentzia bidez burutuko da.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jaunak sozietatea finantzatzeko beharra azaldu du Majori Kiroldegiko taberne-jatetxeko sukaldea ekipatu ahal izateko, ahalik eta azkarren ondo funtzionatu ahal izateko.

Santamaria jaunak adierazi du, Bolinaga jaunak esan duen moduan, osoko bilkurak erabaki behar dituen akordioak aldeztetik aztertu beharko liritekeela Sozietateko Administrazio Batzordean.

Alkate jaunak erantzun dio esanez horrekin ados dagoela baina presa dela eta ezin izan dela aldeztetik aztertu puntua Batzordean, baina puntua hurrengo Tokiko Gobernu Batzordean aztertuko da.

Bozketa


Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldekoak: 17 (E.H. BILDU 7, EAJ/PNV 7, Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak 2, (PSOE) PSE-EE(PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.



Ordiziako Udala



Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuaren berri eman du:

19.- Udalak Ordizia Lantzen Sari egingo dion ekarpena, 110. €koa, sozietatearen kredituei aurre egiteko.

Proposamena

ORDIZIA LANTZENI EKARPENA, ORDAINDU BEHARREKO MAILEGUEI AURRE EGITEKO

Ordizia Lantzen SA udal sozietateak hainbat mailegu hitzartu ditu zenbait banketxerekin, eta urtea amaitzeko geratzen diren kuotak ordaintzeko ez dago dirurik kontuetan une honetan, hainbat honezkero zenbaki gorrietan daudelarik.

Une honetan kuota hauek ordaintzeko beharrezkoa den zenbateko zehatza zein den ez dakigu.

Beste alde batetik, Ordiziako Udalak Ordizia Lantzen SArekin zor bat dauka zintzilik, 416.107,43 €koa, urbanizazio kuotei dagokiena.

Itundutako maileguen kuotei aurre egiteko sozietateari ekarpen gisa ematen zaion zenbatekoa zor horrekin konpentsatuko da, eta zor hori egindako ekarpenaren zenbatekoan murriztuko da.

Hori guztia ikusita, ondorengo proposatzen da

AKORDIO PROIEKTUA

1.-Ordizia Lantzen SAri 2019ko mailegu kuotei aurre egiteko 110.000€ko gehienezko ekarpen bat egitea onartzea.

Ekarpenaren zenbateko zehatza zehaztean, Tokiko Gobernu Batzordeak, zehaztutako kopuruaren kreditu transferentzia onartuko du.

2.- Zenbateko hori Udalak sozietatearekin duen zorrarekin konpentsatuko da, eta transferitutako zenbatekoan murriztuko da zorra.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:


Alkate jaunak sozietatea finantzatzeko premiazko beharraren berri eman du.

Sozietateak zenbait mailegu ditu banku batzuekin eta ez du mailegu horiei aurre egiteko likidezirik.

